



**BIKOTEEN ARTEAN HIZKUNTZA OHITUREN  
ALDAKETA. IKERKETA-LANA**

**IKERKETAREN EMAITZAK  
ETA ONDORIOAK**

2009ko urtarrila

# Aurkibidea

1	Sarrera.....	3
2	Ikerketaren fitxa teknikoak .....	4
3	Ikerketaren ondorioak.....	5
3.1	Gaiari buruzko azalpen teorikoa .....	5
3.1.1	Ikergaiaren zehaztapena .....	5
3.1.2	Taldekotasun printzipioa, osotasunaren printzipioa eta ikuspegi kolektiboa .....	6
3.1.3	Ohituraren aldaketa .....	8
3.2	Hizkuntza aldaketa prozesuaren gakoak eta ikerketaren irakaspenak .....	17
3.3	Zergatik aldatu? Zerk mugitu ditu? .....	22
3.4	Zein zailtasun ditu prozesuak?.....	26
3.5	Zein estrategia erabili dituzte?.....	31
3.6	Lan-ildo interesgarriak aurrera begira .....	35
4	Aztertutako bikoteak eta bikoteen sailkapena.....	36
4.1	Aztertutako bikoteak.....	36
4.2	Bikoteen sailkapen-proposamen bat .....	37
4.3	Aztertutako bikote bakoitzaren sailkapena .....	39
5	Bikoteen elkarrizketen azterketa nola egin den .....	41
5.1	Oinarri teorikotik elkarrizketen hustuketara .....	41
5.2	Elkarrizketa guztien taulak .....	43
6	Txostenaren CD osagarria: bertako informazioa.....	82
6.1	Txosten honen bertsio digitala.....	82
6.2	Ikerketa honen <i>Proiektuaren Txostena</i> .....	82
6.3	Ikerketa honen <i>Jarraipen-bilera Txostena (2008-09)</i> .....	82
6.4	Elkarrizketen <i>Pasarte adierazgarriak</i> dokumentua.....	82
6.5	Elkarrizketen grabazioak eta transkribaketak .....	82
7	Bibliografia .....	83

# 1 Sarrera

Matematikek kale egiten ez badigute, ugariago dira gaur egun EAEn, bikoteak osatzerakoan, euskaraz nola edo hala hitz egiteko gai diren biztanleak, orain dela 25 urte baino. Ez dirudi, dena den, zenbait datu soziolinguistiko aintzat hartzen baditugu, *etxeke giroan* euskara orain nabarmen gehiago erabiltzen denik aurreko hamarkadetan baino.

“1991. urtean EAeko biztanleriaren % 13,8k erabiltzen zuen euskara etxean eta 2001ean % 13,64k. Alegia, nahiz eta 1991tik 2001era euskaldunen kopurua handitu egin den (%16,28tik %32,31ra), etxean euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa ia ez da aldatu” (Eustat, 2006: 233)<sup>1</sup>.

Azken urteotako EAeko bilakaera soziolinguistikoak erakusten digu beste zenbait arlotan baino aurrerapen askoz txikiagoak egin direla *etxean* erabiltzen den hizkuntzaren euskarazko erabileran.

Euskara familia bidez transmititzeak duen garrantziarekiko adostasunetik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Soziolinguistika Klusterrari familia transmisioaren testuinguruan *hizkuntza-ohituren aldaketaren fenomenoaren* azterketa bat egiteko eskatu dio. Eta eskaera horri erantzunez Klusterrak eginiko ikerketa-proposamena gauzatu izanaren emaitza da esku artean duzuen txostena.

Fenomeno horren azterketan ikerketa bidez urrats bat emateko, *hizkuntza-ohitura aldatu duten* EAeko *bikoteak* lokalizatu eta aztertu dira, beren kasuak gertutik ezagutu, beraiengandik ikasi, eta aldaketa prozesu horien *gakoak* zein diren sakonagotik ezagutu nahian.

Ikerketa honen ideia, hasiera batean, Buruntzaldeko Familia bidezko transmisioa indartzeko egitasmoaren *Koordinazio Batzordean* sortu zen. Bertan biltzen dira HABEko, Buruntzaldeko Udaletako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako, Hezkuntza Saileko, Urtxintxa eskolako eta Soziolinguistika Klusterreko teknikariak<sup>2</sup>.

Abiapuntuzko ikerketa-asmo hura gauzatzeak erakutsi digu zer edo zer hizkuntza ohituren aldaketaren fenomeno konplexu eta biziki interesgarri honetaz. Espero dezagun, lan hau, ezeren *amaiera* baino, ildo bereko bestelako lanen *hasiera* bat izatea.

---

<sup>1</sup> EUSTAT (2006) *Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoa – Informe Socioeconómico de la CA de Euskadi 2006* Vitoria-Gasteiz: EUSTAT.

<sup>2</sup> Buruntzaldeko familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko egitasmoa: Koordinazio Batzordea (2007)

## 2 Ikerketaren fitxa teknikoa

- Ikerlariak:
  - o Olatz Altuna<sup>3</sup> - Soziolinguistika Klusterra
  - o Lionel Joly - Soziolinguistika Klusterra
  - o Pablo Suberbiola - Soziolinguistika Klusterra
  
- Aholkularitza teoriko eta metodologikoa:
  - o Pello Jauregi - EHU – Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
  
- Elkarrizketatzailea:
  - o Ziortza Sanz
  
- Bikoteek kontaktazioa:
  - o Talde-lana: ikus txostenaren 6.3 atala (*CD osagarrian*)
  
- Transkribaketak:
  - o Gupost ([www.gupost.com](http://www.gupost.com))
  
- Ikerketaren Jarraipen Batzordea:
  - o Erramun Osa - Hizkuntza Politikarako Sailordetza
  - o Ion Aizpurua - Hizkuntza Politikarako Sailordetza
  - o Pablo Suberbiola - Soziolinguistika Klusterra
  
- Ikerketaren iraupena:
  - o 2008ko martxotik 2008ko abendura

---

<sup>3</sup> Ikerketa baten garapenak eskatu ohi du ahalik eta etekin hobereana ateratzea dugun ezagutzari eta ditugun baliabideei. Besteak beste, *giza baliabideei*.

Klusterreko giza baliabideetan izan du ikerketa honek bere bidean aldaketa bat, bidean “ordezkatu” duguna baina hala ere “ordezkatu” ezin izan duguna. Hitz hauek Olatz Altuna lankidearentzat doaz Klusterreko bere lankideon partetik, *Astero ostera hastera* behartu zutenetik ezin izan baitugu ikerketa honetan bere ekarpena jasotzen jarraitu.

### **3 Ikerketaren ondorioak**

Ikerketa honen helburuetako bat *hizkuntzen ohitura* eta ohitura horren *aldaketaren* fenomenoaren bera ikertzea –ezagutza sakonago bat lortzea- izan da.

Hori horrela, ikerketan zehar *abiapuntu teorikoa* bera landu eta osatu egin da ikerketan jasotako materialetan oinarrituta, azalpen teoriko osoago bat eraikiz. Ondorioz, ikerketaren lehen emaitza fenomenoari buruz osaturiko *azalpen teoriko* hau dugu.

Azalpen teorikoaren jarraian eskaintzen dira sintetizatuta aztertutako bikoteetan sumatu diren *prozesuen gako nagusiak*, aldatzera eraman dituzten *zergatiak*, bidean topatu dituzten *zailtasunak* eta hauek gainditzeko erabili dituzten *estrategiak*.

#### **3.1 Gaiari buruzko azalpen teorikoa**

##### **3.1.1 Ikergaiaren zehaztapena**

Ikerketa honen aztergaia *bikoteen arteko hizkuntza ohituren aldaketa* da. Lehen zehaztapena da “bikoteen arteko” esaten dugunean bikote barneko hizkuntzaz ari garela, bikotekide batek bestearekin erabiltzen duenez.

Bikote batean hizkuntza harremana seme-alabean, familiako beste kideen edota inguruko lagunaren testuinguruan ematen da sarri. Kasu batzuetan bikoteak bere arteko harremanetarako darabilen hizkuntza eta seme-alabekin edo lagunekin darabilena ez datoz bat. Ikerketa honetan *bikoteen arteko* harreman-hizkuntza da aztergaia batik bat, nahiz eta hori aztertzean bikoteak seme-alabekin, lagunekin edo familiako besteekin erabiltzen duen hizkuntza ere kontuan hartu.

Eta, bikote barneko hizkuntzaz ari garenean, bigarren zehaztapena da harremanerako *normalean* erabiltzen den hizkuntzaren edo *ohiko hizkuntzaren aldaketari* erreparatu diogula gehienbat. Helburua beren arteko *ohiko hizkuntza* ohitura aldatu duten bikoteak aztertzea da, aldaketa hori nola eman duten ezagutzeko. Bikote horiek garai batean erdaraz egiten zuten, eta denbora bat pasata, euskaraz egiten dute. Aldaketa eman ondoren, gaur egun, beraien arteko komunikazio hizkuntza nagusia, beren *ohiko hizkuntza*, euskara da. Gerta liteke, adibidez, bikotearen arteko harreman edo elkarrizketa intimoak gaur egun erabat euskaraz ez izatea, baina familiako hizkuntza (seme-alabekin daudenean), edo bikotearen jendaurreko hizkuntza (seme-alabarik ez duten bikoteetan)<sup>4</sup> beti edo ia beti euskaraz da, iraganean ez bezala. Ikerketan aintzat hartuko dugun bigarren zehaztapena beraz, honakoa dugu:

aztergai ditugun bikoteetan, aldaketa bat eman da bikoteko kideen arteko ohiko hizkuntzan: lehen beraien arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen, eta aldaketa baten ondoren, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz da.

---

<sup>4</sup> Azterketa honen abiapuntua Familia bidezko hizkuntza transmisioaren testuinguruan izan den arren, hizkuntza ohituraren fenomenoaren ezagutza aldetik interesgarritzat jo da seme-alabarik ez duten bikoteen kasuak ere aztertzea, halakorik topatu den kasuetan, eta hala egin da.

Gai horrekin lotutako beste hainbat aspektu, beraz, ez dira berariaz aztertu lan honetan: ohiko hizkuntza ez aldatu arren aldaketa txikiak egin dituzten bikoteen kasuak, bi hizkuntza darabiltzaten bikoteek zein neurritan edo zein egoeratan erabiltzen duten hizkuntza bat edo bestea, kode alternantziak...

Lan honen zehaztapenak azaldu ondoren, gatozen erabili dugun oinarri teorikoa azaltzera.

### 3.1.2 Taldekotasun printzipioa, osotasunaren printzipioa eta ikuspegi kolektiboa

Bikoteak ditugu aztergai ikerketan, eta bikotea talde bezala aztertuko dugu, ez bi banakoren batuketara bat bezala. Bi kide "gehi" harremantzeko modu jakin bat zein izaera propio bat duen egituratzat hartuko dugu bikotea.

"Banakoen batuketa" baten eta "talde" baten ezberdintasunaren aspektu hau horrela azaltzen du, esaterako, Jauregi bere tesian:

... taldeak ez dira gizabanakoen batuketak. "Ane + Agurtzane + Josu + Jose Mari" lagun multzoa da baina ez taldea. Gizabanako horiek elkarren ondoan daude baina ez dute elkarrekiko harremanik, ez daude elkarrekintzan, ez zaizkio elkarri egokitu eta ez dute egiturarik sortu. Izatekotan, egiturarik gabeko "multzo" bat izango litzateke, baina inola ere ez talde bat

Izan ere,

.../... *gizabanakoarteko harreman berezi eta espezifikoez ematen dizkiote talde bati nortasuna, egitura eta sistematasuna*<sup>5</sup>.

Ikuspuntu horretatik, beraz, ikerketarako erabili den oinarri bat **Taldekotasunaren printzipioa** da. Horrela laburtuko genuke printzipio hau:

hizkuntza jokaera ez da gizabanakoaren alderdi hutsetik azter daitekeen kontua. Hizkuntza jokaera pertsonen arteko harremanari dagokion zerbait da, eta bikotea da gutxienezko kopurua. Elkarri egokituz eraikitzen da hizkuntza jokaera, eta egokitasunaren emaitza da jokaera ohiko bihurtzea. Hortaz, gizabanakoen elkarrekintzan sorturiko talde-arau batek gidatuko du gerora bakoitzaren jokaera. Talde baten eremua eta egitura dira aztergai nagusiak.

Aipatutako taldeen *nortasunaren* aspektua ere oso kontuan hartzekoa da hizkuntza kontuetan. Izan ere, hizkuntza erabilera talde batean ematen da beti, eta talde bakoitzak bere egitura, dinamika eta arauak ditu. Edo hitz batean laburtzearren, bere *nortasuna*. Gutako bakoitzak talde batean egiten duen hizkuntza erabilera talde horren ezaugarri horietara egokitu ohi da, norberaren ezaugarri pertsonalak kasu askotan bigarren maila batean geratuz.

Ikuspegi honetan azpimarratu beharreko beste ezaugarri bat talde hauen *sistema* izaera da, lan honetan **Osotasunaren printzipioa** bezala izendatu duguna:

<sup>5</sup> Jauregi, P. (1998), 19 eta 20. orr. Letra etzana jatorrizko testukoa da.

taldeak eremu sistemikoak dira. Hau da: nortasun, izaera eta ordena jakin bat dute. Talde edo osotasun baten nortasuna ez da kideen (edo zatikien) batuketa hutsa, nahiz eta kideek berea den zerbait eman dioten taldearen izaerari. Osotasuna funtsezko ezaugarria da, zatikiak ondoriozkoak dira.

Hala enbor bizi batetik sor daitezke adar ugari, eta haiek itxura berezia emango diote zuhaitzari, baina ez gero uste alderantzizkoa ere egia denik, hots, ezinezkoa da adarren metaketa hutsetik enbor bizi bat sortzea. Ikerketa estatistikoek nekez jaso dezakete osotasunari darion usaina, errealitatea zati ugaritan sakabanatzen dutelako. Ikerketa tipologikoak hobeto egokitzen dira honetara, osotasun motak antzematen dituztelako eta bide hori hautatu dugu lan honetan.

Nortasun bat garatzen duen talde batean –bikote batean, gure kasuan- ematen den hizkuntza ohituren aldaketa bezalako prozesu konplexu bat aztertzeko, taldea *sistema* ikuspegi batetik aztertuta egitea da egokiena gure ustez. Talde edo *sistema* hauek bere kideak, bere harremantzeko modua eta bere ingurunea dituzte, eta etengabeko dinamikan daude. Dinamika horretan kide bakoitzak bere lekua du, Jauregik<sup>6</sup> azaltzen digun moduan:

Taldeak sistema egituratuak dira. Arautuak daude kideen arteko harremanak eta zerikusia handia du horretan taldearen egitura kide bakoitzaren posizioak. Kide guztien eragina ez da iguala taldearen bizitzan.

Aipatu berri ditugun ideia hauekin, beraz, honela labur genezake bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa aztertzeko erabili dugun ikuspegi teorikoa, bikoteen *taldekotasunari* eta *osotasunari* dagokionean:

Hizkuntza erabilera taldeen baitan ematen da, eta gutako bakoitzak gure hizkuntza-joera indibiduala egokitu egiten dugu taldearen dinamikara eta arauetara. Talde bakoitzak –gure kasuan, bikoteek- sistema bat osatzen du, bere nortasuna, egitura eta dinamika propioak dituena. Hizkuntza erabilera testuinguru horretan ematen da.

Oinarri hauek aintzat hartuta, beraz, bikoteen azterketa ez dugu oinarrituko bi kideen ezaugarri indibidualetan. Aitzitik, talde gisa bikote bakoitzak garatu duen harremana edo *izaera* ezagutzea bilatzen dugu –hizkuntza erabilerari dagokionez, beti ere-, eta izaera horretan nola eman den aldaketa prozesua, nola garatu den kasu bakoitzean harremaneko ohiko hizkuntza aldatzera eraman dituen dinamika.

Azterketa modu honetan eginda, maila teorikoan *ikuspegi kolektibo* bat erabiltzen ari gara, ez *indibiduala*. Gure ustez, hizkuntza erabileraz, haren gaineko ohituraz eta ohitura horren aldaketaz ari garela, fenomenoaren ulermenerako askoz lagungarriago zaigu ikuspegi *kolektibo* batetik aritzea, ikuspegi *indibidual* batetik askoz ere zailagoa delako bertan eragiten duten indarrak, baldintzak eta bestelakoak jaso ahal izatea.

Ikus dezagun bi ikuspegi hauen arteko bereizketa nola egiten duen Jauregik:

Nire ustez, ikuspuntu indibidualak ezin ditu ongi planteatu hizkuntza erabileraren fenomenoak. Bi argudio sendo aipa ditzaket. Aurrenak erabileraren izate kolektiboaz zerikusia du. Gutxienez bi pertsona behar dira komunikazioa izan dadin. Bi pertsona dira gutxienezko kopurua hizkuntza erabiltzeko.

---

<sup>6</sup> Op. cit., 20. orr

.../... Aurreko argudioaren logikari jarraiki bigarren ideia bat azpimarra dezakegu. Pertsonarteko harremanak gutxitan dira egituragabeak eta zoriari emanak. Aitzitik ongi egituratuak eta sistematizatuak agertzen zaizkigu. Izaki bizien gisa har genitzake harremanok, egitura, historia eta barne mugimendua badituztela kontuan hartzen badugu<sup>7</sup>.

Ikuspegi teoriko hau geure egin dugu lan honetan, eta beraz azterturiko bikoteek talde gisa izan duten historian eta bilakaeran hizkuntzak zein leku izan duen aztertu da, eta bilakaera horien ezaugarriak bilatu, talde horien –bikoteen- osotasun ikuspegi batetik, eta ez, aldiz, bikotekide bakoitzaren ezaugarri indibidualetan azpimarra jarritz.

### 3.1.3 Ohituraren aldaketa

Hizkuntza ohitura aldatu duten bikoteen kasuak aztertzearekin batera, hizkuntza ohitura bera eta haren aldaketa, fenomeno gisa, hobeto ezagutzea da lan honen helburuetako bat.

Azterketarako erabili dugun ikuspegi teorikotik, aldaketa prozesu bat -hizkuntza ohiturena, kasu honetan- lau fase edo unetan bereizi dezakegu:

1. **Abiapuntuko egoera**  
Osotasun zaharra finkatuta zegoeneko
2. **Legamiaren unea**  
Aurreko osotasuna urratu zenekoa
3. **Berregokitze egoera**  
Osotasun zaharraren eta berriaren arteko tirabirak gertatu zirenekoa
4. **Finkatutako egoera**  
Osotasun berria azkenean finkatu zenekoa

Hizkuntza ohitura, beste ohitura asko bezala, ez da funtsean mailaka aldatzen den gertaera. Ez da 1 gehi 1 gehi 1. Kasu askotan ez da logika hutsaren arabera uler daitekeen zerbait ere. Korapilatsuago da kontua, edo aurreikusten zailagoa. Maiz, bizitzaren ezusteak eta inplikazioak hartu behar ditugu aintzat halako prozesuetan: hala nola, tarteka agertzen zaizkigun “gertaera berriak”, -guk “legamiaren unea” izendatu duguna-, osotasun zaharra auzitan jartzeko eta mugitzeko energia berria berekin dakartenak.

Halakoetan badira aldagai ezagun eta aurreikusgarriak, baina badira era berean ezusteko ugari ere. *Lemagiaren unea* deitu dugun horretan gauzatzen da inflexio puntua, eta lehendik zetorren ohiko jokaera hautsi egiten da (erabat edo neurri batean, baina hautsi egiten da), eta bestelako jokaera bat sortzen da. Kasu batzuetan, ez beti, jokaera berri hau finkatu egin daiteke, *finkatutako egoerara* iritsiz.

Ikus ditzagun banaka lau fase edo une hauek:

#### 1) Abiapuntuko egoera

---

<sup>7</sup> Op. cit., 13. orr



Ohituraren aldatzeko eman den prozesuaren lehen fasea litzateke abiapuntuko egoera. Bikote hauen kasuan, abiapuntuko egoeran harremanerako hizkuntza gaztelania zen, nagusiki edo erabat. Nolabait, *hizkuntza ohitura* gaztelanian *finkatua* zegoela esango genuke. Eta zer esan nahi dugu *ohitura finkatua* zegoela diogunean? Lehen hurbilpen gisa, horra nola azaltzen duen Suberbiolak, ohitura finkatzearen prozesu hau:

Eguneroko bizitzan edozein jarduera berriri ekiten diogunean, "pentsatu" egin behar izaten dugu gauzak nola egin, eta ikasten ari garen bitartean, hainbat ekintza kontzienteki egiten ditugu. Behin "baliagarria" zaigun edo "arazorik sortzen ez digun" jokaera bat ikastean eta finkatzean, ordea, jarduera hori inkontzienteki egitera pasatzen gara, automatizatzerara, eta modu horretan, egunero pentsatu eta erabaki beharra aurrezten dugu. Esate baterako, autoa gidatzen ikasten ari garenean, mugimendu bakoitza "pentsatzen" dugu eta arreta eskatzen digu (bi-hiru mugimendu batera egitea izugarri kostatzen zaigu!!). Gidatu ahala, ordea, ekintzak "automatizatzen" goaz, inkontzientera pasatzen, eta horrela, gero eta "errazagoa" egiten zaigu gidatzea<sup>8</sup>.

Berdintsu gertatzen zaigu hizkuntzaren erabileran ere:

Pertsona bat ezagutzen dugunean ere, harreman horretako gainerako kontuekin batera, zein hizkuntzatan hitz egingo dugun ere hautatzen dugu. Hizkuntza hautu hori oso denbora gutxian finkatzen da, eta behin finkatuta, automatikoki egiten dugu hautaketa aldiro, inkontzienteki.

Ohituraren *finkatze* prozesu honen ezagutzan sakontzeko oso lagungarri zaizkigu Edward De Bono-ren lanak. Berak erabilitako analogietan, gure burmuinetan ohitura bat *finkatzeko* prozesua naturan haran bat osatzeko ematen den prozesuarekin pareka dezakegu.

Gai bati buruzko *ohiturarik* oraindik ez duguneko egoeran, gure burua zelai lau bat litzateke. Euria liriateke, aldiz, eguneroko bizitzan jasotzen ditugun *input*-ak, edota input horien eraginez gudan sortzen diren egoera mentalak. Euria egiten duenean, urak, hainbat baldintza tarteko, bide bat hartzen du gure zelai lauan. Hasieran ez oso bide definitua. Baina euriaren eta gure zelaiaren ezaugarrien arabera -euriaren ezaugarriak, zelaiaren gora-beherak eta azpiko egitura geologikoa...-, denborarekin lehen "errekaxo" bat eratzen da. Euri "berri" gehiago eremu jakin batean erortzen den bakoitzean, urak bide jakin bat hartzen du -osatzen den errekaxo horrena-, eta bide hori ibili ahala, zelai lauan arrasto bat eratzen joaten da. Maila mentalera etorrira, une horretan dagoeneko *ohitura finkatzen* hasia dela esango genuke.

Joera honek jarraitzen badu, hau da, A egoera konkretu baten aurrean ematen dugun erantzuna beti X bada, joera hori indartzen joango da: naturako analogian *haran bat* osatzen joango da, eta ondorioz, joera hori ezerk oztopatzen ez badu harana gero eta sakonagoa izango da: A egoeran X erantzuna ematea gero eta *automatikoago* egingo zaigu.

Erabili ditugun iturrietan, *area de captación* bezala izendatzen da guk *input* edo A egoera bezala aipatu berri ditugunak. *Finkatutako ohitura*, berriz, De Bonoren ondorengo azalpen honetan *pauta estabilizada* litzateke:

Es el comportamiento natural de los sistemas autoorganizadores, que pasan de estados inestables a estados estables. Resultado de ello es que una gran variedad de cosas incorporadas pueden llegar a estabilizarse como la propia **pauta**

---

<sup>8</sup> Suberbiola, P. (2004), 63. orr

**estabilizada.** Ésta es la amplia **área de captación.** En un principio, este amplio mecanismo de captación tiene grandes ventajas para la supervivencia. Pero más tarde resulta que tiene algunos defectos muy graves<sup>9</sup>.

Analogia berdinarekin jarraituz, behin haran bat osatu denean isurialde oso batean erortzen den ura erreka jakin batera joango da. Modu berean, egoera mental jakin batean edo batzuetan (A egoera) erantzun jakin bat (X erantzuna) emateko joera hartzen goazen heinean, A egoera horiei X erantzuna ematea gero eta automatikoagoa izango da.

Non eta, ez den sortzen, finkatzen hasia den joera hori oztopatuko duen zerbait; edota, egoera mental horri beste modu batean erantzutea eskatzen digun zerbait. De Bonok horrela azaltzen du:

Si existe ya una pauta establecida, no es posible establecer otra en la misma área, porque nuestra mente volvería siempre a la primera. (...) El resultado es que estamos sujetos a nuestras pautas, percepciones, conceptos y palabras<sup>10</sup>.

Hizkuntza erabiltzeko ohiturarekin ere, berdin gertatzen delakoan gaude:

Hortaz, hortik aurrera, hiztunetako batek, edo kanpo faktoreren batek "adostuta" dagoen hautaketa kuestionatzen ez badu edo hautaketa horrek arazorik sortzen ez badu, inkontzienteki egiten jarraituko dugu eta, beraz, hizkuntz hautua ez da zalantzan jarriko, ez da kontziente egingo eta ez da aldatuko.<sup>11</sup>

## 2) Legamiaren unea

Gorago aipatu bezala beraz, *finkatutako ohitura* bat aldatuko bada, beharrezkoa da *osotasun zaharra* auzitan jartzea. Hau da, beharrezkoa da osotasun zahar horretan "ongi" funtzionatzen duen *ohitura* hori auzitan jarriko duen zerbait agertzea sisteman –gure kasuan, bikote harremanaren sisteman-. *Zerbait agertze* hori izan daiteke sisteman elementu berri bat sartzea, edota sisteman lehendik zegoen elementuren bat une batean kopuruz gehitzea, gutxitzea edo izaeraz aldatzea..., baina modu batera edo bestera, *ohitura* bere lekutik mugitzeko energia berria berekin dakarren elementuren bat behar da aldaketa emango bada. Bestela, azaldutako eskemaren arabera, ordura arteko *pautaren* edo *finkatutako ohituraren* araberrako erantzuna ematen jarraituko du sistemak dena delako egoerari.

Dena den, gutako bakoitzak esperientziaz badaki, gudan finkatutako ohitura batzuk aldatu aldatzen direla kasu batzuetan. Beraz, posible da irudikatu dugun *haran* baten forma aldatzea edo haran berriak sortzea, kasu batzuetan. Eta hori gertatzen denean, posible da lehengo A egoera suertatuta, "betiko" X erantzuna eman beharrean Y erantzun berri bat ematea –joera berri bat sortzen hastea. Eta erantzun berri horren *harana* sakontzen joaten bada –behin eta berriz, A egoeran lehengo X erantzuna eman beharrean, orain Y erantzuna ematearen poderioz-, ohitura berri bat finkatu daiteke. De Bonoren hitzetan, *pauta* berri bat sor daiteke lehengo eremuan:

A veces es posible establecer una nueva pauta para mejor discriminación dentro de una pauta ya existente (...). **Las pautas pueden cambiarse unas veces añadiéndoles algo y otras cambiando su significado. Pueden cambiarse**

<sup>9</sup> De Bono, E. (1992), 120. orr. Azpimarratua gurea da.

<sup>10</sup> Op. cit., 131. orr

<sup>11</sup> Suberbiola, P. Op cit, 63. orr

**alterando su carga emocional:** puede permanecer igual la pauta, pero cambiar el efecto.

.../...

**Raras veces mueren las pautas por ser atacadas, pues los ataques refuerzan su uso. Mueren por atrofia y negligencia. También pueden morir por una alteración en el contexto.** Por ejemplo, el contexto de la píldora anticonceptiva cambió muchas percepciones sobre el comportamiento sexual. A veces es posible empezar una pauta totalmente diferente y extender después poco a poco su área de captación hasta que pueda asumir alguna captación de la pauta original que se quiera cambiar.

Permanece, no obstante, la dificultad fundamental. Se trata del establecimiento de una nueva pauta en un territorio sobre el que tiene derecho preferente una pauta ya existente<sup>12</sup>.

Ikuspuntu teoriko honetatik, ikerketan bikoteen ohituraren aldaketa nondik etorri den aztertzen da: *legamiaren unea* –edo *uneak*- nolakoak izan diren, alegia. Eta ondoren aldaketa horrek zein bilakaera izan duen; beti ere bikotea bere dinamika propioa duen sistema bezala ulertuta.

Esate baterako, bikote hauen hizkuntza ohiturari dagokionez, beren *sisteman*, *elementu berriak* lirateke, nola ez, seme baten edo alaba baten jaiotza –kasu honetan beren *sistemaren* osaketa bera aldatzen duena, elementu berria(k) gehituz, horrek dakarren guztiarekin-. Edo adibidez, elementu berri bat izan daiteke lanagatik bizitoki berri batera aldatu izana, euskara beraien jatorrizko herrian baino gehiago erabiltzen den kasu batean. Edo lagun berriak egin izana, beste hizkuntza ohitura batzuk dituztenak, e.a.

Beste kasu batzuetan, aldiz, elementu berririk agertu ez arren, beren *sistemako* osotasun zaharrean lehendik bazeuden elementu batzuk aldatu egin daitezke. Adibidez, bikote batek euskararen aldeko kontzientzia edo nahia izan dezake, baina beraien arteko harremana –dena delakoagatik- gaztelaniaz finkatuta dago, eta eguneroko funtzionamenduan nahi edo kontzientzia horrek ez du *auzitan jarri* gaztelaniaz egiteko ohitura. Bikotearen *sisteman* bi elementuok daude, ez dute elkar oztopatzen, sistemak *ongi* funtzionatu du. Eta gerta daiteke, adibidez, eguneroko bizitzako hainbat gertaerek –beraiengan eragin bat izan dutenak, *iritsi* zaizkienak- lehendik zuten kontzientzia edo nahi hori handitzea, aldatzea, eta kontzientzia “aldatu” hori tartean izanda ordura arteko *erantzuna* –harremana gaztelaniaz izatea, ari garen gaian- jada baliagarri ez izatea, modu horretan jokaera berri bati ekiteko energia sortuz beraietako batengan edo biengan. Kasu horretan esango genuke sisteman zegoen elementu baten aldaketak ekarri duela ordura arte finkatutako ohitura *auzitan jartzea*.

### Harreman hizkuntza aldatzea... asko aldatzea da

Lehenago aipatu dugun bezala, azterketa honetan bikote bat *sistema* gisa aztertzen ari gara, eta sistema hori bere ingurunearekiko etengabeko elkarrekintzan bizi da, etengabeko kontaktuan. Sistemako kideengan edo beraien arteko harremanean aldaketak sor ditzaketen elementuak ingurune horretatik datoz beraz, bikotearen *kanpotik* nolabait esatearren.

Puntu honetan hemen sakonduko ez badugu ere, sistema baten izaeran, pisu berezia du kideen arteko *harreman-motak*. Gutako bakoitza, esaterako ez gara “berdinak” gure

---

<sup>12</sup> Op. cit., 132. orr. Azpimarratua gurea da.

harreman guztietan. Parte hartzen dugun talde edo sistema bakoitzean leku desberdin bat dugu, eta horrekin lotua dagoen *rol* bat. Modu jakin batean jokatzeko kasu bakoitzean, edo beste era batera esanda, *harreman* ezberdina dugu talde horietako bakoitzean bertako kideekin.

*Harreman* hauetan, hizkuntza ez da “azaleko” elementu bat, harremanaren erdi-erdian dagoena zerbait baizik. Harreman horien zati handi bat hizkuntzaren bidez garatzen dugu: hartu-emanerako tresna nagusietako bat dugu. Hori horrela, *harreman* batean *hizkuntza* aldatzea *asko* aldatzea da. Are gehiago, harremana –bikote harremanetan bezala- oso hurbilekoa denean (egunerokoa, elkarrekin ordu asko ematekoa...). Eta are gehiago, gainera, bikotean elkarri *esaten* dizkiogunak kasu askotan gure bizitzetan *karga emozional* edo garrantzia handia dutenean.

Alde horretatik, erabiltzen ari garen ikuspegi sistemikotik, harreman baten *ohiko hizkuntza* aldatzea ez da edozein aldaketa egitea. Harremanaren oso “erdian” dagoen elementu bat aldatzea suposatzen du, eta beraz norabide ezberdin askotan izan dezake eragina sistema horren funtzionamenduan.

Maila teoriko batean, giza jokaeretakoa aldaketei buruz oso lagungarri zaizkigu Paul Watzlawick irakaslearen azalpenak. Berak ere ikuspegi sistemikoa erabiltzen du harremanak aztertzeko eta, laburtuz, esan genezake bi aldaketa-mota bereizten dituela sistema baten eguneroko funtzionamenduan eman daitezkeen –eta ematen diren-aldaketen artean:

- *aldaketa<sub>1</sub>*, bezala izendatzen duena: sistema batean, bere ordurarteko funtzionamenduarekin jarraituta, eguneroko errealitateei erantzuteko edo egokitzeko egiten diren aldaketak (ondorengo aipuan, *cambio<sub>1</sub>*).
- *aldaketa<sub>2</sub>*: sistemaren izaeran eragiten duten aldaketak, bere funtzionatzeko modua –harremanaren nolakotasuna, gure kasuan- ukitzen dutenak (ondorengo aipuan, *cambio<sub>2</sub>*). Aldaketa sistemikoak lirateke azken hauek.

Ondorengo aipuan ikusiko dugunez, sistema batek normalean ez du bere baitatik *aldaketa<sub>2</sub>* bat eragiten, sistema beraren funtzionamendua aldatuko duena. Egonkortutako sistema batean horrelako aldaketa bat kanpotik etorri ohi da gehienetan:

Un sistema que pase por todos sus posibles cambios internos (...) sin que se verifique en él un cambio sistémico, es decir: un cambio<sub>2</sub>, puede considerarse como enzarzado en un *juego sin fin*<sup>13</sup>. No puede generar desde su propio interior las condiciones para su propio cambio; no puede producir las normas para el cambio a partir de sus propias normas<sup>14</sup>.

Esan bezala, puntu honetan ez dugu gehiago sakonduko, baina garrantzitsua da gure azterketarako kontuan hartzea aztergai dugun aldaketa, ez dela azaleko aldaketa bat.

---

<sup>13</sup> Watzlawick-en eta Stanford-eko Unibertsitateko beste lankide batzuk *Gizakion arteko komunikazioaren teoria* landu dute, besteak beste, Psikoterapiaren ikuspegitik. Horregatik esaten da aipu honetan *enzarzado en un juego sin fin*, izan ere, beraien lanean giza jokaeren aldaketak nola eman daitezkeen edo ez aztertzen da, baina ohitura batek arazoak sortzen dituen kasuetan eta horri nola aurre egin ez dakigunean (Psikoterapiaren arloko urtetako esperientzia). Horrek ez du esan nahi, noski, gure ikerketan hizkuntza ohitura zaharra “arazo” bat denik, ez baita hala kasu askotan. Hala ez izan arren, egile honen lana oso baliagarria zaigu aldatze dinamika horien ezagutzarako.

<sup>14</sup> Watzlawick, Paul; Weakland, John H. eta Fish, Richard (2007) *Cambio. Formación y solución de los problemas humanos* (12. edizioa). Barcelona: Herder. 42 eta 44. orr [Ingeleseko jatorrizkoa 1974koa da].

Harremanaren ohiko hizkuntza aldatzea, sistemaren –bikote harremanaren- muina ukitzen duen aldaketa bat da, ikusi berri dugun terminologia honetan *aldaketa*<sub>2</sub> motakoa litzateke harremanaren ikuspegitik. Beraz, ezingo da “edozein” indar edo elementu izan ordura arteko *osotasuna auzitan jarriko* duena.

### Aldaketarako baldintzak

Eta zein dira era honetako *aldaketa sistemiko* bat eman ahal izateko bete behar diren baldintzak?

Lan honen gainerako ataletan bezala, eta beti ere, guk ezagutzen dugun arte, goiko galderari erantzuteko apenas daukagun eskura eredu teorikorik, ez eta ikerketa bidezko ebidentzia enpirikorik, hizkuntza ohituren aldaketaren gaian. Ez euskal soziolinguistikan, ez eta soziolinguistika katalanean edo beste herrialdeetako ikerlarien lanetan ere.

Gurean bada, dena den, urtetan garatu den esperientzia teoriko-praktiko oso interesgarri bat, *hizkuntza ohituraren aldaketa* fenomenoarekin zuzenean lotutakoa. *Kuadrillategi* egitasmoa da, hain zuzen. Ikerketa eta ekintza egitasmo horri buruzko artikulu batean Diego Egizabal, Axier Huegun eta Pello Jauregi egileek *ohitura aldaketak eskatzen dituen baldintzak* zerrendatzen dituzte<sup>15</sup>. Aldaketarako baldintza *objektiboak* eta baldintza *subjektiboak* (*psikolinguistikoak*) bereizten dituzte.

Gure ustez, hemen aztergai dugun fenomenoarentzat aplikagarriak eta argigarriak dira lan horretan aipatzen diren *baldintza subjektiboak* (aipatzen dituzten *baldintza objektiboak* Kuadrillategi egitasmoaren testuinguruari lotuago daude).

Horrela ba, beren harremanaren hizkuntza ohitura aldatuko duten bikoteetan, ondorengo baldintza hauek bete beharko dira, edo hala izan ezean, nekez emango da aldaketa:

(...) Baldintza objektiboaz gain, badira beste hainbat baldintza subjektibo (psikolinguistiko) ere bete behar direnak. Hona hemen jokaera berria eman dadin hiztunarengan gertatu behar diren hautemateak:

\*Jokaera berria desiragarritzat jo behar du hiztunak. (...)

\*Jokaera berria egingarria eta erabilgarria jo behar du hiztunak, hau da, euskaraz ere kideen arteko hartu-emanak modu egokian kudea daitezkeela hauteman behar du. Euskaraz galdetu, agindu, adierazi, maitatu, zirikatu, zein gorrotatu ezin dela uste duenak nekez egingo du euskaraz taldean.

\*Jokaera berriak neurriko ahalegina eskatzen diola hauteman behar du hiztunak. Euskaraz egiterakoan neke-penetan eta izerdi patsetan ematen duen lagunak nekez izango du euskaraz egiteko gogorik.

### Zerk *muqitu* ditu bikote hauek? Zein emozioak?

Aipatu berri ditugun hiru baldintzak aztertuta ikusten dugu, egon behar duela, alde batetik, *nahi* bat ohitura hori aldatzeko: *jokaera berria desiragarritzat* jo behar da eta *erabilgarritzat*. Bestalde, badirudi tartean *kalkulu* moduko bat ere badagoela: *egingarriztat*

---

<sup>15</sup> Egizabal, Diego, Huegun, Axier eta Jauregi, Pello (2004) Kuadrillategi egitasmoa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (103-111).

hauteman behar da jokaera berria, eta horrez gain *neurriko ahalegina* eskatuko duela hauteman behar da. Litekeena da, dena den, bai nahi hauek eta bai kalkuluak kasu guztietan ez erabat kontzienteak izatea aldaketak gauzatzen dituztenen aldetik.

Ikerketaren ataletako bat horri zuzendua da: Zer dela eta aldatu dute bikote hauek beren ohitura gaztelaniatik euskarara? Zerk *mugiarazi* ditu lehengo ohituratik, beren lehengo *osotasun zaharretik*?

Bikote hauek aldaketa egitera zerk mugitu dituen goitik behera jakitea, noski, bere horretan oso gai zabala eta sakona izan daiteke. Ikerketa honen abiapuntua eta dimentsioa kontutan izanik, urrundik ere ezin diogu gure buruari galdera horri zehatz-mehatz erantzutea helburutzat jarri. Horrela ba, aldaketa egitera mugiarazi dituzten motiboetara edo indarretara hurbilpen bat egitea da hemen gure xedea.

Puntu honetan bat egiten dugu azken urteotan *adimen emozionalaren* inguruan egin diren lan ugari planteatu duten ildoarekin, hau da, pertsonen jokaerak ulertzeko orduan, arreta gehiago jartzea alderdi emozionalei alderdi arrazionalei baino.

Arlo horretan oso ezagun den lan batean, esaterako, Daniel Goleman egileak horrela adierazten du gorago aipatutako ideia:

Todos sabemos por experiencia propia que nuestras decisiones y nuestras acciones dependen tanto –y a veces más– de nuestros sentimientos como de nuestros pensamientos. Hemos sobrevalorado la importancia de los aspectos puramente racionales (de todo lo que mide el CI) para la existencia humana pero, para bien o para mal, en aquellos momentos en que nos vemos arrastrados por las emociones, nuestra inteligencia se ve francamente desbordada<sup>16</sup>.

Izan ere, lan berean azaltzen den moduan, *emozio* hitzaren jatorrian bertan jaso dago bere gaitasun hori:

Todas las emociones son, en esencia, impulsos que nos llevan a actuar, programas de reacción automática con los que nos ha dotado la evolución. La misma raíz etimológica de la palabra *emoción* proviene del verbo latino *movere* (que significa “moverse”) más el prefijo “e-”, significando algo así como “movimiento hacia” y sugiriendo, de ese modo, que en toda emoción hay implícita una tendencia a la acción.

Aipatu *emozio* hauek besteekiko harremanen testuinguruan gertatzen dira, ez dira erreakzio indibidual subjektibo hutsak. Aipaturiko *tendencia a la acción* edo ekintzarako joera edo inputso horiek ez dira norberaren erreakzio kapritxosoak, pertsonarteko harremanen joan-etorriaren testuinguruan sortzen diren erreakzioak baizik. Emozioak harreman hauek *erregulatzeko* balio diguten tresnak dira, besteak beste.

Gorago esan bezala, erabili dugun ikuspegi sistemikoan kideen arteko *harreman-mota* da beren sistema gehien ezaugarritzen duen elementua. Hortaz, emozioak pertsonen arteko harremanak erregulatzeko tresna ere badiren neurrian, aldaketa prozesu hauetan aktoreak mugiarazi dituzten emozioak aztertzeak ez du agortzen aldaketa horren *bultzatzaile* eta *oztopo* izan diren dinamika guztien gaia, baina bai, behintzat, nagusienetako batzuk ezagutzeko aukera zabaltzen digu.

Maila honetan kontuan hartu behar dira, aipatutakoez gain, beste bi muga:

---

<sup>16</sup> Goleman, Daniel (1996), 23. orr.

- Alde batetik, bikoteengandik informazioa lortzean izan dezakeguna. Hainbat kontu tarteko: bikoteek zenbait bizipen ez gogoratzea, zenbait gauza ez kontatu nahi izatea...
- Bestetik, kontuan hartu behar dugu norbera ez dela kasu guztietan jakitun izaten *zein* den eta *nolakoa* den zerbait egitera bultzatu duen *emozioa*. Beraz, aztertuko diren bikoteengandik informazio guztia lortzera iritsiko bagina ere, ezingo genuke izan beren *sisteman* gai honetan eragin bat izan duten emozio guztien xehetasuna.

Nolanahi ere, eta mugak muga, bikote hauek ohitura aldatzera eramán dituzten zergatien ezagutzan aurreratzeko, kasu bakoitzean aitortzen diren edota sumatzen ditugun *emozioen* azterketaren bidetik jotzea hobetsi dugu.

### 3) Berregokitze egoera

Honaino *Lemagiaren uneaz* esan beharrekoak; ohitura berria finkatzeko *norabide aldaketa* emateko uneari edo faseari buruzkoak.

Jakin badakigu, ordea, behin aldatzen diren joerak ez direla kasu guztietan *ohitura berri* gisa finkatzera iristen. Aurreikustekoa da puntu honetan bikoteen kasuistika zabala izatea: baliteke batzuk ohitura berria berehala eta nahiko erraz finkatzea, beste batzuetan aldiz prozesu luzeagoa izan daiteke, zailagoa, edota faseak egon daitezke non –dena delakoagatik- ohitura berritik zaharrera itzuli diren eta gero berriz berrira...

Ikuspegi teoriko batetik, gure ustez puntu honetan kontzeptu interesgarria da *gaitasun estrategiko*arena. Hau da, zein baliabide erabili dituen bikoteak aldaketa-prozesuak planteatu dizkien zailtasunei aurre egiteko, eta nola erabili dituzten.

Zentzu horretan, bikoteen azterketa egitean, kasu bakoitzaren bilakaera deskribatzeko bi ataletan bildu behar litzateke informazioa:

- Zein izan diren bikote horretan ohitura aldatzera eramán dituzten motiboak, indarrak, e.a. Horri erantzungo lioke aurreko atalaren amaieran azal dutako *emozioen azterketak*.
- Bigarren atal batean, berriz, bikote horren ohituraren bilakaeran mugarrak izan diren puntuak jaso behar lirateke: aldaketaren lorpenak nola kudeatu dituzten, zein lorpen nabarmentzen dituzten, zein zailtasun aipatzen dituzten gehien, zein baliabiderekín egin dieten aurre zailtasun horiei...

Aldez aurretik, dena den, badugu berregokitzearen kontu honetan ere muga bat. Ikergaiaren oinarri teorikoaren 1. atalean *zehaztapenetan* adierazi bezala (ikus *bigarren zehaztapena*), lan honetan beren ohiko hizkuntza aldatu dutenak ditugu ikergai. Beraz, bikote hauek, modu batean edo bestean, baina *lortu egin dute* aldaketa hori egin eta ohitura berria finkatzea.

Zalantzarik gabe fenomenoari buruzko informazio baliagarria jaso ahal izango da puntu honetan aztertutako bikoteengandik, baina aspektu honetan hori bezain baliagarria litzateke beste bikote mota batetik lortuko genukeena: nolabait esatearren, hizkuntza ohituraren aldaketa martxan jarri, baina *euskarazko ohitura finkatzea lortu ez duten* bikoteengandik lortuko litzatekeena, hain zuzen.

#### 4) Finkatutako egoera

Erabili dugun eskemaren laugarren eta azken fasea litzateke hau, *finkatutako egoerarena*.

Ikerketaren zehaztapenetan definitu dugunarekin, aurreikustekoa litzateke bikote hauek gaur egun beraien arteko harremanean beti edo gehienetan euskaraz aritzeko ohitura izango dutela, eta ohitura hori *finkatuta* egongo dela.

Baliteke, ordea, hori kasu guztietan ez hala izatea. Abiapuntuan bertan aipatu dugu, esaterako, balitekeela bikote batzuk beren hizkuntza ohitura aldatu izana eremu, gai edo une jakin batzuetan, baina beste batzuetan gaztelania erabiltzen jarraitzea.

Litekeena da ere, bikote batzuen kasuan *finkatutako egoera* denboran zehar aldatzen joan izana: hau da, finkatutako ohitura bat egoera berrien aurrean aldatzen joan izana.

Edozein modutan dela ere, zalantzarik gabe informazio interesgarria izango da laugarren fase honi buruz lortzen dena ere, ohitura aldaketaren fenomenoak hizkuntzaren –gure kasuan hizkuntza gutxitu baten- kasuan nola funtzionatzen duenaren jakintzan aurrera egiteko.



## **3.2 Hizkuntza aldaketa prozesuaren gakoak eta ikerketaren irakaspenak**

### 1.- Aldaketa handiak, motibo handiak

Bikotearen harreman hizkuntza pisu handiko kontua da: harremanaren erdian dago, eta harreman hori norbere bizitzaren zati handi bat izaten da. Horrela, harreman horren hizkuntza aldatzeak norbere bizitzaren parte garrantzitsu bat aldatzea suposatzen du. Eta parte garrantzitsu hori aldatzeko arrazoi garrantzitsu bat egoten da tartean: nahi handi bat, behar bat, “horrela” jarraitu ezin bat, horien arteko konbinaketa bat... baina ez da bolada bateko kapritxoa edo anekdota izaten.

(Arrasate2)<sup>17</sup>:

*gazteak ginen, gaur egun [52 urte] ni ez nintzateke gai izango hori berriz egiteko*

Gero, hori bai, arrazoi, behar, nahi... dena delako horren garapenak forma ezberdinak hartzen ditu: batzuetan hasieratik oso handia zen eta beste batzuetan txikitik hasi eta handitzen edo aldatzen joan da.

### 2.- Lorpenak azpimarratzen dituzte zailtasunak baino gehiago

Bikote hauen kontakizun gehienetan zailtasunak “normaltzat” hartzen dira, eta prozesuak zeozer “natural” bezala deskribatzen (ingurune erdaldunean izan arren). Askotan “zailtasun” gisa aipatu ohi diren kontu asko (ikasi bitarteko ezerosotasunak, akatsak egitea...), suposatutzat ematen dira, eta aldiz, “lorpenetatik” hitz egiten da gehiago:

- Askok prozesu “oso polita” bezala deskribatzen dute, harrotasun puntu batekin (baten bat hunkitu ere bai, errepasoa egitean).
- Denek dute motiboren bat, nahiren bat horretara eraman dituen. Nahi horretatik, pasa beharreko zailtasunak “normaltzat” kontatzen dira. Askok aipatzen dute prozesua... “naturala izan dela” (nahiz eta, adibidez, Gasteizen gertatu).

Horrela, esan genezake bikote hauek izan dutela prozesu hori aurrera eramateko behar zen *gaitasun estrategikoa*: jakin dutela beren lorpenak baloratzen eta urrats berrietarako behar zituzten “elikatzeko” moduak topatzen.

### 3.- Bolada batean, lehentasuna euskarari, ohitura finkatu arte

Bikote askoren aipuetan ikusten da bolada batean beren egunerokoaren “energia” zati handi bat aldaketa-prozesu honi dedikatu diotela. Bolada batez gaia “lehentasun”tzat hartze hau prozesuaren gakoetako bat bezala ageri zaigu.

(Lasarte-Oria1)

---

<sup>17</sup> 3.2, 3.3, 3.4 eta 3.5 ataletan azalpenetan bikoteen elkarrizketen pasarte laburrak tartekatzen dira. Gainean parentesi artean bikotearen kodea ageri da eta azpian elkarrizketaren transkripzio-zatia, letra etzanean. Testuan ulermena errazteko gure oharrak gehitzen direnean, parentesi artean daude, letra arruntean.

*momentu batean nik nire bizitzan eman nion lehentasuna euskarari, finkatu arte;  
beste jende batek eman dio beste gauza batzuei.*

#### 4.- Erabilera etorri da erabiltzetik

Bietako batek edo biek gutxi zekiten bikoteetan, behin oinarrizko gaitasun batetik aurrera ez da gertatu lehenik gaitasun “on” bat eskuratzea *eta gero* bikotean hitz egiten hastea. Beraien arteko erabilera ez da etorri, nolabait, gaitasun on baten *ondoren*, erabileratik bertatik baizik.

Bakoitza bere moduan eta bere momentuan errazen zitzaientetik hasita erabiltzen joan dira, eta erabilera hori izan da ardatz, bai gaitasuna eskuratzeko eta bai harremanaren ohitura euskarazkoa bihurtzen joateko.

Prozesua eramateko estilo aldetik bikote bakoitzak berea izan du, noski, baina aipatutakoaren adibide dugu, esaterako, ondorengo:

(Gasteiz1)

*Nik ya nire burua (kili-kolo) moldatzeko moduan ikusi nuenean esan nizun:  
gaur hasten da gure bizitzan aro berri bat. Izan zen erabakia harremana  
euskaraz izateko.*

#### 5.- Arraro eta zail, baina egiten hasitakoan... uste baino errazago

Bikote harremana hasterako euskarazko gaitasuna biek izan baina erdarazko harremana finkatua duten bikoteetan, harreman hizkuntza aldatu denean, deskribatzen da bolada bat<sup>18</sup> (bi-hiru hilabetekoa normalean) non “zaila” egiten den besteari euskaraz egitea. Non “arraro” sentitzen zaren, eta sentazio hori “gogorra” egiten omen da.

Gero, ordea, epe (labur) hori pasata, zailtasun hori oso azkar txikitzen da, eta sentazio arraro hori erabat desagertzen da. Are gehiago, alderantzizkoa izatera ere iritsi da bikote hauen kasuan: “*zein arraroa pentsatzea lehen erderaz genuela harremana*”-ren estilokoak esaten dituzte.

Esan genezake, beraz, biek gaitasuna izanik: a) aldatu aurretik ematen du oso zaila/gogorra izango dela, b) aldaketaren hasieran ere hala da (bolada batean), baina c) behin praktikan aldatzen hasita, uste baino errazagoa egiten da. Aipu honek berak laburtzen du:

(Tolosa1):

*Arraro sentitze horretan, ematen du kristona kostatu behar zaizula...  
zaila da hizkuntza batetik bestera pasatzea... bueno, zaila emateu! Gero hasten zea eta...*

Gaur egun euskarazko gaitasuna eta gaztelaniazko harremana duten bikote askorentzat interesgarria izan daiteke aztertutako bikote hauen testimonioa jaso eta zabaltzea.

---

<sup>18</sup> Pare bat kasutan hiru hilabete inguruko bolada aipatzen da. Erreferentzia gisa balio du, baina pentsa daiteke hau aldakorra izango dela kasutik kasura.

## 6.- Prozesuaren zaintza

Aldaketa-prozesu hauen deskribapenean askotan agertzen da *zaintza* izendatu dezakegun zerbait: ingurune euskaldunetan ere –zer esanik ez erdaldunetan- erdara *beti eskura, toki guztietan* dagoenez, bikote hauek garatu dituzte estrategiak “euskaran mantentzeko” edota “euskarara itzultzeko” elkarrizketetan.

Aipatzekoa da bestalde, bikote gehienetan, mutila dela *zaindari* rol hau nabarmenago hartu duena. Aldiz, neska batek baino gehiago aipatzen ditu horrelako ideiak: *hau horretan fuerte jarri zen eta nik segi nion; niregatik bazan agian jarraituko genuen lehen bezala*. Inpresioa da, beraz, bide bati *eustearen* rol hori gizonezkoak hartzeko joera moduko bat dagoela.

(Arrasate1):  
*gure etxian, gogor jarri, hau jarri zan* [mutilarengatik].

Joera hau bat dator beste ikerketa batean Jauregik ateratako ondorioarekin:

Emakumezkoek gizonezkoek baino errazago eskuratzen dute euskaraz mintzatzeko gaitasuna. Baina gizonezkoek emakumezkoek baino tinkoago eusten diote euskaraz egiteari<sup>19</sup>.

Horrez gain, bada beste puntu bat era horretako “zaintza” batek aldaketa-prozesua arrakastaz aurrera eramateko izan dezakeen garrantzia iradokitzen diguna: 50-60 urteko hainbat bikotek egin ditu era honetako aipamenak: “gero, seme-alabak etxetik joan eta egin ginan “erlajatu bezela”, erderazko komentarioak eta gehiago sartu.

Aztertutako kasuetan, “erlaxatze” horrek ez du ekarri finkatutako euskarazko harremana erderatzea, baina protagonisten kontakizunean sumatzen da aldaketa-garaiak beste “intentsitate” bat eskatu ziela, garai hartan jarrera “erlaxatu” hori izan balute agian euskara ez zela nagusituko beraien erabileran.

## 7.- Seme-alabetatik bikotera, nekez

Seme-alabak dituzten aztertutako bikoteetan, hauek normalean pisu nabarmena izan dute bikoteko euskarazko ohitura finkatzeko edo/eta sendotzeko. Kasu batzuetan, abiapuntuzko nahi ez oso sendo bat seme-alaben biharko etorreraren harira handitu da, eta beste batzuetan, behin seme-alabak izanda, beraiekiko euskarazko harremanak finkatu eta elikatu egin du bikotearen euskaraz harremantzeko nahia.

Dena den, kasuak aztertuta ikusten dugu, beraien ohitura oso nabarmen edo erabat aldatu duten bikoteetan, seme-alabak jaiotzerako beraien arteko harremana euskaraz zela nagusiki, edo aldaketa hasita zegoela. Hau da, seme-alabak jaiotzean *aurretik* aldatu dutela beraien artekoa –aldatzen hasi behintzat.

Hipotesi gisa formulatzen dugu, beraz, ondorengoa: ***behin seme-alabak jaiota, bikoteko harreman-hizkuntza aldatzea jaiotzean aurretik baino askoz zailagoa da***, besteak beste,

---

<sup>19</sup> Jauregi (2003), 59. orr.

behin jaiota lehentasunak beste batzuk direlako eta energia haiei bideratu behar izaten zaielako.

Ondorengo bi aipuak norabide horretan doaz. Bi kasuotan, bikote horiek aldatzeko arrazoi nagusi bezala aipatzen dute umeein euskaraz egitea. Gurasoek euskara ikasi dute eta seme-alabei egin diete, baina bikoteko harreman-hizkuntza ez da nabarmen aldatu:

(Donostia2):

(Neskak ikasi zuen, gehienbat umeei begira, ordurako ya udalean plaza finkoa zeukan). *Lanean, euskara jakiteagatik eginbehar gehiago duzu, soldata gehiago ez. Motibazioa ez da hortik etorri. Laneko ordutegian liberatuta ikasi nuen; urte t'erdian 3. urratsetik 11.era.*

.../...

*Gero ja umeein, lana, dena... ikasten jarraitzeko oso zaila*

(Donostia3):

(seme-alabak jaiotzearekin batera hasi ziren ikasten; gero neskek utzi zuen).

*guk nahi genuen pixka bat euskararekin gure bidea familian aurreratzea: gure gurasoek ez zekiten, gu hasi ginen, gure seme-alabek dakite oso ondo, gure bilobek...*

## 8.- Ez dute aldatu seme-alabengatik (bakarrik), baina ohitura finkatzen lagundu dute

Bikote hauetako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen lagundu du seme-alabak izateak. Askok ahalegin berezia egin dute ikasten *seme-alabak jaiotzerako* gaitasun maila on bat izateko, eta beste askoren kasuan, berriz, bikotean ordurako abiatutako euskarazko harremana indartu egin du seme-alabak tartean izateak, hauekin erabat euskaraz egin baitute guraso hauek.

## 9.- Bikoteen definizio teorikoa eta emaitza praktikoa

Aztertutako 27 bikoteetatik 7k ez zuten, nolabait, abiapuntuzko baldintza betetzen: esan genezake kasu horietan ez dela eman aldaketa nabarmen edo erabateko bat gaztelaniazko ohituratik euskarazko ohiturara, eta euskarazko erabilera ez da (oraindik) nagusitu beraien artean.

Hala ere, fenomenoaren azterketarako oso baliagarria tipologia honetakoak ere tartean izatea, besteak beste, alderatu ahal izateko.

## 10.- Ohitura aldatu duten hiru bikote-mota: *Berreskuratu*, *Eskuratu* edota *Euskaratu*:

Bikote motak bereizteko ez da bikotekideen ezaugarri indibidualen hustuketa eta alderaketa egin lan honetan, oinarri gisa hartzen baitugu aldaketaren gakoak, funtsean ez direla indibidualak, taldekoak, edo kasu honetan, bikoteko harreman mailakoak baizik. Hau da, harreman bakoitzean eratzen den dinamika norberaren ezaugarri indibidualei nagusitzen zaielakoan gaude.

Hori horrela, euskara beraien artean erabiltzeari dagokionez bikote hauek egin duten *bideak* aztertu eta alderatu dira bikote motak bereizteko. Modu honetan, ondorengo hiru

bikote motak bereiz ditzakegu beren harreman hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu dutenen artean. Labur esateko:

- ***Berreskuratu*** motakoak: berezko zutenari bide eman diotenak
- ***Eskuratu*** motakoak: beren nahia egunez egun egi bihurtu dutenak
- ***Euskaratu*** motakoak: nahiak beraiengan forma hartu du eta egi bihurtu dutenak

Esan genezake hiru motetan ematen dela uneren batean eta moduren batean euskara (gehiago) erabiltzeari buruzko nolabaiteko *hausnarketa* eta praktikara eramanez direla erabakiak, baina bakoitzean bere modura:

- **Berreskuratu**: gaitasuna badago, erabakitzen dute une batean *hortik aurrera euskaraz* egitea eta praktikara eramaten dute.
- **Eskuratu**: nahi hori –hausnarketa- aurrez egina dago, eta horregatik kasu askotan ez da inoiz horretaz “erabakirik (esplizitorik) hartu” , baina praktikan hasieratik pausoak ematen dira.
- **Euskaratu**: hasieran nolabaiteko nahia badago, baina ez dago gaitasunik eta aurrez hartutako erabakirik ere ez. Ikasteko pausoak eman ahala nahi hori eskuratu egiten da, erabaki egiten da *euskaraz ahalik eta gehien* egitea, nolabait, eta bide horri jarraipena ematen zaio.

#### 11.- Prozesu bakoitza, mundu bat

Aztertutako bikote batzuen kasuan beraien biharko harremana euskaraz izatea “beti” irudikatu izan duten zerbait da. Baina badira bikoteak euskara ikasten hasi zirenean helburu horretatik oso urrun zeudenak. Kasu guztietan ez da gertatzen hasieratik egon dela aldatzeko nahi handi bat. Harreman bakoitzaren bilakaera konplexuagoa da, eta tarteko hainbat gertaerek baldintzatzen dute prozesua.

Nolabait esateko, bikote bakoitzak izan ditu berezko “hari” batzuk, abiapuntu batzuk. Hari horiek garatzen joaten dira, bai pertsonalki eta bai harremanean. Bikote hauetan, une batean hizkuntza aldatzearen joerak forma hartu du beraien sistemaren bilakaeran, baina kasu batzuetan hori nekez aurreikusi zitekeen, beraien aitortu bezala, ez baitzen hori beren hasierako helburua.

### **3.3 Zergatik aldatu? Zerk mugitu ditu?**

Jarraian zenbakituta laburbiltzen dira aztertutako bikoteen elkarrizketetan, *Zer dela eta aldatu zenuten zuen arteko harreman-hizkuntza gaztelaniatik euskarara?* galderaren harira gehien aipatzen dituzten zergatiak. Maiz, bikote hauen erantzunetan zergati edo arrazoi bat baino gehiago aipatzen dituzte bikotekideek, hamaika modu ezberdinetan konbinatuta<sup>20</sup>.

Aldatzeko bikotekideek emandako “arrazoi” edo “zergati” hauek jarraian laburtuta eskaintzen ditugu. Elkarrizketetan aipatutako jatorrizko hitzak ahalik eta gehien bere horretan mantenduz, baina ikuspegi laburtu bat eskaini ahal izateko, berdintzat jo ditugunak batean laburtuz.

#### **1.- Euskaldun izan nahia**

Ohitura aldatzeko gehien aipatzen den zergatia da hau. Batean laburtzen badugu ere, elkarrizketetan modu ezberdinetan aipatua agertzen da euskaldun izan nahiaren sentimendu hau. Besteak beste, honako hauek.

- Sentimendu abertzalea izatea.
- Kontzientzia politiko bat izatea: euskaldun sentitzea, ez espainol.
- Kontzientzia euskalduna izatea, identitate euskalduna, euskalduna izatea.
- Euskaraz ez jakitearen amorrua izatea.

#### **2.- Familian jasotakoari jarraipena ematea**

Etxean gurasoengandik kideetako batek edo biek euskara jaso dutenen kasuan, baina gero bikote harremana erdaraz garatu, aldatzeko zergatien artean hau ere agertzen da: gurasoek eman zigutenari jarraipena ematea, euskararen katea ez etetea...

#### **3.- Gurasoek eman ezin izan zigutena seme-alabei eman nahia**

Kasu batzuetan, bikote hauen gurasoek ez zieten euskaraz egin baina bai transmititu zieten euskararenganako nahi bat, maitasun bat, kontzientzia bat. Horrelakoetan aldatzeko aipatzen den motibo bat horrela labur genezake: gure gurasoek nahi ziguten euskara eman, baina ezin izan zuten; guk gure seme-alabei bai.

#### **4.- Bizi naizen tokiko hizkuntza eta kultura neureganatzea**

Bizi zaren lekuan txertatuta egotea azpimarratzen da kasu honetan, funtsean, aurreko biak bezala, hau ere lehenengo zergatiarekin oso lotua dago. Besteak beste, modu hauetan aipatzen da: euskararen mundu sinbolikoa eskuratu nahia, hemengoaren parte izan nahia...

Badira kasu pare bat non bikotekideetako bat kanpotik etorria den eta han bera hizkuntza gutxitu bateko hiztun zena (bata galiziatik, bestea kataluniatik): bi kasuetan oso garbi adierazten da hemengo hizkuntza ikasteko nahia: “*hemengo hizkuntza ez ikastea ez da nire buruan sartzen*”.

---

<sup>20</sup> Bikote bakoitzak aipatu dituenak kontsulta daitezke 5.2 atalean

## 5.- Besteak niregatik gaztelaniaz egitera ez behartzea

Normalean kontzientzia euskaldun batekin lotuta aipatzen da arrazoi hau, baina besteekiko errespetua edo “ez aldarazi nahia” ere gehitzen zaio kasu hauetan. Ingurune euskaldunetan jaso dugu, gehienbat: Zarautzen eta Beasainen, esaterako.

## 6.- Seme-alaben etorrera irudikatzea

Normalean bikote hauetan hizkuntza aldaketa prozesua seme-alabak izan aurretik abiatu da. Dena den, asko aipatzen da aldatzeko zergatietan seme-alaba euskaldunak izan nahia, edota seme-alabei etxe-giro euskaldun bat eskaintzea. Euskara erabiltzen hasita zeuden bikoteetan, seme-alaben etorrera irudikatzea beti izan da bide horretan finkatu dituen arrazoi bat, beren nahia indartu duena.

Badira kasu batzuk, non seme-alabei euskara ematea edo euskara transmititzea izan den aldatzeko aipatzen den motibo (ia) bakarra. Hauen kasuan normalean seme-alabei gehienbat edo erabat euskaraz egin diete, baina beraien artean jarraitu dute euskaraz eta gaztelaniaz egiten.

## 7.- Garaiko giro sozio-politikoa: inposaketaren kontrako erreakzioa eta garaiko euskalduntzearen aldeko giroa

Kasu batzuetan oso garbi “garai hartako giro sozial eta politikoa” desberdina zela, eta nola eragin zuen –elkarrizketatuen ikuspegitik- beraien *euskalduntzeko* eta euskara erabiltzeko gogoia sentiaraztea.

Kontakizun bakoitzean bere xehetasunak dituen arren, labur genezake esanez, batzuen kasuan euskararen aurkako inposaketari aurre egiteko erreakzio sozialeko giroan, *euskaldun izateak* bazuela esanahi indartsu bat erregimenaren aurka, eta aldaketa hau egin duten askoren kasuan bidegabekeri eta inposaketa horiek beren euskaldun izateko nahi identitarioari forma eman diote, beren hautu pertsonal izateraino (esan bezala, askotan “arrazoi bakarra” ez den arren).

Beste batzuen kasuan, urte batzuk geroago (80. hamarkadan), garaiko giroaren beste ezaugarri bat nabarmentzen dute beste elkarrizketatu batzuk. Horrela laburtuko genuke: frankismo amaierako eta transizioko lehen urteetan *euskalduntzeak* beste *esanahi sozial* bat zuen (gaurkoaren ezberdina), eta mugimendua handia zen: gau-eskolak, euskaltegiak... Gai honekiko intentsitate handiko urteak bezala kontatzen dira. Esate baterako:

(Gasteiz3):

... *Garai hala zen (giroa); nik (mutila) institutu garaian ikasi nuen, klasetik aparte eta nire dirutik; hori orain...[askok ez lukete ulertu ere egingo] Baina garai hartan bazegoen... zerbait masiboa edo..*

Ikuspegi kualitatibotik lan egin dugunez, ez dugu kontrastatzen hemen euskalduntzearen garai hartako matrikulazio-kopururik (edo estimaziorik) eta gaur egungorik, garrantzitsuena baita aldaketa hauen protagonistentzat euskalduntzearen aldeko mugimendua oso *desberdina* zela orduan, gaurkoa baino indartsuagoa, edo behintzat *beste esanahi* bat zuena.

Ondorengo adibide hau, berriz, Bilboko bikote baten elkarrizketakoa. Bai gorago aipatu berri duguna eta bai ondorengo gaur egun 45 eta 44 urte dituzten bi elkarrizketatu dira, 16-19 urte zituztenean euskara ikasten hasitakoak (alegia, 79-81 urte inguruetan):

(Bilbo2):

*Kuadrilako 10-12 lagun ibili ginen, oso orokorra zen; gau-eskolako irakasle ere kuadrilakoak izan ziren*

## 8.- Euskararen aldeko giro soziala

*Giro soziala* aipatzen da kasu honetan ere, baina beste elkarrizketatu-mota baten aldetik: etxetik –gutxi gehiago- euskaldunzahar izan, kaleko giroan erderara jo eta garaiko *giro sozialak* lagunduta edo eraginda berriz euskarara hurbildu zirenen aldetik, nolabait esatearren.

Ondorengo bi aipuetan Arrasate dugu aipagai, bi elkarrizketatu ezberdinen aldetik. 85-90 urteetako mugimenduz ari dira, *euskaldunzahar* askori beren hizkuntza “birbaloratzeko” indarra eman ziena. Lehenengoa, Arrasate bertako bikote batena:

(Arrasate1):

*alde batetik, esan genduala, bueno ba nahiko da [nahikoa da erderaz egitetik] ; baina ez zan izen gurie bakarrik, Arrasate mailan egon san hola giro berezi bat, AED sortu san...,*

Arrasatera bizitzera etorritako bikote honen kasuan berriz, horrela aipatzen da:

(Arrasate2):

*(4) Lantegian hasi zen mugimendu bat, gero AED sortu zen, bazegoen giro bat... horrek ere lagundu zuen.*

Kasu hauetan, euskalduntze masiboa baino, giro sozial horren eragina euskara bazutenek *berea baloratzearen* puntu horretan islatzen da. Nolabait, urtetan “gureari uko” egitera behartuta, baina dagoeneko ohituta egonik, Arrasatekoa bezalako euskararen aldeko mugimenduetan<sup>21</sup> euskaldun batzuegan “zer arraio, gureak ez al du batere balio?” moduko erreakzioak eragin ziren, bikote hauetako batzuek beren ohitura aldatzeko indar gisa aipatu dutena.

## 9.- Gaztelania arrotza izatea

Azken arrazoi hau, ia bitxikerizat har dezakegu, bikote gehien-gehienak egoera honetatik urrun baitaude. Aztertutako bikote batean agertu zaigu.

Aipatu kasuan Zarautzen azterturiko bikote bateko arrazoa da (Zarautz2 bikotea). Bikote gaztea da (gaur egun 35 urte inguru duena), eta kide bat zarautzitarra da, eta bestea berriz, kataluniatik etorritakoa, baina katalunian Vic-ekoa dena (katalanaren erabilera erabat nagusi da bertan). Biek aitortzen dute, beren herriko giroan –Zarautzen bata eta Vic-en bestea-, oso-oso gutxi erabili izan dutela gaztelania. Eta ez bati eta ez besteari ez zaiola batere “naturala” egiten gaztelaniaz espresatzea, eta are gutxiago beren bikote

---

<sup>21</sup> Hemengo adibideetan, bikoteen aipuetatik abiatuta, Arrasate eta AED aipatzen dira zehazki, baina oro har, 80. hamarkadatik aurrerako euskararen aldeko gizarte mugimenduz ariko ginateke orokorrean.



harremanerako erabiltzea. Tartean, baina, elkar ezagutu, biok gaztelania jakin eta horrela abiatu zuten harremana, baina hortik gutxira ekin zioten bakoitzak bestearen hizkuntza ikasteari eta aurreikustekoa da aldaketarekin jarraituko dutela<sup>22</sup>, euskarara (eta katalanera) aldatuz gaztelaniatik.

#### 10.- Hasieran, asmoa ikastea, gero...

Eta bukatzeko, beste arrazoi-multzo bat, orain arteko zerrendarekin lotua baina ezberdindu beharrekoa. Bikote hauen kasuan –kide baten kasuan behintzat- euskara ikasten hastea ez zen izan gero *bikoteko hizkuntza ohitura* aldatzeko asmoarekin: hasiera batean, euskara ikastea zen asmoa, ez besterik.

Baina, ikastearen prozesu horretan zehar, euskara beste leku bat hartzen joan da bere bizitzan. Horrela, beste hainbat egoera tarteko, prozesuak euskara ikasteaz gainera –edo ikastearekin batera- bikotearekin zuten harreman-hizkuntza aldatzera ere eraman dituen. Ikasten hasteko, besteak beste, arrazoi hauek aipatzen dituzte elkarrizketatu hauek:

- euskararekiko kuriositatea
- lehendik zuten maila hobetu nahia
- lanerako nahi izatea

---

<sup>22</sup> Bikote honen kasuan euskarazko ohitura ez dago finkatua oraindik.

### 3.4 Zein zailtasun ditu prozesuak?

Beren arteko harreman-hizkuntzan bikoteek egin dituzten aldaketak “prozesu” gisa azter ditzakegu. Mila xehetasun eta ezaugarri partikular du prozesu hauetako bakoitzak. Prozesu horiek aurrera egiteko *zailtasunez* hitz egiten dugunean ere, konplexutasuna handia da. Maiz, egoera berdin bat emanda ere bi bikote ezberdinetan, batzuk “zailtasun” bezala kontatzen dute, eta beste batzuek oso bestela. Eta bikote berean ere, momentu jakin batean zailtasun handia suposatzen zuen zerbaite, hortik denbora batera ez da inolako traba izan.

Konplexutasun hori onartuta, dena den, posible da zailtasun hauen nolabaiteko “bilduma” egitea, eta bilketa hau lagungarri zaigu hizkuntza aldatzearen *fenomenoaren* ezagutzan aurreratzeari begira.

Kasu honetan ere –gorago *zergatiekin* egin bezala- bikoteek elkarriketetan erabilitako *kategorizazioan* oinarritzen gara hemen: hau da, bikoteek *zailtasun* bezala aipatu dutena –beraiztat hala zena- zerrendatzen da hemen.

Atal honetan ere, bikoteek modu ezberdinetan aipatutako zailtasunak taldekatu eta laburtzeko ahalegin bat egin da hemen, ikuspegi orokor bat eskuratu ahal izateko, baina beti ere adierazitako jatorrizko modutik ahalik eta gutxien urrunduz.

Puntu honetan gogora ekarri beharrekoa da bikote hauek –gehienak behintzat- gaztelaniatik euskararako *aldaketa egin dutenak* direla. Beren elkarriketetan, ez dira prozesuari buruzko *zailtasunak* justu gehien azpimarratzen dituzten elementuak. Seguruenik, gai desberdinak aipatuko lituzkete –edo modu desberdinean- aldaketa hau egin nahi baina egiterik lortu ez duten bikoteek.

#### 1.- Nahi bezala espresatzeko mugak:

Zailtasun hau elkarriketa gehienetan aipatzen da, modu batean edo bestean: zerbaite esan bai, baina “nahi duzun bezala”, edo nahi duzun xehetasunarekin ezin esan horretaz airtuko ginateke.

Batzuk “hizkera mugatua” bezala adierazten dute, beste batzuk “txispa falta” bezela, “freskotasun falta” ere aipatzen da, edota, “gaiztoagoa” izateko ezina. Adibidez: *gaztelaniaz “gaiztoagoa” naiz, ziria sartu nahi badut badakit non sartu, euskaraz zailagoa zait...* Batek baino gehiago laburtzen du zailtasun hau ere –umore ukitu batekin- *fasilidade* hitzarekin: *badakizu, erderaz fasilidade gehiago duzu...*

Zehaztasun edota txispa mailan ez ezik, muga hauek hizkuntza-maila jasoagoari buruz ere aipatzen dira. Esate baterako, heziketa guztia gaztelaniaz jasotako batzuk adierazten dute, esaterako, azken 20-25 urtetan euskaraz asko irakurri eta idatzi arren, eta euskaraz hobetzen saiatu arren, hobetu bai, baina jarraitzen dutela gaztelaniaz maila hobea izaten, gaitasun jasoagoa.

## 2.- Gaztelaniarako joera: behin eta berriz “ateratzen” zaizu

Hau ere bikote askoren kontakizunean ageri da. Euskara erabiltzen hasi, ongi moldatu, eta hala ere, egoera askotan “gaztelania atera” izana.

Ohitura aldaketaren fenomenoaren zuzenean lotutako puntua dugu hau, Oinarri teorikoaren *Ohituraren aldaketa* azpiatalean ikus daitekeenez. Lan honetan ez da berriaz zehazki aztertu nola kudeatzen duen mentalki kide bakoitzak egoera hau, baina ohituraren eta haren aldaketaren fenomenoan puntu gakoetako bat izan daiteke hau.

Bikote hauen kasuan, ordea, *ateratzen zaizun hori* bere horretan utzi beharrean, aldatzeko prozesu bat egin dutenez, -horretarako nahi handia zutelako, edo prozesu horretan sartuta zeudelako...- aldiro egin beharreko aldaketa hau nahiko gauza “normala” bezala deskribatzen da. Horrelako esaldiekin, esaterako: *erdara errazago ateratzen zaizu, noski...* “Berezko” joera horri aurre egiteak, une batzuetan nekea ere sortzen die, etengabe pentsatzeak eta hizkuntzak nahasten ibiltzeak batzuetan dakarren buruko neke sentazioa.

Zailtasun hau modu labur eta esanguratsuan adierazten du elkarrizketatu baten aipu honek: (prozesuaren zailtasunez galdetuta) *zailtasunak? honbre, borroka beti (kar-kar-kar)*.

## 3.- Aldatzen zailenak diren egoerak:

Badira egoera batzuk bikoteen aldetik *aldatzeko bereziki zailak* bezala deskribatzen direnak, eta horien atzean ziurrenik “zailtasun” bakarra egongo ez den arren, egokia iruditua zaigu horiek ere atal honetan zerrendatu eta deskribatzea:

### a) Eztabaidak eta haserrealdiak

Zerrendatu ditugunetan, zalantzarik gabe hau da bikote guztietan gehien errepikatzen dena. Bikote askok adierazten dute, elkarrizketa “normalak” euskaraz egitera ohituta egon arren, eztabaidatzean erderara askoz errazago jotzen dutela, askoz gehiago. Bikote batzuen kasuan, euskara beraien harreman-hizkuntza “normala” duela 20-30 urtetik izan arren, jarraitzen dute elkarrizketetan erdera (ere) erabiltzen.

Puntu honen amaieran aparteko ataltxo bat eskaini diogu gai honi.

### b) Paper garrantzitsuak egiteko

Behin euskarazko harremana finkatuta ere, bikote askorentzat etxeko “paper kontuak” euskaraz egitea, “paper garrantzitsuak” betetzea edo horiei buruz bien artean euskaraz hitz egin eta erabakiak hartzea zailagoa da beste zeregin batzuk baino.

### c) Barru barrutik sentimenduak ateratzeko

Hau ez da oso orokorra baina kasu batzuetan bai aipatzen dela beren sentimendu bat “barru-barrutik” adierazi nahi izan duten egoeretan gaztelaniara jo behar izan dutela.

### d) Zenbakiak adierazteko, kalkuluak egiteko

Nahiko ohikoa hau ere.

#### d) Esaldi eginak, erderazko espresioak

Euskarazko elkarrizketan arituta, maiz “egindako esaldiak” edo espresioak etortzen zaizkie gogora –gaztelaniaz- eta tartean sartzen dira. Horrelakoak, egoera batzuetan ugariak dira, elkarrizketatu batek aipatzen zuen bezala, “gaztelania toki guztietan baitago”. Espresio eta esamolde hauek, batzuetan maila puntual horretan geratzen dira eta elkarrizketak euskaraz jarraitzen du; beste batzuetan aldiz, elkarrizketa jada ez da bueltatzen euskarara.

#### e) Bolada estresatuak eta agobiatuak

Egoera eta gaiez aparte, bikote hauen esperientziatik orokortu genezakeen beste zailtasun batek norbere –edo bikotearen- aldartearekin du lotura. Bikote batek baino gehiagok aipatu du nola aldaketak egitea, aldaketekin jarraitzea edo aldaketei eustea “zailagoa” den norbera arduratuta dabilenean, estresatuta dabilen garai batean, agobiatuta gabiltzanean...

#### f) Pertsona batzuekin aldatzea zailago

Eta norberaren aldarteaz aparte, pertsona batzuetatik besterako aldea ere asko aipatzen da. Elkarrizketatu askok, bikotearekin ezezik beren lagun eta anai-arreba askorekin aldatu dute ohitura. Lagun edo anai-arreba horietako batzuekin aldatzea beste batzuekin baino askoz zailagoa egin zaiela aitortzen dute, *ez dakit zergatik* (seguruenik mila kontu batera egongo da “zergatik” horretan: bion izaerak, harreman mota, non eta noiz elkartzen diren...).

### 4.- Arraro sentitzea:

Bikote hauetako askok beren aldaketa prozesua gauza “naturala” izan dela aipatzen duten arren, badira hainbat une “arraro” senti zarena. Gehiago aipatzen dute hau, esaterako, elkar ezagutzerako gaitasuna bazuten bikoteetan. Pixkanaka ikasten eta progresiboki erabiltzen joan diren bikoteetan, prozesu luzea deskribatzen da, eta kasu horietan sentazio hau ez da aipatzen gehienetan. Aldiz, aurrez euskara bazekiten bikoteetan, “aldatzen” hasi direnean, sentazio arrotz bat deskribatzen da, arraroa, gerora erabilpenarekin desagertzen joan dena, -bikote hauen kasuan behintzat- erabat desagertzeraino.

“Arraro” sentitze honetan, puntu interesgarri bat da bikotean arrarotasun honek duen efektua. Bikote batzuk deskribatzen dute izan dutela une bat non bazirudien bikotekidea “beste pertsona bat” zela, “desberdin” ikusten duguna.

Edonola ere, aztertutako bikoteetan arrarotasun hau bolada bateko kontua izan da, eta ez da zailtasun handi bat bezala deskribatzen. Gehiago ulertzen dugu beren hitzetan “pasa beharreko urrats” bat bezala. Kontuan hartu behar dugu, beti ere, zailtasun hauetara –eta besteetara- ongi egokitu direnen ahotik ari garela. Nolabait esatearren, “arrarotasun” horrek oso traba handia suposatu dion bikote bat ikerketa honetatik kanpo legoke.

### 5.- Deserosotasunak, bai bikotearekin edo bai familiakoekin

Aldatu nahi izateak eskatu die bikote hauei zenbait egoera “deseroso”tan “eustea”, aldaketarekin aurrera egiteko. Hauetariko batzuk aipatzearren:

- Bikote barruan, rol banaketa: bikoteak sistema gisa deskribatu ditugu lan honetan, beren elementuak eta orekak dituzten sistemak. Euskaraz hasteak kasu batzuetan ordura arteko bikoteko “rol banaketa” aldatzea bat ekar dezake –esaterako, bat bestearen “ikasle” bihurtzen denean- eta horrelako birkokatze bat kasu batzuetan deserosoa da.
- Bikote barruan: mantsoago hitz egitea, besteari pazientziaz entzutea edo behar duen laguntza ematea deserosoak izaten dira une batzuetan.
- Familiar, hizkuntza ez aldatzearen, isilik: kontakizun batzuetan agertzen da nola, neskaren edo mutilaren guraso euskaldunekin bolada luzetan “entzutera” eta “han egotera” mugatu diren, pixkanaka ikasiz, beraiek erderaz egitera behartu nahi ez zituztelako.
- Lagunekin, familiakoekin... “edukazio falta”: bikoteari edo seme-alabei ingurune erdaldunean euskaraz egiten dioten askok, bolada batean izan dituzte ezerosotasunak edo arazoak familiakoekin, hauek ez zutelako ulertzen bere aurrean zergatik egiten zuten euskaraz: “nik ez ulertzeko egiten al diozue?”
- “Soziala” ere izan da deserosotasun hori kasu batzuetan, kalekoa. Esaterako, kale giroan erabat erderaz egiteko ohitura zegoen kasuan euskaraz hastea erabaki zuen bikote batek aipatzen du ohitura sozial horren zailtasuna: *orain normala iruditzen zaigu, baina han gu bitxo raroak ginen.*

Beste zailtasunei bezala, bikote hauek jakin dute deserosotasun hauen aurrean “berregokitzen”, ez zaizkie “arazo handi” bilakatu eta jarraitu ahal izan dute aldaketa-prozesuarekin.

## 6.- Zuzendu bai, baina... noraino?

“Irakaslea” etxean izatea eroso izan daiteke, baina hitz egiten duzun aldiro norbait ondoan “zuzentzen” egotea... nekagarria ere bai! Bikote hauetako askotan boladaren batean “bat bestearen irakasle” izan da. Zeregin horretan aipatzen duten zailtasun bat da “zuzentze” edo “erakuste” horri tamaina bilatzea, “balio digun” oreka bat topatzea.

## 7.- Solaskide falta..., edo solaskide “egoki”ena

Elkarrizketa batzuetan aipatzen da “norekin praktikatu” faltan izatea, batez ere gune erdaldunetan. Ez da asko aipatzen den kontu bat, bikote hauek jakin dutelako eraikitzen inguruan beren “euskarazko sarea”, baina kasu batzuetan aipatzen da euskara hizkuntza gutxitua izateak praktikatzeko aukerei begira suposatzen duen zailtasun hau.

Horrekin batera aipatuko genuke, solaskide “egokiak” izatearen falta. Edo beste era batera esanda, gutxi dakienari laguntzeko jarrerarik ez izatea edo nola lagundu ez asmatzea. Ezin dugu hau orokortu, dena den, elkarrizketatu askok aipatzen baitute ere laguntza handia jaso dutela euskaraz ikasteko.

Dena den, hemen zailtasunak zerrendatzen ari garenez aipatzen dugu. Adibide egokia eskaintzen digu, esaterako, neska honen kasuak: *mutila Goizuetakoa da eta bere amarengana joatean oso azkar hitz egiten zuen. Enion ezer ulertzen eta esaten nion “mantsoago” esateko, eta berak berriz: te he dicho que...*

## 8.- “Euskaldunberri”... betirako?

Ezin esan hau ere elkarrizketa gehienetan, baina batzuetan bai aipatzen da zailtasun moduan: euskara ikasi eta urte asko geroago oraindik “euskaldunberri” izaten jarraitzea, zeure burua euskaldunen artean bat gehiago bezala onartua ez ikustea. Elkarrizketatu batek galdetzen zuen: “... *noiz bukatzen da hori? zer da, bizitza guztirako izena?*”

Horren haritik, gauza bat omen da “euskalduntzat” euskaldunek nolabait onartzea, eta bestea “bertakotzat” onartzea. Kataluniatik etorritako elkarrizketatu honek horrela alderatzen du: *han katalana ikasten baduzu katalana zara, hemen askoz zailagoa da besteek zu “bertakotzat” hartzea.*

## 9.- Umeen ikasketa azkarra

Beren motibazioan zailtasun gisa deskribatzen dute gutxi batzuk umeen ikasteko “abiadura”. Guraso batzuk, ikasten eta hobetzen ari zirenak, umeek beraiek baino azkarrago ikasten zutela ikusteak ez die lagundu, beste une eta aspektu askotan seme-alabekin euskaraz egitea motibagarri izan zaien arren.

Eztabaidatzeko? Gaztelania! Zer dela eta...

Bikote gehienek elkarrizketan aipatzen da eztabaidetan gaztelaniaz gehiago egiteko joera hau..

Hiru arrazoi posible ikusten ditugu *haserrealdien edo eztabaiden hizkuntza aldatzea* beste egoeretakoa aldatzea baino zailagoa izan dadin:

**Berehalakotasuna:** haserrealdi batean denbora mugatua da, ez daukagu nahi adina denbora pentsatzeko. Horrek seguruenen, “azkarrena” zaigun formulara jotzea errazten du, beste egoera batzuetan baino gehiago.

**Ez gaude lasai:** haserre gaudenean, minduta gaudenean..., ziurrenik zailagoa da adierazi behar duguna “zein hizkuntzetan” esan pentsatzeko tarte(txo) hori izatea, beste hainbat egoeratan erabiltzen dugun “aldaketaren joera” hori (“txip” hori) gogoan izatea.

**Segurtasun beharra:** “gutxiago menperatzen” duen hizkuntza batean norbera “gutxiago dela” hautematea ohikoa dela dirudi. Hala den kasuetan, sarri baloratuko dugu “eztabaidan dugun posizioa” garrantzitsuagoa dela une horretan “euskaraz esatea” baino, eta horrek ere erraztu egingo du beste egoera batzuetan aldatu dugun hizkuntza ohitura haserrealdietan ezin aldatu izatea edo ez aldatu nahi izatea.

Arrazoi gehiago ere egongo dira, noski, eta gainera hiru hauen arteko konbinaketak ere sarri emango dira. Dena den, ohituraren aldetik azpimarratuko genukeena da hiru egoera horietan aukera gutxiago dugula hizkuntza hautatzeko, beste askotan baino. Eta “aldatzea hautatzen” ez dugun bakoitzean, lehengo ohiturak –eztabaidan gaztelania erabiltzeak- finkatzen jarraitzen duela. Eta aldiberean, ez dela hartzen “euskaraz eztabaidatzeko” ohiturarik.

Egoera hau luze mantendu daiteke horrela, bikote hauen esperientzietan ikusi dugunez.

### **3.5 Zein estrategia erabili dituzte?**

Ohitura aldaketa prozesu hauen zailtasunei aurre egiteko bikote hauek hainbat estrategia erabili dituzte. Ez gara beti kontziente erabiltzen ditugun estrategiez, eta beraz, bikote hauek erabilitako asko ere aipatu gabe joango ziren, baina jarraian laburbiltzen dira aipatutakoak:

#### **1.- Dosifikatu, errazetik zailera**

Bi kideak euskaldun zaharrak ez ziren kasuetan –aztertutako gehienak-, beti egon da ikasketa prozesu bat tartean, askotan erabiltzen joatearekin batera joan dena. Hala izan denean, euskarazko erabilpena dosifikatzen joatea askok aipatzen dute: errazenak egin zaizkien egoeretatik hasi dira, egoerarik errazenetan, zailegia zaiena momentuz gaztelaniaz eginez eta progresiboki gehitzen joanaz. Askotan prozesu mota hau “natural” bezala aipatzen dute.

#### **2.- Nekatutakoan edo agobiatutakoan gaztelania ere erabili**

Hau ere asko aipatzen da. Mila egoera suertatzen dira non espresio bat ez zaigun ateratzen, edo pentsatu beharrak nekatzen gaituen, edo nahi baino tentsuago gauden... bikote askotan deskribatzen da jarrera *malgu* eta aldiberean *konstante* moduko bat, horrela labur daitekeena: euskara gero eta gehiago erabiliko dugu, ahal dugun guztietarako, baina tartean behar dugun uneetan gaztelania erabiltzeari uko egin gabe.

Bikote batzuetan, kideek gaztelaniaz eta euskaraz gain, beste hizkuntzaren bat ere bazekiten, eta tartean erabili izan dute funtzio honekin une batzuetan: egoera arintzeko, adierazi nahi duzun zerbaiten matiza emateko gaztelaniara jo gabe...

Zenbait elkarrizketetan bidea errazteko estrategia gisa aipatzen da ere *norbere buruari akatsak egiteko baimena* ematearena. Alegia, euskaraz egin, baina zerbait gaizki esanez asko estutu gabe.

#### **3.- *Gaitasun estrategikoa*: non elikatua bilatu eta lorpenak baloratu**

##### **a) Non elikatua bilatu**

Bikote hauetako askok bere ohitura ingurune erdaldunean aldatu dute. Hala ere, horietako askok aipatzen dute urteekin beren euskarazko lagunen “sarea” osatzen joan direla, eta beraz euskaraz non egina badute lagunartean Bilbon edo Gasteizen. Ideia hau “non elikatua bilatu” bezala laburtu dugu, eta *Gaitasun Estrategikoa* esaten zaion horrekin lotura handia du: hau da, une bakoitzean hobetzeko behar dugunaz jabetzea, eta hori eskura izateko modua topatzea, prozesua bideragarri eginaz.

“Elikatze” hau inkontzienteki ere egiten da, baina azterturiko bikoteetan oso modu kontzientean ere egin izan dute. Adibidez: *gaztetan txangoak egiten genituenean, ni beti saiatzen nintzen “euskaldunen” kotxean joaten.*

## b) Lorpenak baloratu

Bikote hauen elkarrizketetan oso elementu garrantzitsua dugu hau. Orokorrean, *lorpenei begiratzen* jakin dutela esango genuke. Zailtasunak, askotan, aipatu ere ez dituzte egiten elkarrizketan, edo galdetuz gero, maiz “normaltzat” jotzen dituzte edo suposatutzat eman. Aldiz, beren kontakizunean, prozesuan izan dituzten lorpenak –progresiboki lortu duten ulermena edo adierazmena, familia euskalduna sortzea, lanean euskaraz aritzea...- baloratzen jakin dutela ikusten da, zailtasunei hainbeste erreparatu beharrean.

Esaterako, batek baino gehiago aipatzen du motibagarri izan zaion kontuen artean *gai zarela* ikustearena, *ikasten zoazela* ikustea, argi utziz prozesuan emandako pausuak baloratzen joan dela.

*Gaitasun estrategiko* honen bi elementuak ongi biltzen ditu ondorengo adibideak:

(Hernani2):

[Euskara ikasten ari zen garaian, harategian lanean ari zen, lankide euskaldun batekin. Berak zekiena euskaraz egiten zien bezeroei...]

- Zer jarriko dizut?
- (bezeroa) *Bi arraultze dozena.*
- Oso ongi. Hemen dituzu. Zerbait gehiago?
- (bezeroa) *Bai, jarri mesedez txerri-txuleta batzuk.*

[Baina berak artean txerri-txuletak zer ziren jakin ez; aldiz, bezeroari itzultzeko eskatu beharrean, berak...]

- Ongi, hori nire lankideak jarriko dizu
- [eta bera adi-asko, noski, lankideak zeri helduko...]

## 4.- Prozesuaren zaintza

Kasu honetan elkarrizketatuek ez dute hitz hau erabili (guk hautatu dugu), baina berak jasotzen du ondoen gure ustez bikote hauetan asko agertzen den aspektu bat. Aipatu dugu behin euskaraz hasitakoan ere erderarako joera izaten dela hainbat unetan. Edo erderazko espresioak egoten direla. Edo euskaraz ez dakien familiarteko batekin gaudela.

Horrelako mila egoeretan bikote hauetan azaltzen da nola bietako batek –edo biek- izan duten *prozesuaren zaintza* ikuspegi hori, “gainean egote” hori, zenbait kasutan esango genuke “egoskor” aritze hori, *behin eta berriz* euskarara bueltatzeko ariketa eginaz. Edota behin bikotearekin lagunartean euskaraz egiteko ohitura izanik, inguruan erdaldunak egonik ere bion arteko elkarrizketetan euskaraz jarraitze hori. Seme-alabekin ere beste hainbeste gertatu zaie gehienei: behin euskarazko harremana finkatu dutenean beraiekin, nahiz eta erdaldunak inguruan izan, haien artean euskaraz jarraitu dute.

Aspektu hau bikote gehienetan eman da modu batean edo bestean eta prozesuaren gakoetako bat bezala ageri zaigu. “Estilo” ezberdinekin agertzen dela esan genezake: kasu batzuetan argi dago kide batek jokaera oso kontzientea eta konstantea hartu zuela (adibidez: *hau horretan oso gogor jarri zen*), beste batzuetan, aldiz, modu malguagoan egin da (adibidez: *ez dugu oso estu hartu baina beti joan gara sartzen, gero eta gehiago*). Bada laguntza gisa “oroigarriak” erabili dituenik ere:

kontatzen da elkarrizketa batean ikastolan irakasle hasi baina lankideek joera handia zutela erderarako eta saiatu arren, maiz pasatzen zirela erderara. Bolada



batean “Txillardegí” izena eduki omen zuten orman idatzita, bat erderara pasatzen zenean besteren batek “txillardegí” esanez gogorarazi eta euskara bueltatzeko.

Zaintzaren puntu honekin amaitzeko beste ideia bat: hau aipatu den bikote gehienetan, mutila da gehienetan *zaindari* rol hau hartu duena. Aldiz, neska batek baino gehiago aipatzen ditu horrelako ideiak: *hau horretan fuerte jarri zen eta nik segi nion; niregatik bazan agian jarraituko genuen lehen bezala*. Inpresioa da, beraz, bide bati *eustearen* rol hori gizonetakoek errazago hartzeko joera bat dagoela.

#### 5.- Une batean *nahikoa da esan*

Bikote batzuetan –normalean lehendik euskarazko gaitasuna bazutenak- deskribatzen da une bat non bikoteak zirt edo zart egitea erabaki duen: *nahikoa da, hemendik aurrera euskaraz egingo dugu*.

Ez dira kasu asko baina horietan nabarmentzen da une eta erabaki horren garrantzia, hori egin ezean, beren hitzetan, urtetan gauzak berdin jarraituko baitzuten ziurrenik (beren lagun askorengan ikusi dute hori).

Bitxikeri moduan esan genezake, une batean aldatze hau, lehendik euskaldun ziren bikoteetan, kasu batean baino gehiago badaia batean izan dela, *broma* moduan euskaraz hasi, edo beren izaera adierazi nahian, eta ondoren hemen jarraitzea planteatu.

#### 6.- Bolada batez, ikasten, buru-belarri

Deskribatzen diren ikasketa prozesuetako beste estrategia bat bolada batean horretara buru-belarri jarri izana da. Elkarriketa askotan deskribatzen dira ikasketa-prozesuak bolada batean intentsoak izan direnak: barnetegiak, norberak liburuetatik...eta bada bolada batean sei ordu lan egin ondoren beste sei euskarazko klasean eman dituenik ere.

Esango genuke, bikote hauetako kide askok une batean lehentasuna eman diotela euskara ikasteari, eta bolada horretan modu intentsoan (eta beraz nahiko azkar) ikasi dutela.

#### 7.- Bat bestearen irakasle

Oso orokorra da hau ere. Bolada batean ez bada bestean, bikote hauetan ia guztietan bat bestearen “irakasle” izan da egunerokoan, zeregin hori, noski, bakoitzak bere moduan eginaz. Kasu guztietan, ordea, lortu dute ikaste-irakasle prozesu hori elkarren arteko eguneroko harremanean ongi txertatzea, batetik, eta bestetik “irakaste” hori, edo akatsak zuzentzea, neurrian egitea, zama bihurtzera heldu gabe.

#### 8.- Ikasi eta erabili, batera

Bi kideak hasieratik euskaldun zaharrak diren bikoteak alde batera utzita –horietan gaitasuna lehen unetik bazegoen- gainerakoetan nahiko estrategia orokorra da ondorengoa: *zekitena praktikatzen joan dira, eta praktikatze horrekin ikasi dute*.

Bikote hauetan ez da gertatu –ez dugu jaso, behintzat- kideetako bat X mailara iritsi arte gaztelaniaz jarraitu eta behin horretara iritsitakoan euskaraz hastea. Zekitena erabiltzen joan dira, eta modu horretan, nolabait “batera” eskuratzen joan dira, bai beraien artean euskaraz egiteko ohitura edo erosotasuna eta bai gaitasuna, gero eta zabalagoa.

#### 9.- Euskaraz dakitenei, euskaraz

Ezin dugu esan kasu guztietan hala denik, baina aztertutako bikoteetan askotan sortu dituzte euskarazko harremanak *beraiek* lehen urratsa emanik, hau da: inguruko euskaldunei euskaraz eginaz.

Noski, badira, euskaraz jakin arren egiten ez duten euskaldunak. Aztertutako bikoteetako kide askok euskaraz dakitenei euskaraz egin diete, eta kasu askotan gertatu zaiena da denborarekin bueltan etorri zaiel ahoari: beste askorekin erderaz egiten duen euskaldun horiek ere beraien euskaraz egiten dietela.

#### 10.- Beraien artean euskaraz; seme-alabekin, erabat euskaraz

Bikote hauetako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen lagundu du seme-alabak izateak. Askok ahalegin berezia egin dute ikasteko *seme-alabak jaiotzerako* gaitasun maila on bat izateko, eta beste askoren kasuan, berriz, bikoteko euskarazko harremana indartu egin du seme-alabak tartean izateak, normalean beraienekin *erabat* egin baitute guztiek euskaraz.

### **3.6 Lan-ildo interesgarriak aurrera begira**

Ikerketa honetan ateratako ondorioek *hizkuntza ohituren* inguruan edota Familia bidezko Hizkuntza Transmisioan lan-ildo berriak martxan jartzeko aukera eman dezakete.

Egitasmo bat definitzen denean, edota lan-ildo bat martxan jarri, helburu, epe eta beste mila aspektu zehaztu behar izaten dira. Zehaztasun horietatik urrun, baina ikerketa hau egitean gaian izan dugun esperientzia mugatutik, ondoren zerrendatzen dira zenbait ideia, behar bada aurrerago garapenen bat edo beste izan dezaketenak:

- Testimonio hauen sozializazioa:

Ikerketan aztertutako bikoteek beren hizkuntza ohitura aldatzeko eraman dituzten prozesuen zenbait testigantza, baliagarri edo lagungarri izan daiteke antzeko nahiak dituzten EAEko beste guraso batzuentzat.

Landa lanean jasotako materialetik abiatuta hainbat dibulgazio-material sor daitezke norabide honetan.

- Ekintza-ikerkuntza egitasmoak:

*Hizkuntza ohituren aldaketa* fenomenoari buruz hemen erabili eta garatu den oinarri teorikoa eta bikoteen prozesuetatik lortutako informazioa oinarri gisa erabili daitezke etorkizunean gaiaren inguruko ekintza-ikerkuntza egitasmoak definitu eta martxan jartzeko. Esate baterako, *Administrazio publikoan*, *Hezkuntza* arloan edota *lan munduko* erabilera planetan.

Besteak beste, gorago 3.5 atalaren 8. puntuan jasotako ondorioa ez da abiapuntu txarra aipatu arloetan martxan diren zenbait egitasmo *birpentsatzeko* edo hobetzeko.

Puntu zehatz bat aipatu berri badugu ere, uste dugu, orokorrean, 3. atalaren luze-zabalean azaltzen saiatu garen ondorio guztietatik hainbat hausnarketa berri etor daitezkeela ohitura aldaketaren gai hau sakonago ezagutzen eta bere emaitzak aplikatzen lagundu dezaketenak.

## 4 Aztertutako bikoteak eta bikoteen sailkapena

### 4.1 Aztertutako bikoteak

Ikerketa honetan EAEko 27 bikoteren Kasu Azterketa kualitatiboa egin da.

Bikote hauek beren *harreman-hizkuntzan ohituren aldaketa* bat ezagutu dute beren bizitzan zehar, eta aldaketa horien ondorioz bikotekideon arteko harreman-hizkuntza *gaztelania* izatetik *euskara* izatera pasa da.

Ikerketan 27 bikote hauen aldaketa-prozesuen Kasu Azterketa kualitatiboa egin da, bikote bakoitzari eginiko sakoneko elkarrizketetan oinarrituta.

Ondorengo taulan adierazten da bikote guzti hauen zerrenda, bakoitzaren herria eta elkarrizketa egin zitzaizen eguna:

Zenbakia	Bikote kodea (herria + zenbakia)	Elkarrizketa data (2008)
1-	Arrasate 1	06-02
2-	Arrasate 2	06-12
3-	Beasain 1 <sup>23</sup>	06-27
4-	Beasain 2	07-15
5-	Bermeo 1	05-30
6-	Bermeo 2 <sup>24</sup>	05-30
7-	Bilbo 1	06-11
8-	Bilbo 2 <sup>25</sup>	06-18
9-	Bilbo 3	06-12
10-	Donostia 1 <sup>26</sup>	06-30
11-	Donostia 2	06-15
12-	Donostia 3	07-22
13-	Gasteiz 1	07-01
14-	Gasteiz 2	07-01
15-	Gasteiz 3	07-18
16-	Hernani 1	07-09
17-	Hernani 2	07-14
18-	Lasarte-Oria 1	07-07
19-	Lasarte-Oria 2	07-07
20-	Laudio 1	05-23
21-	Laudio 2	05-23
22-	Mungia 1	07-10
23-	Mungia 2	07-19
24-	Tolosa 1	05-22
25-	Tolosa 2	05-29

<sup>23</sup> Grabazioaren hasieran “Beasaingo 2. bikotea” esaten da, baina lehenengoa da.

<sup>24</sup> Grabazioan lehenengoa esaten zaio, baina besteari ere bai. Fitxategien izenaren arabera jarri dira.

<sup>25</sup> Kronologi aldetik hau 3.a da, baina grabazioetan honi bigarrena eta 06-12koari 3.a esaten dienez elkarrizketatzaileak, hori mantendu da eta horrela sailkatu dira (fitxategien izenarekin bat dator).

<sup>26</sup> Datetan bigarrena bada ere, grabazioan lehenengoa da eta hori errespetatu da.

26-	Zarautz 1	07-09
27-	Zarautz 2	07-15

Herri hauen hautaketa egiteko irizpide soziolinguistikoak erabili dira, kontaktatu zitezkeen bikoteek EAEko egoera soziolinguistikoan aniztasun guztia bil zezaten, alde batetik. Bestetik, herri hauetako bakoitzean prozedura bat jarraitu da bikote hauekin kontaktatu ahal izateko. Prozedura horren arabera ez dira alde aurretik mugatu elkarrizketatuko ziren bikoteen euskararen ezagutza mailan dituzten ezaugarriak, eta adin mugarik ere ez da jarri.

Modu horretan bilatu da EAEn beren harreman-hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikote-tipologia ezberdin guztiak ikertu ahal izatea. *Jarraipen-bilera txostenean* ematen dira ikerketaren kontaktazio faseari buruzko xehetasun guztiak (ikus txosten honen 6. atala). Bertan ikus daiteke, proposatu ziren herrietako batzuetan ez dela lortu ikergai ziren bikoteekin kontaktzea. Zehazki, bost hauetan ez zen lortu: Balmaseda, Durango, Igorre, Irun eta Lekeitio.

Hautatutako gainerako zortzi udalerrietan, eta EAEko hiru hiriburuetan, berriz, proposatutako bikoteak kontaktatu eta aztertzea lortu da. Bai abiapuntuzko emaitza hau eta bai ondoren ezagutu den bikote hauen prozesuen aniztasuna kontuan izanik, kontaktazio eta elkarrizketa faseak oso ongi burutu ahal izan dira, ikerketak bildu-asmo zuen bikote-mota aniztasun osoa ongi bildu ahal izan baita aztertutako bikoteekin.

## 4.2 Bikoteen sailkapen-proposamen bat

Jarraian aurkezten da beren harremanean *hizkuntza ohituren aldaketa* gaztelaniatik euskarara egin duten bikoteen tipologia bat lehenik, eta azterturiko 27 bikoteen sailkapena ondoren. Tipologia hau kasuen ibilbide praktikoen azterketatik eraiki da, oinarri teorikoak ere kontuan izanik.

Erabili dugun aldaketa prozesuen ikuspegi teorikoan lau une bereizten ditugu. Lehenengoan, *abiapuntuzko egoeran*, suposatuzat ematen genuen teorikoki bikote hauetan *erderazko ohitura* finkatua zegoela. Aldiz, aztertutako bikoteetan ikusi dugu hori ez zela beti horrela.

“B” motako bikoteek, esaterako, elkar ezagutu zuenean, eta ondoren epe batean zehar, harremana gehienbat gaztelaniatik izan zen. Hala ere, kasu azterketa egin ahala ohartu gara ezin dela esan bikote hauetan *gaztelaniatzko ohitura finkatua* zegoenik. Bikote hauetan hasieratik egon da joera bat euskara erabiltzen hasteko, errazenetik hasi eta gero eta gehiago. Ohituraren aldaketaren ikuspegi teoriko batetik funtsezkoa da bereizketa hau, eta horretatik ezaugarri hori zuten bikoteak bereizi egin ditugu (esan bezala, B tipokoak dira hauek, *Eskuratu* deitu ditugunak).

Azalpen hori eginik, ondorengo taulan duzue eratu dugun bikoteen sailkapena, eta bertan bereizten diren hiru bikote motetako bakoitzaren *definizioa*, *laburpena* eta *izena*.

Ondoren, kasu bakoitzean adierazgarria den bikote-talde horretako aipamen batekin osatu da.

	DEFINIZIOA	LABURPENA	IZENA
A	Gaitasuna bazuten harremana hastean, baina gaztelaniaz egiten zuten. Harremanaren une batean, hainbat arrazoi tarteko, <b>aldatu egin zuten</b> jokaera, eta harremana euskaraz (ere) izaten hasi zen.	Bide eman diote berezko zutenari	<b><i>Berreskuratu</i></b>
B	Gaitasunik ez zuten hasieran (batek edo biek), baina harreman euskaldunerako gerorako nahia edo beharra (aldaketaren "hazia") bazuten. Eta <b>harremana euskalduntzeko bide hori egin egin dute.</b>	Beren nahia egi bihurtu dute egunez egun	<b><i>Eskuratu</i></b>
C	Gaitasunik ez zuten hasieran (batek edo biek), eta harreman euskaldunerako gerorako nahia edo beharra ere ez zuten orduan irudikatzen. "Gero" ordea, ikasten eta erabiltzen pausoak eman ahala, <b>nahi hori bere egiten eta ohitura aldatzen joan dira</b> (biak nahiko batera).	Nahiak forma hartu du beraiengan eta egi bihurtu dute	<b><i>Euskaratu</i></b>

### 4.3 Aztertutako bikote bakoitzaren sailkapena

znb	Bikotea	Bakoitzaren izena	Aldaketa: oso nabarmen? /erabat?	Aldaketaren "hazia" edo joera bazegoen harremana hastean?	Gaitasunez posible zen hasieran?	ABC tipologia
1	arrasate1	herri kontzientzia kolektibotik norbere etxera	bai	ez	bai	A
2	arrasate2	Konturutzen zara beharrezkoa dela	bai	ez	ez	C
3	beasain1	Gure artean euskaraz izan behar da.	ez	ez dago garbi esaterik	(bai)	(A-B) (euskara nagusitzeraz iritsi gabe)
4	beasain2	Berak oso garbi zeukan eta neretzat meritu handia du.	bai	ez	ez	C
5	bermeo1	Berezko jardun indartsua + nahia = aldatu eta erabat euskaraz	bai	ez	bai	A
6	bermeo2	Baten euskaldun izan beharra eta bestearen euskaldun izan nahia.	bai	bai	ez	B
7	bilbo1	Korear bat Bilbon... euskaldun kontzientziatu batekin.	ez (1)	ez dago garbi esaterik	ez	(B-C) (euskara nagusitze bidean?)
8	bilbo2	Ser vasco no es suficiente: izan euskaldun.	bai	ez	ez	C
9	bilbo3	Euskaldun izatea... kostatzen zaigun eta harrotasuna (plazerra) ematen digun zerbait.	bai	ez dago garbi esaterik (5)	ez	C
10	donostia1	Berezkoa eta ikasle kontzientziatu arrazionala (latinaren eskola)	bai	ez	ez	C
11	donostia2	Erraztasun gehiago eman behar ligukete euskara praktikatzeko.	ez	ez	ez	(C) (euskara nagusitzeraz iritsi gabe)
12	Donostia3	Euskara ikastea eta zerbait egitea lortu dute.	ez	ez dago garbi esaterik (5)	ez	(C) (euskara nagusitzeraz iritsi gabe)
13	gasteiz1	Beti izan dugu argi: euskara da erabiltzeko.	bai	bai	ez	B
14	gasteiz2	Lortzeko behar duzu urteak eta gogoa.	bai	ez dago garbi esaterik (5)	ez	C
15	gasteiz3	Gasteizen bizi arren gaztetatik garbi zeukaten bi euskaldunberri, egiten joan direnak.	bai	ez dago garbi esaterik (4)	ez	B
16	hernani1	Guk nahiko genuke euskaraz gehiago egin	ez	ez dago garbi esaterik	(bai)	(A-B) (euskara nagusitzeraz iritsi gabe)

17	hernani2	Hemengo hizkuntza ez jakitea ez da sartzen nire buruan	bai	bai	ez	B
18	Lasarte-Oria1	Momentu batian bizitzan lehentasuna euskarari, finkatu arte.	bai	ez	ez	C
19	lasarte-oria2	Egiten joan, asko behartu gabe	ez	ez dago garbi esaterik (4)	(bai)	(B-C) (euskara nagusitzera iritsi gabe)
20	Laudio1	Gazte garaian euskarak ez zuen balio ezertarako bes... gero aldatu da.	bai	ez	bai	A
21	laudio2	Euskaldun izan nahi eta egin	bai	bai	ez	B
22	mungia1	Batek etendako katea berreskuratu nahi, besteak berezkoa jarraitu.	bai	bai	ez	B
23	Mungia2	Biok dakigu euskaraz... zeattik ez dogu eitten euskaraz?	bai	ez	bai	A
24	tolosa1	Ingurune euskaldunean, ohitura erdaldunetik atera ziren bi euskaldun.	bai	ez	bai	A
25	tolosa2	Behin kontzientzia hartuta, erderaz egiteak ez zuen sentidorik.	bai	ez	(bai)	A
26	zarautz1	Garbi geneukan euskaldun giroa nahi genuela etxean	bai	bai	ez	B
27	zarautz2	Euskaldun eta katalana "natural" bana elkarrekin	ez (2)	bai	ez	(B) (euskara nagusitze bidean)

(1) Prozesuan; ezaugarrien arabera ez dago garbi zein bide hartuko duen

(2) Prozesuan, baina "osagaiak" kontuan izanik, "bai"rako tipologia

<b>ALDAKETA OSO NABARMEN/ERABAT?</b> <b>bai / ez irizpidea</b>	<b>ALDAKETARAKO "HAZIA" BAZEGOEN HASIERAN?</b> <b>bai / ez irizpidea</b>	<b>GAITASUNEZ POSIBLE ZEN?</b> <b>bai / ez irizpidea</b>
BAI: gaur egun bikoteko harremana, normalean euskaraz da (beti edo ia beti), eta lehen gaztelaniaz zen (beti edo ia beti).	BAI: harremanaren hasieratik, biek edo batek bere bizitza (eta tartean harremana bikotearekin) gerora begira euskaraz nahi zuela edo irudikatzen zuen. Euskaraz ez bazen... gaizki.	BAI: biok aitortutako gaitasunaren aldetik, "teorikoki" posible zen hasieran harremana euskaraz izatea.
EZ: bikoteko harremanean gaur egun elkarrizketa osoak gaztelaniaz ere izatea normala da (neurri handiagoan ala txikiagoan), edo euskarazko elkarrizketak, neurri batean, betidanik egon dira.	EZ: harremanaren hasieratik bazegoen euskararekiko neurri bateko nahi bat edo interes bat -handiagoa edo txikiagoa, biena edo batena gehienbat-, baina bikote bizitzan egunerokoa izatea ez zuten momentuan irudikatzen (... auskalo!).	EZ: biok aitortutako gaitasunaren aldetik, ez zen posible hasieran harremana euskaraz izatea.
	EZ DAGO GARBI ESATERIK: tarteko kasuak edota puntu horri buruz informazio nahikorik ez dutenak. (4) direnak: "bai"etik hurbilago. (5) direnak: "ez"etik hurbilago	(Bai): neurri batean posible zen, baina zailtasunekin.



## 5 Bikoteen elkarrizketen azterketa nola egin den

### 5.1 Oinarri teorikotik elkarrizketen hustuketara

Ikerketa honek helburu bikoitza izan du. Bere garaian, horrela definitu ziren helburuok ikerketaren Proiektu txostenean<sup>27</sup>:

- 1) Funtsezko kontzeptu batzuk eskuratzea hizkuntza ohituraren fenomenoak sakonki ulertzeko.
- 2) Ibilbide praktikoen sailkapen zentzuzko bat eskuratzea, esku hartze egitasmoetan erreferentzia gisa baliagarri suerta daitekeena.

Helburu horiek aintzat harturik, eta ikerketaren epe- eta dedikazio-mugak kontuan izanik, ikerketaren bilakaeran hainbat erabaki hartu dira. Izan ere, ikerketaren planteamendua anbizio handikoa izan da: zortzi hilabeteko epean eta baliabide mugatuarekin aipatu bi helburuak lortzea, alegia.

Helburu horietara ahalik eta gehien hurbiltzeko, ondorengo urrats nagusiak eman dira bikoteen elkarrizketen materiala aztertu ahal izateko:

#### 1) Fenomenoaren muina osatzea:

Hizkuntza ohituraren eta bere aldaketaren *fenomenoa azaltzeko kontzeptuen muina* osatzea izan da lehen urratsa, erreferentzia teorikoak eta hautatutako elkarrizketak erabilita.

- a) Teorikoki egokiena litzateke lehen “muin” hau osatzeko lehenik elkarrizketa guztiak azterzea. Horren ordean kasu honetan, hautu bat egin zen, elkarrizketatzailearen laguntzarekin. Honako hau galdetu zitzaion: *elkarrizketa guztiak gogoan izanik, zeintzuetan duzu inpresioa –edo sentsazioa- “hauek bai, hauek erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute ohitura gaztelaniatik euskarara”?*

Zergatik hautu hau? bikoteen elkarrizketa praktikoa erakutsi zigulako batzuek ez zituztela praktikan betetzen, teorikoki guk hautatuak genituen ezaugarriak. Honetaz, ikus txosten honen 3.2. ataleko 9. puntua.

Horrez gain, fenomenoaren lehen azalpena osatzeko elkarrizketa guztiak entzun beharrez, zortziko hautaketa bat entzuteak, aukera eman digu lehen oinarria lehenago eskuratzen, eta hori kontrastatu ahal izan digu ondoren gainerako elkarrizketekin. Lehen muina osatzeko elkarrizketa guztiak entzun izan bagenu berriz, hizkuntza ohituen aldaketa fenomenoari buruz lan honetan egiten den hausnarketa orokorra, alegia 3. atal osoa, askoz gehiago mugatu behar genuke.

- b) Horrela ba, gorago aipatu irizpide horiekin, zortzi bikoteren elkarrizketak hautatu ziren, eta horien azterketatik osatu da fenomenoaren azaltzeko

<sup>27</sup> Soziolinguistika Klusterra (2008)

muinaren lehen definizioa. *Muina* osatzeko hautatutako elkarrizketak hauek izan dira: Beasain<sup>2</sup>, Bilbo<sup>3</sup>, Gasteiz<sup>1</sup>, Lasarte-Oria<sup>1</sup>, Mungia<sup>2</sup>, Tolosa<sup>1</sup>, Tolosa<sup>2</sup> eta Zarautz<sup>1</sup>.

## 2) **Elkarrizketen azterketa egiteko eredia osatzea:**

Behin fenomenoaren muinaren abiapuntuzko definizioa osatuta, elkarrizketen edukia aztertzeko eredu bat osatu da. Eredu honetan, edukiak modu jakin batean antolatu dira, maila teorikoan eginiko abiapuntuzko definizioaren osagaien arabera (ikus 3. atala):

- a) emozioak (zirrarak-aldarteak)
- b) ohitura-aldaketa prozesuaren garapena: mugarriak, lorpenak eta zailtasunak
- c) bikoteen kategorizazioa eta galdera laburrak

Ereduaren hiru osagaiok hautatuta, oinarritzko taula bat definitu da lehenik, eta elkarrizketen *hustuketa xeheak* egin dira.

Taula hauetan, gorago aipaturiko hiru atal nagusiez gain, denbora erreferentzia zehatzak ere gehitu dira, eta bikoteek aipatutako gaiak ezezik, hauek adierazteko erabili duten moduari ere erreparatzen zaio (tauletan *Kontakizunaren estiloa eta deskribapena (eskala)* izeneko atala, besteak beste).

Eredu hau zazpi bikoteren elkarrizketen analisisa egiteko erabili da<sup>28</sup>, azterketak egin ahala eredia eta taula egokituz joanez. Azterketarako eredia eta taula finkatutzat eman dira zazpi bikoteren azterketak egin ondoren.

*Hustuketa xeheak* formatuan jaso dira aipatu zazpi bikoteen elkarrizketen taulak. Bikote hauenak, hain zuzen: Arrasate<sup>1</sup>, Bilbo<sup>1</sup>, Donostia<sup>1</sup>, Gasteiz<sup>3</sup>, Lasarte-Oria<sup>2</sup>, Tolosa<sup>1</sup> eta Zarautz<sup>2</sup>.

## 3) **Ibilbide praktikoaren sailkapena:**

Fenomenoaren azterketa egiteko muiin teorikoa eta elkarrizketen azterketarako eredia eta taula finkatuta izanik, elkarrizketa guztien azterketarekin hornitu da *ibilbide praktikoaren sailkapena*.

Elkarrizketa guztien taulak osatzeko, abiapuntuzko taulari (*Hustuketa xeheak*) egokitzapen batzuk egin zaizkio, gehienbat bikoteek gauzak adierazteko *moduari* dagozkion atalak kenduz. Aldaketa hau egiteko baloratu dena da bikote guztietan ez zegoela atal horiek hornitzeko kalitate bereko informaziorik elkarrizketetan, eta bestalde, berariaz lan sakon bat eskatzen duen gaia dela, ikerketa honen mugetan sartu ezin genuena.

Horrela, elkarrizketen *hustuketa bideratua* taula diseinatu genuen, funtsean aurrekoaren oso antzekoa baina zerbait sinplifikatua, eta eredu hau erabiliz egin da gainerako 20 elkarrizketen *hustuketa*. 20 kasu hauetan ere ez dira gehitu –lehen zazpian bezala– taularen ondoren ohar osagarri eta interpretazioak.

---

<sup>28</sup> Zazpi bikote hauek hautatzeko, a) puntua osatzeko erabilitako zortzi bikoteak EZ DIREN beste batzuk hautatu dira, *hustuketa aurre-baldintzaturik* egon ez zedin.

## 5.2 Elkarrizketa guztien taulak

Arrasate 1 (1)	Adina gaur egun: 51 eta 49 urte	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarreak...)</b>		
Aipatutako zirrararen-sentimendu-aldarreak		Nola azalduak? + oharrak
<p>testuingurua: Arrasate bertako bikotea, biak etxetik euskaldunzaharrak.</p> <p>6:50 (1) [Abertzale sentimendua aurretik aipatua], baina lantzen hasi (4. perfila), lanerako behar zuelako (udalean lan egiteko). [+ Arrasateko euskalduntzearen aldeko giroa]</p> <p>7:10 (2) "Umiak eta...".</p> <p>7:12 (3) Ikasten irakasle izateko, magisteritzako ikasketak euskaraz (euskara han bakarrik egiten zuen).</p> <p>12:50 (4) "Prozesua nik uste normala izan dala, hemen poliki-poliki..."</p> <p>13:34 (5) guk estuo eduki... gure gurasuek eduki daue gehiago konplexue (eztot ondo eitten...);</p> <p>14:48 (5) jaio zaniengatik, ez zauen dudarik, huraxe hartu biezana;</p> <p>16:15 (6) gure hizkuntza dalako, euskaldunak galarako, sentitzen galarako euskaldunak.</p> <p>17:28 (7) ta gero jarri ginen, ba gogor. Jaio zan julen, eta mentalizau.</p> <p>33:00 (8) euskara uzten badugu galtzen... independente izan gaitezke, baina...;</p>		<p>[Gehienbat nahiko "kanpoko" gauza bezela. Kontakizuna nahiko hizkera zuzenean, baina ematen diren arrazoi gehienak, orokorrak edo kanpokoak: "ixten bosu galtzen..." ta horrelakoak.]</p>

Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena			
Erabaki esplizitorik? Non? (min:seg)	Nolakoa (kontatu)?	Beren helburuekiko?	Sentsazioa bat dator?
18:05 (1) motibaziñua edo... azkenean, se akabo: hemendik aurrera euskaldunak ga eta euskaraz ein bihar dou, gure hizkuntza eztein galdu ;	[25:50 (1): gaur egungo harremana?? ... ba nik esango neuke... euskaraz dala, ez?	[Pozik daudela ematen du; beren helburua euskaraz egitia zan familian eta bizitzan, eta neurri handi batean lortu dute; ez da ikusten saiakera bat "tarteka bitara" egite hori aldatzeko edo]	[Bai]
32:15 (2) esan dogula, bueno ba nahiko da; baina ez gurie bakarrik, Arrasate mailan egon san hola, AED sortu san..., bestela jarraituko genuen;			
32:42 (3) gure etxian gogor jarri, hau jarri zan;			

Zailtasunak	
Zein? ; nola azalduak?	zein baliabide gaitzeko?
8:20 (1) eskolan ere, askotan pasatzen ziren erderara, ohitura erabat sartua;	(1) bazuten hitz bat jarria "txillardegia"; konturatzen zirenia esaten zuten "txillardegia" eta euskarara aldatu.
14:55 (2) kostau jakun ohitzia egunkaria irakurtzen;	(4) harreman gehienak udaletxian lortu dute euskaraz izatia
18:48 (3) hasten zea euskaraz... eta berehala erderara; hasarreak erderaz;	(5) Etxean, aldatzen direnia euskarara bueltatzeko, gogorrenak dira gizon bixak (aita eta seme zaharrena); aita da hor egoten dana
19:30 (4) perfila edo EGA atera eta nola joan sartzen lanean...	gogoratzen: pa-pa-pa-pa;
19:50 (5) hasarretu ezker, ondion, gure artean, igual erderaz; aldiz, seme-alabekin, hasarretu arren, euskaraz.	
21:45 (6) Fasilidadia gehiago erderaz, baino, mekaguen, saiatu;	

Gainditu gabekoak?		Kontakizunaren estiloa eta deskribapena (eskala)	Zein izen? (bikote tipo)
Zein dira?	Nola azalduak?		
Haserrealdietan erderara, fasilidade gehiago erderaz, beraien artean gehienbat euskaraz baina ez erabat...		[Lehen pertsonako aipamenak eta kontakizunak badaude, baina motiboetan eta zirraretan nahiko "kanpokoak" dira, orokorrak; gero momentu batean erabaki bai, baino azalpenak nahiko "ambientalak". Badaude hutsunetxo batzuk, baina orokorrean nahiko arrapaladan. Puntu klabeak ikutzean, biak "gainera" bezala datoz erantzutera, tarterik hartu gabe.]	Herri kontzientzia kolektibotik norbere etxera

GALDERA LABURRAK (Arrasate 1)	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai
2. ((Aldaketaren iraupena?))	----
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak biek.
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak euskaldun zaharrak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez zuzenean baina finkatu dute
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Erdi, Arrasate

[Oharrak – interpretazioak]

- Emozioak\_4: biek zuten abiapuntu emozionalean oinarrituta (zirrara) –etxea, kaleko mugimendua...- jokaera aldatzeko erabakia bera eta ondoren, “prozesua” “logiko” bezela ikusten eta deskribatzen dute, “gauza normala”
- Prozesua nolakoa\_1: "barne txekoarekin", beste gehienak azkarrago, diskurtsoa "eginago"

Arrasate2 (2)	Adina gaur egun: 52 eta 52	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak		
<p>Testuingurua: bata Santurtzikoa, bestea Laudiokoa; Arrasatera etorrita.</p> <p>(1) Hasi ginen parkean koadernotxo horiekin... izan da zerbait progresiboa... ikusten duzu, euskara zer da? hasten zara motibetan, non bizi zaren, Euskal Herrian... argitxo bat pizten zaizu. Beregandik etorri zitzaidan, halere (mutilaren aldetik).</p> <p>(2) Arrasatera etorrita aldatu zen, giroa ezberdina zen. Zeozer bageneukan eta hasi ginen ikasten.</p> <p>(3) Ikusten genuen beharrezkoa zela. Argi geneukan seme-alabak euskaldun peto-petoak izatea. Seme-alabena erabakiorra izan zen.</p> <p>(4) Lantegian hasi zen mugimendu bat, gero AED sortu zen, bazegoen giro bat... horrek ere lagundu zuen.</p> <p>(5) Gazteak ginen; gaur egun ni ez nintzateke gai izango hori berriz egiteko.</p> <p>(6) Gizona 8 urte ikastolako lehendakari; AEDn ere ibilia.</p> <p>(7) a) beharra ikustea; b) Arrasatera etortzea; c) seme-alabak.</p> <p>(8) Hasieran ez dakit zer ginen han gau eskolan (rebolucionario...); baina han nahiko artifiziala zen; baina hona etorri ta ikusi benetan hizkuntza hori existitzen zela...</p> <p>(9) Harro gaude; ikusten dugu seme-alabak ondo moldatzen dira. Gure helburua lortu dugu, eta beraiek ere baloratzen dute.</p> <p>(10) Ez dakidana da zergatik hasi ginen (...). Han Arenalean koaderno haiekin...</p> <p>(11) Pretensio handirik gabe hasi ginen; gero ja bai, EGA atera nahi nuen... Nik behar dut presio akademiko puntu bat (neska); berak aldiz, maila handiagoa du eta ez du beharrik.</p> <p>(12) Seme-alabekin batera joan gara; ez hizkuntza bakarrik, baita ere kultura.</p> <p>(13) Beren gurasoekin erdera; pixka bat arraro, baina arazo handirik ez.</p> <p>(14) Giro ezberdinak lanean: Ikerlan-ek lagundu du; Osakidetzak ez.</p> <p>(15) Hemen egotea asko izan da; berezia da leku hau. Hemen gogoia badaukazu nahiko erreza duzu erabiltzeko.</p>		

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) Prozesua oso autodidakta izan da.</p> <p>(2) Izan da prozesua, poliiki, baina gelditu gabe.</p> <p>(3) Prozesua polita izan da</p> <p>(4) Pausorik inportanteena da hitz egitea; hasten bazara hitz egiten... ya ez daukazu buelta. Ikasketa handirik ez dugu egin, baina saiatu gara gure artean hitz egiten eta jendearekin...</p> <p>(5) Ez genuen egin eseri eta erabaki, baina garbi geneukan ez zela egongo gaztelera gure seme-alabekin.</p> <p>(6) Dena izan da aurrerako prozesu bat. Joan gara hobetzen, eta gero eta gogo gehiago.</p> <p>(7) Guretzat garbi zen ikusi behar gintuztela erabiltzen kalean gure lagunekin; inoiz ez dugu egin gure artean erdaraz eta haiekin euskaraz.</p> <p>(8) Finkatuta dago ja familiaren hizkuntza euskara dela; orain relajatuago gaude.</p> <p>(9) Orain seme-alabek bronka erderaz harrapatzean ("joaten naiz ni eta..."). Ez dakigu zer gertatu den; igual, azkenean gure hizkuntza gaztelera da; lanean segitzen dugu borrokatzen, eta orain etxean relajatu bezala... Ematen du akuilu hori kendu zaigula (seme-alabena). Etxea orain gure txokotxa bezala relajatzeko.</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditzeko?
<p>(1) euskara bere egitea, giro hori izatea etxean.</p> <p>(2) umeek ikasi zutenean, ikusi zuten gainditzen zituela (azkarrago ikasten dute).</p> <p>(3) Arrasatekoen euskara, batzuk ez dute asko laguntzen.</p> <p>(4) Seme-alabekin, akatsak egiten dituzte, oraindik gaur egun ere.</p>	<p>(1) umeentzako zinta pila bat entzun, abestu; jai zirenerako zintak super landuta, ipuinak irakurri...</p> <p>(2) Euskaltegira [EGA taldean]</p> <p>(4) bai beraiek, bai semeek, jarraitu dute euskaraz.</p>

<b>Zein izen? (bikote tipo)</b>	Konturatzen zara beharrezkoa dela.
<b>GALDERA LABURRAK</b>	
<b>1.</b> Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai
<b>2.</b> ((Aldaketaren iraupena?))	Urte batzuk

3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Biek goi mailakoak (7)
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak euskaldun berriak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Gaia bai, nahiz eta egun batean ez erabaki.
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Bai, asko markatu dute
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Nahiko euskalduna (Arrasate).

Beasain1 (3)	Adina gaur egun: 61 eta 48	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak		
Testuingurua: neskak etxetik ez zekien; kaletik zerbait eta gero gau eskola. Mutilaren etxean, euskaldunak. (1) Testuingurua hala zan, koadrilan erderaz egiten zan taldean. Gu giro horretan ezagutu ginen. Kalean jende askok galdu zuen, frankismoko errepresioa eta gero; baserrikoek asko sufritu zuten... Kalean ez zen egiten. (2) Neskak amaren aldetik bazun... "neri gustatuko zitzaizten zuk euskaraz jakitea" (hona txikitzen etorri zen). Beti garbi eduki det euskara hitz egin behar nuela. (3) Nik ustet kontzientzia; gu abertzaleak gea. Denborakin konturatzen zea ze garrantzia duen eta hori, konbentzitu eta praktikan jarri. kontzientzia politikoa, kulturala... (4) Azkenean zu hemen bizi zea eta hemengo gauzak maite behar dituzu. (5) Ingurukoekin ulertzeko ere behar duzu, komunikatzeko.	(6) Gure aldetik atera da gehiago testuingurutik baino. (7) Eozein tokitan bezela, hizkuntza erabili, nahi eta maite izan behar du. Logikoa da. (8) Euskal herriaren nortasunaren bila gabiltza beti; karakterra nahi badugu, erabili behar da. (9) Beti komentatu dugu gure artean: "jo, euskaraz hitz egin behar dugu". (10) Ohitura txar hori mantentzen da oraindik ere: jakin eta ez erabili. (11) Hilobei edo ume bati gaztelaniaz egitea oso zaila egiten zait. (12) Erderaz gehiegi egiten degu, baina batzutan zaila da. (13) Lorpen bat bezela. Ikusten dezu zerbait egin behar dana, eta maila batean lortu dugu.	

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
(1) Umekin dena egiten de; gu dexente, baino bueno (2) Gure ohitura hemen tabernan da lehenengo hitza beti euskaraz. (3) Alabarekin beti izan da euskaraz, baina ordurako gure artean bazegoen. (4) Gaur egun bitara egiten dute. Normalean gehio da euskaraz. Gero segun zer gauza... [gehio gaztelaniaz ere aipatu...].

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gairitzeko?
(1) Askotan zuk lehen hitza egin arren, erdaldun batekin, ezin. (2) Gauza serioak hitz egiteko edo hasarretzean, agobio momentutan... gehio hitz egiten degu erderaz. (3) Ohiturak oso barrun sartuta egoten dira. (4) Pentsatu, irakurri, matematikak... errazago erderaz.	(1)

<b>Zein izen? (bikote tipo)</b>	Gure artean euskaraz izan behar da.
<b>GALDERA LABURRAK</b>	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Ez erabat

2. ((Aldaketaren iraupena?))	-----
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi batxilergoa (5) eta erdi-goi ikasketak (6)
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Batek etxetik, besteak ez.
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez bereziki
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Nahiko euskalduna

Beasain2 (4)	Adina gaur egun: 42 eta 41	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
<b>Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak</b>		
<p>Testuingurua: hasieran mutila ez zen gai. Neska baserrikoa (Ordizia), aita euskaraz, amak erderarako joera. Mutilak ama hizkuntza erdera, ikastolan maila bat eskuratu, gero erdal eskolara joan eta galdu.</p> <p>(1) Herrian joera zan erderaz egiteko; erderaz ikasi nahi zuten  (2) Erabaki pertsonala; Euskal herrin eta goierrin bizi naiz; hizkuntza menperatu bizi izateko eta euskalduna izateko.  (3) Mundu bat ireki zitzaienten, bestela askotan entzun eta mutu.  (4) Aldatzen hasita, nahiko taliban ibili nitzan, eta ikusten non honekin eta harekin gai nitzala eta, pozik.  (5) Nik ikusten nitun barnetegian jendea saiatzen, eta gero neskan koadrilan ikusten nitun denak erderaz...</p>	<p>(6) gure apustua zan; baditugu lagunak euskaraz egin dutenak umeekin baina beraiek erderaz; guk ez.  (7) (neska) nik asko errespetatzen ditut euskara jaso ez eta bide hori egin dutenak; oso ausarta ikusten det, eta apustu handia. Bea ikusten nuen benetan gogoaz zeukala.  (8) Umeek asko errazten dute. (mutilak) arrebarekin, asko erderaz; umeak daudenean, beraien artean ere gehiago.  (9) (mutila) gurasoek ez dute ikasi, baina beti izan dira aldekoak, beti esan ditugu anai-arreben artean egiteko...  (10) esan zianian "euskaraz egin behar degu" pentsatu nuen: nola egin behar degu? baina bere arrazoiak zituen eta nik errespetatu nitun.</p>	

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) Momentu batean esan non, fuera euskaraz ikasi behar det  (2) Bilakaera nahiko azkar izan da, nonbait txikitakoa gordeta neukan  (3) neskan koadrilan erderaz egiten zan, baina ni hasi nintzanetik, beti euskaraz  (4) Behin erabakita, ia denean erabiltzen hasi ziren, aparteko arazorik gabe. Gero ya batzuentzat harrizkoa ikuste abere aitarekin erderaz egiten zuela (pentsatu ere!).  (5) Barnetegirako biajean ya, euskaraz! han lau hilabete [!]. Neska bisitan joan eta han mutila saiatzen ikusita, aldatzen lagundu zion.  (6) Gaur egun familian erabat euskaraz, umeekin ere, noski.  (7) Haserrealdietan ere euskaraz, hasieratik.</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditzeko?
<p>(1) bikoteekin baino zailago aldatzea lagunekin  (2) prozesua  (3) klaseak (irakaskuntzan) euskaraz eman  (4) Erdera dao... nunhai!</p>	<p>(2) Neskak asko lagundu zidan  (3) aurretik prestatzen zituen lexikoa...  (2) Batzuk laguntzen dizue pillooo bat: hizkera garbia, ereduak bezala dira. Errepikatu egiten dute, modu sutilean, zuzendu gabe.</p>

Zein izen? (bikote tipo)	Berak oso garbi zeukan eta neretzat meritu handia du.	
<b>GALDERA LABURRAK</b>		
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai	
2. ((Aldaketaren iraupena?))	Laburra	
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Erdi-goi mailakoak (6) eta goi mailakoak (7)	
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Neska euskaldun zaharra, mutila ikastolan ikasia, galdua eta berreskuratua.	
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai, baten aldetik	
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, lehenago. Etorritakoan pisua izan dute.	
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Euskalduna (Beasain)	

Bermeo1 (5)	Adina gaur egun: 45 eta 50 urte	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak		
<p>[testuinguru flashak: elkarte erdaldun batean ezagutu bilbon; bat euskaldunberria baina txikitatik ondo zekiena (plentziakoa?); bestia bermeokua. Orain Bermeon bizi.]</p> <p>(1) testuinguru erdaldunean ezagutu eta harremana erderaz finkatu, baina euskararen beharra azaldu bai (beti horrekin), eta euskaldun gisa identifikatzea be bai, baina gero...</p> <p>(2) beti isen nas euskaldun, inguru oso euskalduna (bermeo), baina bilbon zail (norbere euskaria...; bestiarena arraro; bilboko euskararekiko ere distantzia, kritikak...)</p> <p>(3) atzera beirtuta orain... nik ezin dot oin beragaz erderaz egin, oso arraro; ezin ulertu ; harreman axalekua bai, baina estua izateko euskaraz izan behar du.</p> <p>(4) euskalkiduna saiatu ere batuaz ere hasieran, eta hori ere ez zan; freskotasunik ez; zuk egin zeure erara eta nik neurera, bilatuko dogu; niretzat oso gatxa zan.</p> <p>(5) nire burugogorkeriz aldatu: bera ezin da izan dan bezelakua erderaz, euskaraz izan behar du.</p> <p>(6) guk beti entzun dogu gure "euskerie" ez dala euskerie; konpleju puntu bat egon da hor; nik pentzau isen dot nire euskaraz ez dauela balixo; guk aldatu behar izan dou asko, bestiek ulertzeko, ta hor galdu eiteosu; "arraro" eiteuenak..., "giputzak".</p>		
<p>(7) nik zenbait gauza erderaz ezin dot esan.</p> <p>(8) (ezagutu, 93an, 1. fasea) gero utzi, tartean "euskaldunberria" beste elkarte batean, euskararen gaia landu; berriz elkartzian, euskaldun honegas... erderas! horrek indar handia eman ostan.</p> <p>(9) urrundutakoan bestearen jokaera ezberdin ikusi, ez dako bakarrik saldarraka [adarra jotzen??].</p> <p>(10) hasi ziren elkarte euskaldunen ordezkartza biltzen, eskatzen...</p> <p>(11) batuan hartzen dou informazio asko, baina entzuten dezunean hango hemengo euskara... haren doinua... zer da hau?, horrek du indarra.</p> <p>[(12), Ohitura_5, oso nabarmen adierazita inkongruentzia horrek nola mugitu arazi zituen]</p> <p>(13) kezkatuta egoten gera Bermeon erdera entzuten dogulako asko. Miñe ta dena eite ost pentzetie denbora batien erderaz ein doula (denbora galdua bezela).</p>		

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) hasieratik bazekiten biak euskaldun zirela; hitzen bat bai, baina harremana erderaz; erderaz errezagoa zen; testuingurua edo (behartzen zuen).</p> <p>(2) beraien artean euskaraz hasi, elkarte euskaraz egiten hasi eta... kurioso, kide batzuk beraiei euskaraz hasi; orain harraro nonork erderaz egitea; ni agertu ta euskaraz.</p> <p>(3) bi fase; lehenengua erderaz (beste mundu bat); hasarretu erderaz; berriz elkartu erderaz, baina ya esan zuten ezetz, euskaraz gehienbat ta gero erabat.</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditzeko?
(1) ez zen izan "benga orain euskaraz" eta listo; kostatu	(1) bide batetik hasi, probatu, harremanean adosten zoaz; bat batura hurbildu, bestea euskalkira.



(4) hasieran erderara zeozer jotzen zuten, baina ez, nahiko tinko hartu zuten. elkarrekin bizitzerako, ia euskeraz: 10 lagun bizitzen, 3 euskaldun, euren artean euskaraz.  
 (5) rollua zan erabakia, euskaraz eittia; ilogikoa da, holakuak esatea ta gero erderaz [euskara aldarrikatzen eta kartelak euskaraz jartzeko eskatzen...]. oraingue... ba hori da normalena.  
 (6) gaur egun euskera osoz, eztau zalantzarik (erdera txantxetarako). orain bestea erderaz entzun eta graziya emate osta. Orain bizitza osua euskaraz (lana...): lobak euskadunak die, katue euskalduna da...

soskun asko; probatu, selan ein...?	
-------------------------------------	--

<b>Zein izen? (bikote tipo)</b>	Berezko jardun indartsua + nahia = aldatu eta erabat euskaraz	
<b>GALDERA LABURRAK</b>		
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?		BAI
2. ((Aldaketaren iraupena?))		laburra (hilabeteak)
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?		Erdi-goi batek eta besteak goi mailakoak
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?		Bat eusk. zaharra eta bestea, etxetik ez baina txikitatik bai
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?		Bai
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?		ez
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)		erdalduna eta oso euskalduna konbinatuta (bilbo-bermeo)

Bermeo2 (6)	Adina gaur egun: 36 eta 38	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
<b>Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak</b>		
<p>Testuingurua: Uribe kostan ezagutu (Erromo), Astraburuara gero, umea izaterako Morgara bizitzera, gero Bermeora. Hasieran, neska AEKko irakasle, mutila ikasle. Gaur, mutila Bermeoko ikastolan irakasle, neska UEMAKo teknikari.</p> <p>(1) Harremana serixotu ahala, mina eiten ostan pentzietie nire amona eta gurasoei behartzia erderaz eiten (pixu handixa eduki dau).</p> <p>(2) UEMAn lanian, kontzientziaziñua gehiago, eta gero mutila ere. Ez ya euskara ikasle moduan, gero ya eskubide mailan be.</p> <p>(3) Mutila: nik beti izan det “una espina clavada”. Neuk be jarri dot helburu hori nire buruari.</p> <p>(4) Orain ja, gure artean erderaz egin behar ezker, deseroso: hori be pausu bat da, ya eroso ez hitzegitie.</p> <p>(5) (neska) nik pasa nezake bi-hiru aste erderaz egin gabe. Jende guztiyak euskaraz egiten didate; erderaz egiten dutenek ere, ni agertzean aldatzen dute.</p> <p>(6) agian ez da lar ona, baina umeei ez dotzagu ixten gaztelaraz egiten (dvd batzuk katalanez, frantsesez...). Igual sartze ostau kaña lar.</p>	<p>(7) Gure douna da umiek referente gisa eukitie euskara dala beren hizkuntza eta gero beste guztiak</p> <p>(8) Normalizacion linguistica gauza polit hori esaten dana ezta allauko inoiz bes.</p> <p>(9) Azkenien esaus zure bizitza bizitzen, sabis euskara erabiltzeko bultzatzen... selan hautsi hori barrutik euskara eittie? Kantzata nao. Desesperasiñue da.</p> <p>(10) Zortzi egon, bat erdalduna... danak erderas. Hortik... no paso!</p> <p>(11) Euskaltegian das danak puntuak aterateko, ez euskara ikasteko. Hemen daukat PL3, pero no voy a hablar mas en euskera. Hori holan da.</p> <p>(12) ni hasi nintzen euskalduna izan nahi nuelako. Nik hori argi ta garbi izan dut, erabaki nuen hori nahi nuela. Hortik aurrera guzti hori naturala izan da.</p> <p>(13) bizitza planteamenduak ere izan du zerikusia: baserri batean bizi gara, natura gustatzen zaigu, ez dugu hiri batean bizi nahi izan... guzti horrekin oso lotua egon da euskara.</p> <p>(14) ematen du dana berak ein dauela, baina gehien nik egin dot (mutila). Euskaldunak ere asko egin behar dau, erderara ez pasetako.</p>	

**Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena**  
 Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen

**Zailtasunak**  
 Zein? ; zein baliabide gainditzeko?

(1) Umea etortzerako, beraien arteko ohitura nahiko finkatua. Umeakaz euskaraz erabat (erderaz ezin).  
 (2) Orain ya enaiz orotzen erderaz egiten genuen garaia.  
 (3) Ohiturak aldatzen hasi gara inguru erdaldunean; gero mugitu ginen Bermeora.  
 (4) (neska) nire aldetik izan da erabaki garbi bat, oinarrituta gure osabak egiten zuena ebitatzea: ikustea amona erderaz eginarazten. Gainera badakit zein unetan hartu nuen erabaki hori: honek aurrera egiteko eta ni komodo egoteko harremana euskaraz izan bidea. (mutila) nik ez dut erabaki bezela hartu: bera ezagutu aurretik nik nuen euskaraz ikasteko gogua.

(1) Ikaste prozesua  
 (2) Kantza kantzata naonian, pentza ein biot ta eitten det erderaz. Gauza reflejak: que te caes.  
 (3) ikaste prozesua  
 (4) Urtetan egon naiz etortzen asteburutan, familiako elkarrizketak, tutik ulertu gabe

(1) Bera euskaraz, eta ni ahal nuen moduan, gero eta gehixau  
 (2) baina minimo-minimo da  
 (3) dakizun guztia euskaraz esan arren, iristen da momentu bat ez dakizula nola esan euskaraz. Hori erderaz esaten dozu.  
 (4) inpotentzia apur bat bai, eta amonarekin telefonoz izerdi litroak! Nik nahita, baina hori holan izan da.

Zein izen? (bikote tipo)	Baten euskaldun izan beharra eta besteren euskaldun izan nahia.	Euskaldunak euskaraz eitten dau.
<b>GALDERA LABURRAK</b>		
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai	
2. ((Aldaketaren iraupena?))	-----	
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi batxilergoa biek (5)	
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Neska euskaldun zaharrak, mutila ikasitakoa	
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai	
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, baina indartu dute	
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Hasieran erdalduna (Erromo), gero euskalduna (Bermeo)	

Bilbo1 (7)	Adina gaur egun: 33 eta 33	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? 2 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako zirrara-sentimendu-aldarteak		Nola azalduak? + oharrak
<p>Testuingurua: Neska Bilbora etorri (berez, 6 hilabeterako) eta handik 6 hilabetera ezagutu. Korean bisatua egiteko euskara hautatu (gaztelera ordeztu), Deustun euskara ikasten hasi (ofiziala behar du; bisatua lortzeko astean 15 ordu minimo). Hasieran, gehienbat gaztelaniaz (neska ya moldatzen zen). Mutila (eta gurasoak), Lekeitiarrak; mutilak Bilbon 10-15 urte. Neska berez Bilbon jaiola da, eta 9 urterekin Korea joan zen; hala ere ama-hizkuntza korearra kontsideratzen du, baina baita gaztelania ere.</p> <p>3:50 (1) (Bilbon geratzeko Bisadoa egiteko eskatzen zioten gaztelania ikastea) Ez neukan gogorik eta pentsatu nuen euskara ikastea. Banuen jakin-mina, Markorekin hitz egin eta ados. (4:20) Espainiar enbaxada Korean: lehen pertsona Bisa egiteko euskara eskatu duena.</p> <p>10:40 (2) (euskara ikasi, ikasteko, edo beraien arten erabiltzeko asmoarekin?) Hasieran ez neukan horrelako objektiboa, baina gero gogoa sartu zitzaidan, praktikatzeko.</p> <p>14:40 (3) Leku publiko – ofizialetara joandakoan, euskaraz egiten saiatzen naiz (batzutan).</p> <p>17:20 (4) (zer dela eta?) Praktikatzeko, hobetzeko. (hasieran asmorik ez zuen artean euskaraz egiteko?) Hasieran ez; (mutilak:) berak jakingo du, nire aldetik ez.</p> <p>18:20 (5) (neska) Hobetzeko gogoa daukat, pixka bat. 28:40 (errep). hobetzeko gogoa. 38:45 (errep). espero dut hobetzea nire euskara.</p> <p>28:50 (6) gogoa-asmoa dut PL1 edo 2 ateratzeko.</p>		<p>[ (4) 18:00, geldialdi handirik ez zergatiak azaltzeko]          [(5) 38:50, geldialdirik ez; neska hobetze asmoak aipatzez bukatu gabe, mutila sartzen da "orain ezin du hainbeste praktikatu" nahiz eta zailtasun horietaz ez galdetu.]</p>

<p>30:25 (7) Sorarekin egiten dut beste guztiekin egiten dudana: norbaitek euskara badaki, euskaraz hitz egiten diot. Sistema hori dut Bilbon, badakit nor den euskalduna eta euskara egin dezakedan guztietan, egiten dut. + neskak: niri euskaraz egiten badidate, nik euskaraz egiten dut.</p> <p>31:50 (8) Batzuetan (oso) rollo bat da.</p> <p>33:30 (9) (gaztelaniatik euskarara pasatzea) niretzat (mutila) gaztelaniarekin bezala izan zen; hasieran ez zekien (edo gutxi) eta ikasten joan.</p> <p>34:31 (10) (gehiago kostatu arren) nik gogoia daukat..., baina klaro, batzuetan ahazten hasi zaidala pentsatzen dut.</p> <p>34:45 (11) Berez, neska Bilbon jaioa; 9 urterekin joan zen Koreara.</p>	
---	--

Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena				Zailtasunak	
Erabaki esplizitoak / lorpenak. Non? (min:seg)	Nolakoa (kontatu)?	Beren helburuekiko?	Sentsazioa bat dator?	Zein? ; nola azalduak?	zein baliabide gainditzeko?
<p>4:00 (1) Neskak, Bisa egiteko, gaztelera eskatzen zioten; gogorik ez, euskararekin probatu nahi. (5:00) Ikasten hasi, 2003an.</p> <p>11:30 (2) Ezkondu arte (koreatik), gaztelaniaz, baina gero euskaraz hitz egiten hasi ginen.</p> <p>15:40 (3) Orain bi urte (2006) hasi ginen gure artean euskaraz hitz egiten egunero (3 urte gaztelaniaz hitz egiten).</p> <p>16:45 (4) gero erabaki zuen berak euskaraz hitz egitea; nik nahiago nuen, baina ez nion esan ikasteko. Bere kontua izan da.</p> <p>23:20 (5) berak erabaki zuen; praktikatzeko hitz egiten genuen eta esan zuen... euskaraz hitz egingo dugu. .../... Lehen zen ordu batzuk praktikatzea, eta gero... gehiago jarraitzea (oraindik ikasten ari da).</p> <p>24:50 (6) prozesuak jarraitu du; egunero jarraitu dugu</p> <p>25:50 (7) berak hizkuntza aldaketa, eta nik (mutilak) euskalki aldaketa (batuara). Nik erabaki nuen berak ikasteko nik batuaz egitea. [bizkaierara aldaketa]</p> <p>27:50 (8) lanetik, hitz egiten dute ere messenger bidez euskaraz.</p> <p>29:20 (9) Gaur egungo harremanean, normalean euskaraz egiten dugu, eta agian berak hitz batzuk gaztelaniaz.</p> <p>38:25 (10) Hau ez da bere lehenengo hizkuntza aldaketa; lehen aldaketa orokorra egin du bi bider.</p>		<p>[Prozesuaren une honetan igartzen zaie kezka puntu bat euskaraz "ez aurreratzearekin". Praktikatzeko aldetik lortu dute helburua, baina ez dute "gustura gaude" sentsazio bat transmititzen].</p>	<p>[Bai eta ez; zaila ikusten da harremana "nagusiki euskaraz" izatea, gaitasun horrekin.]</p>	<p>7:52 (1) Lehenengo egunetik denak euskaraz hasi ziren; ni han buda bezala; hasieran nahiko txarto. Oso zaila zen hastea.</p> <p>10:45 (2) Hasieran esaldiak bukatu ezin; orain ere ez dut ongi hitz egiten, baina saiatzea eta mantentzea inportantea da.</p> <p>13:20 (3) euskaraz, bakarrik Markorekin eta beste lagun batekin. (hortik aurrera, aurkitzeko zaila)</p> <p>15:00 (4) Bilbon, atzeritar bat euskaraz... geratzen dira... sorprendidos.</p> <p>19:30 (5) Hitz batzuk, esaera batzuk, ahazten ari naiz.</p> <p>21:40 (6) klase orduak... saturazioa.</p> <p>24:30 (7) Gauza garrantzitsu bat esateko, gaztelaniaz.</p> <p>25:00 (8) Oso nekatuta banago, azkenean ez dakit ze hizkuntzan hitz egin. [hitz egiten ari naizen??]</p> <p>31:50 (9) Batzuetan rollo bat da; nire buruan hizkuntza asko.</p> <p>33:30 (10) Niretzat (pixka bat) zailagoa da euskaraz hitz egitea; hemen jendu guztiak-gehienak</p>	<p>17:10 (3) laguntzen ibili naiz eta ibiltzen naiz.</p> <p>18:20 [* , ikasteko-praktikatzeo filosofia] atzeritarra naiz; meto la pata porque soy extranjera</p> <p>20:00 (5) ez badut gogoratzen, erderaz esaten dut.</p> <p>21:30 (6) nekatzen zenean, behar bazuen, gaztelaniaz azaldu</p> <p>29:55 (*) Mihiluze asko ikusten dute (dena ez ulertu arren).</p> <p>33:20 (9) niri (mutila) ere gertatzen zait: batzutan esaten diot erderaz esateko, aklaratzeko (zorutzen naiz).</p>

--	--	--	--

gaztelaniaz egiten du, eta horregatik nire euskara maila ez da hobetzen. Gaztelania hobetzen doa; euskararekin esfortzua egin behar du.	
---	--

Gainditu gabekoak?		Kontakizunaren estiloa eta deskribapena (eskala)	Zein izen? (bikote tipo)
Zein dira?	Nola azalduak?		
Gauza garrantzitsuak esateko, hitzak falta zaizkionean, nekatzen denean, gaztelaniara.		[zailtasunak 2: nik uste + kanpoko arrazoia] [Mutilaren azalpenak prozesuaren deskribapen bat dira, baina nahiko "kanpotik" egina: (neskaren) prozesua aztertuko balu bezala (kanpo begirale bat bezala). Neska lehen pertsonan gehiago aritzen da. Txkeorik ez dago apenas elkarrizketan (geldialdi batzuk, baina ziurrenik ez txkeo, hitz falta baizik). ]	Korear bat Bilbon... euskaldun kontzientziatu batekin.

GALDERA LABURRAK	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Neurri batean, ez erabat.
2. ((Aldaketaren iraupena?))	martxan
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak biek.
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Mutila euskadun zaharra, neska euskaldun berria (korearra).
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	bai, euskara egitearen aldetik (praktikatu), ez "harremanaren hizkuntza" zentzuan.
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	ez (ez dute eta gaia ez da aipatzen gerora begira ere).
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Erdalduna, Bilbo.

[Oharrak – interpretazioak]

- Emozioak\_7: elkarrizketan zehar aipatzen da euskaraz egitea "neskaren erabakia" izan dela, mutilak ez diola inoiz eskatu euskaraz ikasteko ("berak jakingo du" gure artean erabiltzea bere asmoa zen edo ez). Aldiz, puntu honetan hizkuntza-hautu oso kontziente eta jarrera argia duen hiztuna agertzen zaigu: *ahal dudan guztietan euskaraz*. Adierazpena oso garbia da. Ordura arte elkarrizketan esplizitatzen ez den arren, kontatzeko moduagatik, puntu honek mutilaren hizkuntza-kontzientzia argia adierazten du eta beraien artean euskaraz egiteari begira pisu handikoa dirudi. Neskak, esaterako, aipatzen du horren jarraian: *nik, besteak euskaraz egiteko pausoa ematen ez badu, nik gaztelaniaz egiten dut*. Beraz pentsatzekoa da neskaren erabakian mutilaren kontzientziak eta jokaerak pisu nabarmena izan duela.

- Emozioak\_8: neskaren kasuan ez da sumatzen, adierazteko moduan, aldaketa eta prozesua gidatuko duen zirraren presentzia (ez da esplizitatzen). Esanguratsua da, esaterako, elkarriketatzaileak “zeozer gehiago esan nahi duzue prozesuari buruz?” orokorrean galdetuta: “batzuetan, rollo bat da” (zailtasuna); ondoren sentimendu honi azalpen [logikoa] gehitzen zaio: “hizkuntza asko...”. Beste elkarriketen aldean, deigarria da zailtasunak deskribatzen haste hau (ikasten ari denaren aldetik). Ikasi + aldatu duten gehienek zailtasun horiek “normaltzat” dituzte, edo batzuetan aipatu ere ez dituzte egiten (suposatuzat eman, logikotzat).
- Emozioak\_9: “bat edo beste” hautatzea maila –edo zailtasun- bereko kontu bat balitz bezala agertzen du mutilak, ez da euskaraz egiteko nahia “nahi” terminotan adierazten (soilik emozioa\_7-n, jokaera mailan). Aldiz, neskak gehitzen dio jarraian ezberdintasuna: berarentzat hautu zailagoa da.
- Emozioak\_11: Koreara 9 urterekin joan zen, gaztelania jakinda. Pentsatzekoa da, gero bueltan euskara eta gaztelaniari ekitean desberdintasun nabarmena egongo zela berarentzat. Kurioso da, aipatzen dela “berak handik etortzean hitzik ez zekiela gaztelaniaz”, baina gero, ohitura aldaketaz hitz egitean (38:30) nabarmentzen da lehen urtetan gaztelania zela bere hizkuntzetako bat.
- Emozioak\_5: deigarria da neskak euskarari buruz gehienbat gaitasun terminoetan hitz egiten duela, ez erabilera terminoetan. 38:45-n ere, “espero dut hobetzea nire euskara”, ez du esaten espero dut gehiago erabiltzea, edo honetan edo hartan erabiltzea.

Elkarriketa amaieran ere (39:30) rol banaketa mantentzen da: mutilak normaltzat jotzen du orain ez aurreratzea klasera joaten ez delako, baina animatzen saiatzen da (“mantentzen du maila”; “ez izutu”).

Bilbo2 (8)	Adina gaur egun: 44 eta 42	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
<b>Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak</b>		
<p>Testuingurua: aspalditik ezagunak; giro erdaldun petoa, etorkin familiak.</p> <p>(1) 14-18 urte, Kobetamendi elkartearen, etortzen zen irakasle bat eta joaten ziren zerbait egitera.</p> <p>(2) “Garai onak ziren ikasteko”, 18 urterekin sartu ziren; AEKKumeak dira; gau-eskola sortzen aritu ziren.</p> <p>(3) Gogo handia genuen ikasteko eta erabiltzeko. Genekiena erabiltzen saiatzen ginen kuadrilan. Bikotean ere.</p> <p>(4) Bikotea inguruko giroan kokatua; eragile nagusia: kontzientzia politikoa; ideologia, herri baten izaera; barneratu eta sakondu herri bat zer den; “ser vasco no es suficiente: izan euskaldun”. Gabezia hori beti izan dugu Bilbo inguruan.</p> <p>(5) Hizkuntza alde batetik eta ideologia bestetik, bata bestea elikatzen du.</p> <p>(6) Nire alabari ezin diot (Zamoran) zu aurrean zaudelako gaztelaniaz egin; eta gainera ez dut nahi.</p> <p>(7) Beste umeek galdetzen diote gure seme-alabei, “tu por qué hablas en euskera?” oso gogorra egiten zait hori.</p> <p>(8) Gure erabakia izan da, baina etengabeko borroka da. Desgaste eta zama handia da. Seme-alabak Santutxuko Karmelo ikastolara eraman ditugu...</p> <p>(9) Finkatzeko, areagotzeko, indartzeko, seme-alabek eragin dute.</p>	<p>(10) Euskara bera izan da kasu askotan hasarretzeko motibo: zergatik ez duzu euskaraz eskatu hemen?</p> <p>(11) Guk ez dugu etxekoa izan, beraz, seme-alabekin erabiltzeko dena ikasi behar: umeen kanta ikasi (cd, ipuin...), berez ez daukazun hori eskuratzeko: erreferentzia nagusiak, irratia... ia-ia eraiki behar izan dugu.</p> <p>(12) Lehen semearekin hizkuntza zen lehentasunetako bat. Arreta berezi bat jarri zuten orduan horretan: nik egin dudana alferrik ez galtzeko... baina gero, bakoitzak egin behar du berea.</p> <p>(13) Hauek [seme-alabak] ez dute bizi izan guk bizitu izan duguna (giroa...). Beraiek euskaragatik markatuak dira auzoan.</p> <p>(14) “Komisario-linguistikoa”ren papera lehen nik (mutila) izan dut, eta gaur egun ere badut: bukatzen dut semeari bronka botatzen. Berarentzat ez da ezer pasatzen aldatzeagatik. Komisarioarena txarto daramat.</p> <p>(15) Kontraesan sentsazioa: zure hautua da (kriston ahalegina egin duzu) baina ikusten duzu segun nola eraman gorrotora iritsi zaitezkeela beraien ikuspegitik.</p> <p>(16) Hasi zirenean ez zuten pentsatzen ez seme-alabetan, ez familian. Inportanteena da ideologia: nor zaren, non zauden, zer den herri bat, selan ikusten duzun bizitza... Beste guztia bera dator; “hizkuntza-ideologia” (“nik nahiko nuke ezagutu ideologiarik gabeko euskaldun bat”).</p>	

### Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena

Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen

- (1) 80. hamarkadan euskaltegietan hasi biak eta gero pixkanaka kuadrilan hasi.
- (2) Umeak badira bide luze horretan euskarazko ohitura finkatzeko parte bat.
- (3) Lanean zer egiten duzun alde handia dago, asko elikatzen du.
- (4) Hasieran zorrotzago, ardua gehiago ("hitz bat ere!"); bigarrenean izan da naturalago, baina baita ere malguago.
- (5) Kuadrilako 10-12 lagun ibili ginen, oso orokorra zen; gau-eskolako irakasle ere kuadrilakoak izan ziren.
- (6) Gaur egun gure bizitzan bi hizkuntza daude; harremana nagusiki euskaraz da, baina pentsamenduak, asko erderaz; irakurri, gustorago erdaraz. "Elebidun orekatua": egin dezakegu ia gauza guztiak bai euskaraz eta bai erderaz. Beti-beti egin behar duzu indar bat euskaraz jarraitzeko.
- (7) Eskolan elkar ezagutu; 20 urtera arte erabat gaztelaniaz; 20-24, euskara sartzen; hortik aurrera euskara beti tartean.

### Zailtasunak

Zein? ;	zein baliabide gairitzeko?
---------	----------------------------

- |   |   |
|---|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>(1) Gure ingurunean euskalduna izatea oso zaila da; behin eta berriz.</li> <li>(2) Umekin euskaraz egiten dugu hemen, eta Zamoran.</li> <li>(3) Badaude momentu flojoagoak, pasionalagoak... jotzen duzu gehiago erderara.</li> <li>(4) Estres mailaren arabera; lasaiago baldin banago, errazago egiten dut.</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>(4) (neska) behar izan dudanean pasa izan naiz gaztelaniara. Gu ibili izan gara "saiatu-huts egin" bidean. Mutila konstanteagoa izan da horretan.</li> </ol> |
|---|---|

### Zein izen? (bikote tipo)

Ser vasco no es suficiente: izan euskaldun.

#### GALDERA LABURRAK

1. Erabat -edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai (ez erabat)
2. ((Aldaketaren iraupena?))	2-3 urte
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Erdi goi mailakoak (6) eta Goi batxilergoa (4)
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak ikasitakoak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, baina gero indartu dute
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Oso erdalduna, bai auzoa, bai familia

Bilbo3 (9)	Adina gaur egun: 51 eta 51	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
------------	----------------------------	--

### emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)

#### Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak

Testuingurua: mutila Ulibarrikoa, etxean kontzientzia jasotakoa (hizkuntza ez); neska Barakaldokoa, gaztetan ikasitakoa.

- (1) Neskak euskara ikasi, hizkuntzagatik eta badaezpada lanerako ere.
- (2) Kontzientziagatik batez ere aldatu genuen.
- (3) Mutilak gaztetan zerbait ikasi zuen, aitarekin batera, 10-12 (aitak 52 urte); neska ezagutzerako bazekien zerbait. Ingurune gehienbat erdalduna, baina erreferentzi kultural batzuek bai. Aitarenean aldetik kontzientzia eta euskaltzaletasuna bai.
- (4) 19-20 urte, mutilak ikasi, Ulibarri auzoan, kontzientzia politikoagatik batez ere.
- (5) Mutilaren eraginagatik batez ere; bere indarrarekin hasi ginen iraultzen, aldatzen. Nik lanean ere ikusten nuen beharra. Gure adineko gehienak bezala: euskaltzaletasuna eta kontzientzia politikoa; frankismoaren amaiera, euskara ikasteak bazuen bere zama politikoa. Gure iraultza txikiaren motibo nagusia kontzientzia politikoa izan zen. Neskak ere bazuen bere gogoia, bere kontzientzia; bestela ezinezkoa da;
- (6) Euskarari eusteko beti esfortzu bat egin behar da; ez da gauza naturala.
- (7) Kontzientzia pertsonala: non kokatzen zaren zu bizitzan. Familia kanpoan dut (neska); haiekiko non naiz: euskalduna naiz, basca... zergatik gure artean euskaraz egin... Egoera horiek behartzen zaituzte kokatzera.

- (8) Neska ikasten hasi zen ere kontzientziagatik, ikusten duzu zerbait gertatzen dela hizkuntza horrekin; geroago kontzientzia hari hori lotu zen nortasun arazoarekin: nola kokatu familian eta gure harremanean nola jokatu.
- (9) Kanpoko jende askoren aurrean, guk euskaraz jarraitzen dugu, mintzatzen gara, horretan borrokalaria gara, mantentzen gara, besteak mintzen saiatu gabe. Badugu horretan euskaldun izatearen harrotasun bat; guk pentsatua eta erabakia da; guk bizitzaren aurrean hartu dugun pausu bat izan da. Kontzientziarik gabe zaila ikusten dugu etorkizuna.
- (10) gaur egun naturaltasun handiz bizi gara euskararekin. Bilbon bizitzeak ez du ezinezkoa egiten euskaraz bizitzea, baina baldintzatzen du.
- (11) txikitako lagunekin topatuta, nahiz eta beraiek euskaldunduta egon, oso zaila da harremana aldatzea; beraiek ez dira ziur sentitzen...
- (12) Eguneroko erabaki hori da kostatzen zaigun zerbait eta plazer handia (harrotasuna) ematen dizun zerbait.

### Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena

Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen

- (1) Ezagutu eta denbora gutxira (neska) euskaltegian hasi zen
- (2) Erabaki bat hartu genuen, kontzientziagatik batez ere.
- (3) Harremana hasieran erabat erderaz. Neska ikasten hastean mutila lagunduz, pasa ziren elebitasun desorekatu batera, hortik elebitasun orekatu batera eta gero ya erabat euskaraz (esfortzuekin) eta azkenean euskaraz, ya oso esfortzu gutxirekin.
- (4) Prozesu luzea da; kontzientzia politikorik gabe ez da egiten.
- (5) Apurka-apurkako prozesua izan zen. Konbibentzia arazoak dira, elkarri moldatu, egokitu eta ohitu behar: gauzak finkatu arte. Hizkuntza aldetik, are gehiago, erdararen eragin handia dagoelako. Erabaki irmoa genuen, baina etengabe konfirmatu behar da; erabakia egunero hartzen (berritzen) da. Joan gara piskanaka euskararen esparrua handitzen. Gaur egun eztabaidatu ere gehienbat euskaraz.
- (6) Elkarrekin bakarrik gaudenean, gaur egun, esparru guztietan praktikan euskaraz. Jende gehiagorekin ari garenean, kasuaren arabera, aldatzen da.
- (7) Erabaki irmo bat gabe zaila da; esaten baduzu: "proba egingo dugu, eta ikusiko dugu..." oso zaila da; erdararen pisua handia da.
- (8) Baikortasunez ikusten genuen prozesua, bagenekien (frantsesaren esperientziatik) hizkuntzak ikasi egiten direla jardunez gero. Atsegina izango zela pentsatzen genuen (eta izan da).

### Zailtasunak

Zein? ;	zein baliabide gairatzeko?
(1) Ingurune erdalduna gehienbat	(1) Denborarekin baduzu ezagun talde bat euskaraz mugitzen dena. Bilboko alde zaharrean nabaritu da ezagutza-erabilera altuagoa azken urteetan.
(2) Euskara harremanean sartzen joatea	(2) Nekatzen baginen erdarara jotzen genuen, lasaitzeko eta hori.
<p>Testuingurua: neska, eskolara joan arte ez zekien erderaz; Orozkon, baserrian bizi. Mutila ere Orozkokoa, baserrikoa ere; erderaz berandu ikasi. Lehen alaba izan arte Orozkon bizi, gero Laudiora.</p> <p>(1) (neska) Eskolara joandakoan enekien erderaz: gaizki pasa eta gurasoek erabaki zuten etxean guri erderaz egitea, hobetzeko. Klase partikularretara herrira (Orozkoa); herrian gehienbat erdera: gaizki pasa, sentitzen ginen bigarren mailakoak; eta ahalegintzen nintzen erderaz egiten. Nahiko gogorra izan zan. Ez badozu ikasten erdera, ez dozu egiten jaunartzea; zelako paloa.</p> <p>(2) (mutila) 12 urte inguruan hasi nintzen erderaz moldatzen.</p> <p>(3) Elkar ezagutu eskolan; auzo berekoak (Orozkon).</p> <p>(4) Gure gazte garaian zan: euskaraz ez du balio ezertarako bes. Erdereagaz zoaz edozein lekutara. Erdara izan zan behartuta. Ordura arte zan beste bizimodu bat: gurdia, idiak... etorri zan industria, etorri zan kanpoko jendea... eta azkenean ikasi egin behar, ez zeukan beste erremediorik.</p> <p>(5) Gu euskara gehiago egiten gure artean eta ikusten zendun orokorrean ere euskara gehiago baloratzen zala. Inguruan baloratuago ikusteak lagundu zuen.</p> <p>(6) Gero baloratzea zurea ere bai: ni ez naiz joan inora, ni bertakoa naiz... nireak ez al du balio? Ikusten nuenean telebistan euskaraz hasi zirela: ni horkoa naiz, nik ere lagundu bihotzat horri. Horrek emoten dau itzala.</p>	<p>(7) Gero ja Laudiora etorri eta entzun du erdera aaaasssko,</p> <p>(8) nik banekien herrian nogas ein behar neban euskaraz eta nogas erderaz. Gaur egun ere badakizu norekin bai, norekin ez, noiz bai, noiz ez.</p> <p>(9) (neska) joaten nintzen medikura amonarekin, berak esaten zidan zer zeukan euskaraz, eta nik itzultzen nion erderara medikuari. // auzoan bazenuen denetik, nahi izanez gero, herrira (Orozkoa) jeitsi beharrik ez. ... medikura bakarrik!</p> <p>(10) (mutila) amona laudiokoa zen, baserrira ezkondu zen orain 100 urte; orduan laudion euskaraz zan.</p> <p>(11) Erderak maila ematen dizu... baina bihotzean baduzu zerbait... ez dozula galdu behar.</p> <p>(12) Euskaldun berriek asko kostaten da berbeitia euskaraz. Gipuzkoara zoaz, eta hasieran iruditzen zaizu ez duzula ezer ulertzen. Gero gauerako... bueno, ulertzen dozu.</p> <p>(13) Jai-giroa eta beti izaten zan erderaz. Soinua izaten bazan, euskaraz ez zan egoten ezer (dantza...): giro harrek ere bultzatu gintuen erderara.</p> <p>(14) Asko aldatu da: orain Bilbora erosketak egiten joan eta ikusten duzu edozein dendetan dakiela euskaraz: ze poza! zenbat aldatu da hau. Laudion ere asko aldatu da. Lehen zan erdera bakarrik, erdaldun-erdalduna. Aldaketa, bueno-bueno...!</p>	

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) Soldaduska garaian, telefonoz egiten genuen erderaz. Zan gauza bat... kategoria gehiagokoa behar bada.</p> <p>(2) Beraien artean erdera asko, 10 bat urtean [??] harremanaren zati handi bat erderaz (euskaraz ere bai). Auzoan baziren, agian euskaraz, bestela erderaz [??].</p> <p>(3) Alaba jai aurretik, zeozer ja euskaraz. Orduetik aurrera, dena.</p> <p>(4) Aldatzea ez zen kostoso izan; euskara eiten deu eta euskara eiten deu; gure barik, dinamika horretan. Euskara ez dogu galdu momentu inoiz bes.</p> <p>(5) Etxean ez degu gaur egun gure artean erderaz ia batere egiten. Agian gai batzuei buruz bai, baina normalean ez.</p> <p>(6) Papeleoak eta idatzi, erderaz. Euskaraz irakurtzeko arazoak, alfabetatu gabe: idatzi eta irakurri, inoiz ez degu ikasi; derrigorrez. Guk ahoz ikasi dugu dena. Hasieran telebistako euskara ia ere ulertzen; orain askoz gehiago.</p> <p>(7) Gure artean biok bagaude, euskaraz. Baldin bagaude koinatarekin edo (erdalduna), orduan erderaz (eskaten digute ere aldatzeko). Egoerak ez bagaitu bultzatzen, guk euskaraz egiten dogu.</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditzeko?
(1)	(1)

Zein izen? (bikote tipo)	Gazte garaian euskarak ez zuen balio ezertarako bes... gero aldatu da.	
<b>GALDERA LABURRAK</b>		
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai (hasieran ere erabat erderaz ez)	
2. ((Aldaketaren iraupena?))	...	
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Oinarrizko Batxilergoa (4) eta Goi batxilergoa (5)	
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	euskaldun zaharrak biak	
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	ez (seguruenik) [?, ez da aipatzen]	
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, baina finkatzeko pisua	
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Kontrastea: Laudion, baina biak baserrikoak	

Audio2 (21)	Adina gaur egun: 48 eta 42	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak		
<p>Testuingurua: neska familiaz erdalduna, mutila ziurrenik ere (?), baina gaztetan euskaldundu; betidanik oso argi izan du eta bien artean ere “fisurarik gabeko” prozesu bat deskribatzen da, Laudion izan arren.</p> <p>(1) (neska) euskara ikasten hasi, irakasle izateko behar delako</p> <p>(2) (mutila) baneukan oso garbi planteatua euskalduna izan nahi nuela; nik euskaraz bizi nahi nuen</p> <p>[(3) naturala izan zen; euskaldunak garelako; sumatzen da garbi “euskaldun izan nahi eta sentitze” bat]</p> <p>(4) garaiko giroak bestelako motibazio batera bultzatzen zintuen; gaur egun “salbatuta dago”. [seguruenik kontzientzia maila altua (ez da garbi adierazten): “nahiko giro bereziak ziren”; UEUko hizkuntzalaritza arduradun... Txillardeg...]</p> <p>[(5) ulertzen ez dudana fenomeno bat: zaila egiten zaio ulertzea 15 urteko alaben giroan nolatan egiten duten gaztelaniaz]</p> <p>(6) beraien gurasoak, euskaraz ez jakin arren, bai beraietaz eta bai billobetaz, harro</p>	<p>[(7) “edukazio falta” erdaldunak du, kultura oso batekiko, ez euskaraz egiten duenak; oso jarrera garbia azaltzen du, baina ez dira azaleratzen hori definitu zuten jatorrizko emozioak]</p> <p>(8) aberasgarria izan da, oso harro daude (emozionatuta): familia euskadun bat sortu dugu.</p> <p>[(9) lortu dugu, esfortzu berezirik egin gabe... interpreta daiteke oso kontzientzia eta nahi sendoa egon dela, baina suposatuz geratzen da hemen, eta jokaera ondorioz “natural” gisa deskribatzen da]</p> <p>(10) hautua ez zen seme-alabei begira egin, aurretik egin zuten.</p> <p>[11 ez da deskribatzen gizonaren ikaste prozesua, baina pentsa daiteke etxetik ez zuela ikasi; sumatzen dena da ja gaztetatik oso kontzientzia definitua zuela hizkuntza kontuan]</p>	

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) ez dute egin “hemendik aurrera euskaraz” planteatu: berez etorri da; ez dugu gure burua horretara behartu.</p> <p>(2) 17 urtetik 22ra, joan ziren poliki poliki aldaketa egiten. Orain ez dira gogoratzen erderaz hitz egiten zuten garaiaz.</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditzeko?
<p>(1) Hitz egitera ausartu arte, normalean (neska) bigarren planoan</p> <p>[(2) sumatzen da oso jarrera argia izan dutela hautuan; beste gazteek bere lagunak]</p>	<p>(1) Bikotearekin landu euskaltegian ikasitakoa, praktikatu.</p> <p>(2) (Ohitura_2) irteerak</p>

(3) (neska) lehengusinarekin ohitura aldatu du; ez galdetu zergatik  
 (4) iritsi dira puntu batera eztabaidan ere euskara gabe gaizki  
 (5) familian, inguruan erdaldunak egonda ere beraien artean eta alabekin beti egin dute euskaraz eta arazorik gabe.  
 (6) "ez zara euskaldunzaharra, ala?" Moral pilula.  
 (7) ez da inoiz planteatu "maite banauzu euskaraz ikasi behar duzu" bezalakorik.

gurasoei gaztelaniaz egiten diete, beraiei beti euskaraz]  
 (3) oso "natural" gisa deskribatu arren, neskek askatu arte pasa zituen bere zailtasunak; hasieran asko moztzen zen, lotsa.  
 euskal herriko beste lekuetara (iparraldera...)  
 (3) denborarekin, inguruan euskaldunak dituzte  
 (4) inguruan erdaldunak izanda ere, beraiek euskaraz.  
 (5) Neskaren ikaste prozesuan, mutila animatzen, "pixkanaka, animo..."

Zein izen? (bikote tipo)	Euskaldun izan nahi eta egin
<b>GALDERA LABURRAK</b>	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai
2. ((Aldaketaren iraupena?))	3-4 urte
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Erdi-goi batek eta besteak goi mailakoak
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak euskaldun berriak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Erabaki espliziturik ez, betidanik argi
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Erdalduna, denborarekin euskalduntzen

Mungia1 (22)	Adina gaur egun: 56 eta 59	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak		
<p>Testuingurua: neska 16-17 urterekin hasi ikasten. Neskaren ama, mungikoa, familiz baserrikoa, baina Bilbora joan eta ikasi ez → neska bilbon eta etxean erderaz. Mutilaren etxean euskaldunak.</p> <p>(1) Denok euskaldunak garenean, enaiz kapaz erderaz egiteko (mutila), kostatzen da. Nahiz eta berak erderaz egin, nik ekartzen dut berriz. Gaur egun ere, mantendu egiten dot.</p> <p>(2) Gaur egun ere, bikote lagun euskaldunak, erderaz egiten dutenak, nik euskaraz egiten diet.</p> <p>(3) Umeekin ikasi nuen benetan (neska); katea hautsi zen nire aurretik (etxean dana erderaz), gure alabak ya badaki.</p> <p>(4) ni euskara ikasten hasitakoan, ez materialik, ez besterik, helduleku bakarra zan maitasuna hizkuntzarekin (neska)</p>	<p>(5) Norbait ezagutzen dezunean erdaraz, nahiz eta euskalduna izan (neskak), harremana finkatzen da erderaz. Nire kasuan ez da berdina (mutila).</p> <p>(6) Kuadrilan badaude batzuk, danak euskaldunak izanda ere, jotzen du erderara, eta sartu behar diozu euskara. Eta hortik 5 minutura berdina. Sartu behar diozu kufia berriz ekartzeko.</p> <p>(7) (mutilak) nik nire gurasoak ez naiz gogoratzen inoiz guri erderaz egitea.</p> <p>(8) (neska) ni hasi nintzen euskara ikasten, ez bikote, familia... euskara ikasteko. Ez dok 13 taldea zegoen, nik euskaldun munduan sartu gure (Santutxun). Gero ya ikastolan gau-eskolak sortu ziren eta han hasi nintzen 16-17 urterekin. Koadrila berean hasi, geroago (18...).</p>	



Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) Hasieratik mutilak, jakin ahala, zeozer sartzen zuen euskaraz; hasieran oso gauza sinpleak; gero ya luzeagoak bai.</p> <p>(2) (mutila) enaiz gogoratzen noiz egin deten zurekin erderaz.</p> <p>(3) gure artean, gure etxean, normalean beti euskaraz.</p> <p>(4) ez da izan "gaur hasten gara"... izan da normal-normala; sartzen joan...</p> <p>(5) nik (mutilak) berari erdaraz eitia... inposible [badirudi, ezagutu zirenetik, nahiz eta neskak gutxi jakin, beti joan izan dala sartzen, egiten...].</p> <p>(6) Orain errainak gutxi daki, harekin (mutila) erderaz (elkar. luzeetan) eta grazia egiten die.</p>

Zailtasunak	
Zein? ;	zein baliabide gairitzeko?
<p>(1) Neska ikasten, prozesua</p> <p>(2) Espresibidatea, erraztasuna... ez daukat berdina, faltan bota det; batez ere umeak adin zaila daukanean (11-15)</p> <p>(3) batzutan, neska, barruko sentimenduak ateratzeko, behar det gaztelania.</p>	<p>(1) Pazientzia handia (mutilak): beti egin diot, mantxo baina euskaraz (besteek, "erreztearren" erderaz).</p> <p>(2) Konpondu gara, erderakada batzuren... Konstante traduccion simultanea egiten ari zara eta kostatzen da.</p>

Zein izen? (bikote tipo)	Batek etendako katea berreskuratu nahi, besteak berezkoa jarraitu.	
<b>GALDERA LABURRAK</b>		
1. Erabat -edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai	
2. ((Aldaketaren iraupena?))	Neskaren ikasketa prozesua	
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak biek (7)	
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Mutila zaharra, neska ikasitakoa	
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Ez bereziki (bi aldeetatik zetoren)	
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, baina sendotu du	
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Gehienbat euskalduna	

Mungia2 (23)	Adina gaur egun: 40 eta 44	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
<b>Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak</b>		
<p>Testuingurua: mutilaren familia, dena euskaraz (Mungian izan arren). Neskaren familian euskaraz (auzo euskaldun batekoa).</p> <p>(1) Juerga giroan, mungian 92-93an danok egiten genuen erderaz.</p> <p>(2) (mutila) Gure koadrilan ere erdera nagusi, baina baginen 2-3 gure artean euskaraz egiten genuenak. Karrera mutilak erderaz. Txikitan eta nazionaletan: errekreotan beti egin dugu erderaz lagunekin. Etxekoa euskaraz bakarrik. Etxetik kanpo erderaz dana.</p> <p>(3) (neska) nahiz eta koadrilan denak euskaldunak izan, guk ez genuen planteatzen euskaraz egitea. Euskara zan etxean (amarekin), eta kalean erdera. Mutil kontuak eta erderaz zan, Mungiakoa giroa oso erdalduna zan.</p> <p>(4) (neska) nik orduan filologia bukatu berria, baina mutil batekin harremana euskaraz? erregistro falta ere bai! Tontakeri batzuk esan bai, baina...</p> <p>(5) bueltako bidean eingostasus euskaraz? erdi lotsatuta... ni toponimiako beka, filologia... harremanetarako ez beste guztia nire mundua euskaraz zan,</p> <p>(6) [aldatu berritan] raro egiten zan... baina izan zan 3 hilabete edo, raro sentitzen zerala bestearekin; gero ya normala zan. Orain ya raro da erderaz egitea gure artean.</p>	<p>(7) Zergatik aldatu? Euskara gutxi egiten zala Mungian, "gehiago egin behar da". Lagunekin komentatzen "dakigunok ein behar dogula"... Gaur egun aldaketa hura egin genuenekin, koadrilako besteek euskaraz. Ni horren alde egon nintzen.</p> <p>(8) nik (mutila) mozkortzean askotan egiten nuen euskaraz bazilatu... "aldeano" paperean; ondo pasau, ez gendun asko ligatzen baina... Neri ateratzen zitzaidan.</p> <p>(9) (neska) nik ere, interesa ... itzela, baina nik barnertua nuen mutil batekin harremana euskaraz, burutik pasa ere! Euskara irakaslea nintzen, baina... berak espasosten eskatu... eztaikit nik pauso hori emango nuen. (ohitura). Sasoi hartan, ligoteoan, inork ez.</p> <p>niretzat izan zen poz itzela berak eskatzea: nik kunpliduten dot euskararekin, baina eskatu sostenian, erdi lotsatuta.</p> <p>(10) Nahiz ta hasieran arraro egin, biolento, lotsa, berba batzuk faltatea... baina gero ja "nahia" eta nik banuen.</p>	

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) Jaietan ezagutu, parrandan, aurkezpena erderaz.</p> <p>(2) Koadrilan, (mutila) hasi ginen 2-3 gure artean "gu biok bagas, euskaraz eingo deua"; hola desididu giñun eta... Oso jende kontzientziatua da.</p> <p>(3) Hilabete asko ez ziren izango, baina aste batzuk bai: guk erderaz egiten gendun gure artean.</p> <p>(4) Hasi ginen erderaz..., gero enteratzen zera, euskal filologia ikasita... biok euskaldunak... zergatik ez degu egiten euskaraz? Isen san egun batean esatea: egingo degu euskaraz? Hasi ginen beragatik (neskak).</p> <p>(5) Aldaketaren unea: "... eskatu ahal dotzut mesede bat? bueltako bidean eingostasus euskaraz? Holan hasi ginen. Neri kostatzen eite sasten, segun zer esateko enekien, enekian ohiturarik... ta ya holan hasi ginen ta gaur egunean bueno, eztozu erdera erabiltzen.</p> <p>(6) Lagunekin ere... aldatzen duzu eta (arraro) esaten duzu... zer da hau? baina behin aldatuta, alderantziz da: orduan arraro da.</p> <p>(7) Orain, azken urteotan, ateratzen zaizkie esaldi batzuk erderaz, eta harrituta. Zerbait kontatzen duzu atera bezala... erdera ere egiten dugu orain, lehen baino gehiago. Auskalo zergatik (baina gutxi). Kokoteraino nau ≠ estoy hasta el gorro! (indar gehiago bezala du).</p> <p>(8) Behin aldatuta, gero neska mutilari euskara irakasten, alfabetatzen! (aditzak...)</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditzeko?
(1)	(1) [suposatzen]

<b>Zein izen? (bikote tipo)</b>	Biok dakigu euskaraz... zeattik ez dogu eitten euskaraz?
<b>GALDERA LABURRAK</b>	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai
2. ((Aldaketaren iraupena?))	3 hilabete "arraro", gero ya normala

3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak biek (7)
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak euskaldun zaharrak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	ez, ez dute
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Erdi: etxeak euskaldunak, kalean gutxi (Mungian)

Tolosa1 (24)	Adina gaur egun: 43 eta 42	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako zirrara-sentimendu-aldarteak		Nola azalduak? + oharrak
<p>Testuingurua: ezagututakoan, kaleko giroa erderaz; 10 urte erderaz elkarren artean; biak familia euskaldunekoak (neska eskola eta lagunak erdaldunak), etxekeekin euskaraz; ikastola garaian (mutila), ikaskideekin erderaz; mutila ikastola batean irakasle (izandakoa behintzat). Gu euskararen alde... baina, zoritxarrez tolosan, ohitura erderaz...”</p> <p>3:55 (1) Ematen du hizkuntza aldatuta arraro senti zarela... baino gero konturatu ginan errexa dala! (gure kasuan behintzat)</p> <p>[7:10 (2): gurasoekin finkatutako ohitura: beraien aurrean euskaraz, bikoteak sukaldeko atea pasa eta erderara]</p> <p>9:35 (3) (orain jartzen zea pentsatzen orduko jokaera) eta da ridikuloa ta dena, ez? [oraingo ikuspegitik]</p> <p>13:40 (4) [mutila] orain badaude bikoteak ikastolatik pasatakoak eta beraien arteko harremana euskaraz da; nei horrek asko poztutzen nau</p> <p>14:25 (5) [zergatik?1] egoera zan pixkat parregarrie: etxekeekin euskaraz, gu erdaraz...</p> <p>14:35 (6) etorkizunean pentsatzen, umeei eman nahi genien giro euskaldun bat etxian</p> <p>15:30 (7) ez ginen hasi bidai batean... hola, nortasuna reforzatzeko (kanpoan zaudela) gure artean... (16:40) nik uste Benidorrea jundakuan eta ere gehiago egiten gendula</p> <p>17:35 (8) [zerk premyatzen zuen, etorkizuna / uneko egoera?] dena; guk ez badegu euskaraz egiten zeinek egin behar du?</p> <p>18:05→ 19:00 (9): umeak euskaraz hezi... ojo! hurrekiko hizkuntza ≠ bikoteko hizkuntza (18:58, piiiillo-pillo bat!). Gure ingurukoak harritu egiten zian</p> <p>19:50 (10): nola guk ein deun pausoa, orain amorrua emateigu berdin segi dutenak ikustiak (gaizki eamatet); ohituraren aitzakiarekin</p> <p>23:15 (11) (atzera begira?) tonto xamarrak ginen... bitxo arraro izan ginen... ze gauza... ni pozik nao</p> <p>(30:00; (12); ikastolan, “adin hortara” iritsi ta erderaz hasitakoan, amak disgustoa)</p> <p>31:34 (13) zaila da hizkuntza batetik bestera pasatzea... bueno, zaila emateu! (gustatuko zitzaizkizun bikote gehiagok egitea pauso hori)</p>		<p>15:00 (6) momentuan gogoratzen hasten da... “ze hasi ginen, bidai batean edo?” (oain etorri zait)</p> <p>31:40 (13) zaila da... (txekeo) zaila emateu!</p>

Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena			
Erabaki esplizitoak / lorpenak. Non? (min:seg)	Nolakoa (kontatu)?	Beren helburuekiko?	Sentsazioa bat dator?
2:25 (1) Behin esan gendun: bueno, hemendik aurrera euskaraz; nahikoa da! (elkarrekin bizitzera joatean)	(5) (joera finkatzeaz)	13:58 (1) Guk eman gendun	[bai]
4:25 (2) Interesa behar da... eta hausnarketa bat egitea	21:58	pauso hori eta	
15:52 (3) (San Franciscotik bueltan)... ta zeatik ez gera hasten euskaraz hitzaiten?	Txekeo nabarmena.	ondo atera zitzaigun	

Zailtasunak	
Zein? ; nola azalduak?	zein baliabide gainditzeko?
11:58 (1) Neri gertatzen zait oraindik (neska), eskolako kideekin... ezin det euskaraz hitz egin, erderaz egiten det nahiz eta jakin bera euskalduna dala; aldiz, (12:22)	22:15 ... (erdera, orain?) eztezunean nahi umek ulertzea, 28:40 gure

17:05 (4) Erabaki batea iritsi ginen 21:45 (5) [gorabeherak egon dira finkatzeko?] ... EZ 22:20 (6) baldin badakit euskaraz dakila, nahiz eta neri ez egin, euskaraz egiten diot 23:50 (7) erabakia hartu gendun, jarraitu gendun erabaki horrekin 25:20 (8) egungo harremana, erabat eus, ez nagusiki; erdera pixkat aztutzen ai zait! 26:28 (9) erdaldun artean gaudenean, gu bion artekoa euskaraz egiten deu 30:00 (10) ikastolan erderaz egiten gendula... txikitan ez (amak kriston disgustoa)	(10) Len esan dizut ikastolan... baino txikitan ez, txikitan euskaraz eiten gendun.	[beren helburua erabat lortu dute; eta beraien arteko ohitura aldatzeaz gain, lehen gaztelaniaz zituzten hainbat harreman ere; edo gaur egun erderaz egiten diren euskaldunei ere]		eskolako "gurasokideekin", euskaldunberriak badira ere, euskaraz egiten saiatzen naiz. 25:35 (2) erderaz egiten det erdaldunekin, edo, euskaraz jakin baino behin eta berriz erderaz egiten dizunarekin, azkenian zeditu eitezu (segun zertaz ai zean...) 27:30 (3) lagun batzukin, garai hartakoak, jarraitzen det erderaz, ikusten detenak ... ez daudela "por la labor".	inguruan euskaraz ez dakien jende gutxi
--	---	--	--	---	---

Gainditu gabekoak?		Kontakizunaren estiloa eta deskribapena (eskala)	Zein izen? (bikote tipo)
Zein dira?	Nola azalduak?		
(ez da apenas ezer)	(-----)	Kanpoko arrazoiak ere erabiltzen dituzte, baina hainbat momentutan txekeo nabarmenak daude. Estiloa zuzena da eta adibideek aditzera ematen dute bai gaiari buruzko erreflexioa eta baita aldaketaren motor izango zen base emotiboa ere.	Ingurune euskaldunean, ohitura erdaldunetik atera ziren bi euskaldun.

GALDERA LABURRAK	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai
2. ((Aldaketaren iraupena?))	laburra
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Biek erdi-goi mailakoak
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak euskaldunzaharrak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez erabat, baina garrantzia handia
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Nahiko euskalduna (etxea bai, lagunak ohituraz ez)

Tolosa2 (25)	Adina gaur egun: 67 eta 67	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak		
<p>Testuingurua: beti Tolosan, gaur Berastegin. Neskak senideekin beti euskaraz.</p> <p>(1) (neska) etxean beti euskaraz (gurasoek hala eskatuta), eskolan monjetan erderaz, lagunekin erderaz, kalean dena erdera egiten zan. Amari burutik pasa ere erderaz egitea. Etxetik atera eta hitzik ez.</p> <p>(2) (neska) monjetan desprezio handia zuten euskaldunen kontra: eta gogorren egiten zuten baserrikoak zirenak. Iruitze zitzaigun hori zala normala. Denak ohitu ginen kalean erdera egitera. Nik oso gaizki pasa nuen eskolan.</p> <p>(3) (mutila) Aitarekin beti euskaraz, amarekin ia dana erderaz. Senideekin, orduko giroan, gehienbat erderaz.</p> <p>(4) (mutila) Euskaraz egiteko nahia nahiko gaztetan sentitu nuen, gero ja pauso hori ematea beranduago etorri zan. Oargin euskararen aldeko joera nabarmena zen, baina eguneroko martxa erderaz zan. Kantak beti ziran euskaraz, hori bai.</p> <p>(5) Txillardegiren liburuak irakurtzen nituen... Prozesu bat izan zan kontzientzia hartu arte, gero ya pausoa eman, eta gero ya seme-alabekin, erabat.</p> <p>(6) Alaba zaharrena ikastolako hirugarren promozioa.</p> <p>(7) Behin kontzientzia hartu gendunean, biok euskara jakinda erderaz egiteak ez zuen sentidorik gure artean. Hori nahiko naturala zan. Kontzientzia bat izan zan: ikastolako mugimenduan sartuta ginan, anai bat atxilotua izan nuen (biek)...</p> <p>(8) Gerra denboran gaizki pasa zuten gurasoek, gero gogorrago egin zuten euskararen alde. Aitarekin (mutila) sekula ez degu erderaz egin, anaien artean bai.</p> <p>(9) Gure garaiko bikote (euskaldun) gehienek jarraitu zuten erderaz egiten.</p> <p>(10) Tolosako herrietakoek euskara aberatsa hitz egiten zuten, baina guk osso euskara kaxkarra hitz egin dugu urtetan.</p> <p>(11) Gure seme-alabek euskararako joera izan dute, bai etxean, lagunekin...</p> <p>(12) Magisteritza ikastean (40 urterekin), matematikak oso gogorak euskaraz ikasteko.</p> <p>(13) Aukeran jarrita (mutila) saiatu egiten naiz euskaraz egiteko, mantxoago. (neska) nik orduerdian egiten detena berak lau ordu behar ditu.</p> <p>(14) Oso hemengotuta gaude; hasieran kostatu zaigu ulertzea eta eskapatzen zaigu, baina hemen ezin da hitz bat erderaz egin. Hika entzuten det eta inbidia ematen digu.</p>		

<b>Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena</b>
Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen
<p>(1) Mendi elkartean ezagutu; jarduera asko egiten genuen, baina dena erderaz. Gure erlazioa hasieran gehiena erderaz izango zan.</p> <p>(2) Momentu batean erabaki egin gendun eta hasi ginan euskaraz egiten, eta hola jarraitu degu.</p> <p>(3) Umeak etortzerako euskaraz egiten hasita zeuden beraien artean.</p> <p>(4) Giro erdaldunean eta, erderakadak seguru botako genituela.</p> <p>(5) Gaur egun gure artean, gehiena euskaraz. Esaldi sueltoak eta esapideak bai, baina elkarrizketa osoak ez. Seme-alabekin erabat euskaraz.</p> <p>(6) Hitz gurutzatuak, urtetan mutilak euskaraz, (sinonimoak ikasteko) neskak jarraitu du urtetan erderaz; orain gutxi hasi da erderaz.</p>

<b>Zailtasunak</b>	
Zein? ;	zein baliabide gainditze ko?
<p>(1) (neska) haserretzen banaiz, beti erderaz; nik ez dakit indar gehiago daukan...</p> <p>(2) (mutila) anaiarekin asko kostatu zait, urte asko (gaur egun bai).</p> <p>(3) 15 urte Berastegin irakasle, erabat giro euskaldunean; hala ere gehiago ateratzen zait (neska) erdera berari baino. Zenbait jenderekin erderaz jarraitu.</p> <p>(4) nahiz eta uuuurtetan saiatu, askoz errezago idazten det erderaz, eta hitz egin ere, seguruena errazago erderaz.</p>	

<b>Zein izen? (bikote tipo)</b>	Behin kontzientzia hartuta, erderaz egiteak ez zuen sentidorik.
<b>GALDERA LABURRAK</b>	
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai
2. ((Aldaketaren iraupena?))	Hilabete batzuk

3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak (7) eta Erdi-goi mailakoak (6)
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Biak euskaldun zaharrak, baina erderaz eskolatuak
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai, erabaki egin zuten
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, baina gero finkatu dute
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Erdi: tolosan, etxeetan euskaraz, kalean erderaz.

Zarautz1 (26)	Adina gaur egun: <b>58 eta 54</b>	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? > 5 urte
---------------	-----------------------------------	--

### emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)

#### Aipatutako [edo grabazioan sumatutako] zirrara-sentimendu-aldarteak

Testuingurua: biak Zarautzen bizi; mutila euskalduna etxetik, neska, berez Zumaiarra, etxetik erdalduna.

(1) Neskaren koadrila euskalduna, neska euskaraz jakin ez; erderaz egiten zuten. Ama erdalduna, aita euskalduna, baina etxean erderaz.

(2) Urtean (neska), amorrua ematen zian, denak euskaraz eta ni... Beti lotsatuta... gaizki. Mutilaren kuadrilla zan euskaraz a tope-tope.

(3) Kuadrilako erdaldunari (mutila), ulertzen du, euskaraz egiten diote, berak erderaz erantzun.

(4) Kuadrillako batzukin tentsio puntu bat, edo obligazio bat: banekin harekin ezin nuela erderaz egin: beraiek egiten zidaten euskaraz, eta eskatzen zidaten ere egiteko euskaraz ("zer esan dezu...?"). Gero gaizki esaten banun azaltzen zidaten, irakasle onak izan ditut.

(5) [zergatik?] Nik (mutila) garbi neukan nahi nuela nire bikotearekin euskaraz bizi. Umiak etortzen zirenerako eta, euskaraz bizitzeko aukera izan.

(6) Nik (mutila) ezagutu det kontrako prozesua: eskolan erderaz egitera behartzea; eta egin ginan erderatu: erderara saltatzen gendun... ohitura txarrak hartuta. Ni bueltatu nintzan, baina arrebak adibidez jarraitu du gehienbat erderaz.

(7) Nik (neska) ere nahi nuen giro euskalduna, banuen inbidia hori jendea euskaraz ikusita.

(8) Emakumeen artean beti egon da ohitura harremana erderaz eramateko: ez dakit, "gehiago izan nahi" edo, agian horregatik.

(9) Gerora, seme-alabak irakasle.

(10) Lanean (neska) euskaraz egin izan det.

(11) Neska: txikitako ezagunak topatuta, harrিতта geratzen dira oso harrিতта nolako euskara ikasi duen. Askok ez diote sinisten euskaldunberria danik.

(12) Egin degu kontzientzi bat zegoelako, eta sentitzen da harrotasuna (bion aldetik). Orain konturatzen naiz: asko egin dezu (bikotea, "baina lo hartu gabe!")

(13) Hizkuntza txikiak borrokan jardun behar du konstante-konstante... erdera errez sartzen da; handiak txikia jaten du; lasaitzen bazara...

(14) Gure taldean egon zan bat etortzeari utzi ziona, denak erderaz ez eginarazteagatik.

(15) Noblia, noblia,... ta azkenian tontua.

### Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena

Erabaki esplizitoak; lorpenak; beren helburuekiko zer suposatu duen

(1) Hasieran harremana erderaz; behin esan zuen arte: hemendik aurrera ez dizut egingo hitz bat erderaz. Urtebete eskas, harremana erderaz zana. Nik ja esan zidanean ikusi nuen ja derrigor ikasi beharra neukala, baina ez nuen gaizki hartu. Esan eta egin, gero mutilak bete egiten zuen (kuadrillakoen laguntzarekin).

(2) Nik ikasi det kalia (neska), euskalategia rollo bat.

(3) Berak (neskak) bazeukan gogoa, baina alperkeri puntu hori eta horretara bultzatu.

(4) Hasieran gainean egotea gehiago eskatu zigun, gero ja errezago.

(5) Seme-alabak izaterako, beraien arteko ohitura finkatuta zegoen euskaraz.

(6) Seme-alabak izan eta urte batzutura, gero egin ginan relajatu bezela, eta erderari gehiago sartzen utzi bezela. Umiakin ez, haiekin erabat euskaraz.

(7) Behin umeak izanda, erderazko faserik ez.

(8) Lehen erderaz egiten nuen askorekin, edo dendetan, (neska) ni sartzen naiz gaur egun euskaraz.

### Zailtasunak

Zein? ;

zein baliabide gainditzeko?

(1) Ikaste prozesua (neska)  
 (2) Ikaste prozesua (neska)  
 (3) Ikaste prozesua (neska)  
 (4) haserreak eta saltoak: nahi gabe, askotan salta erderara. (erdera beti hor dago; kutsatzen du) Egindako esaldiak sartzen dira.  
 (5) Ikaste prozesua (neska)

(1) Lagun batzuk egin didate beti euskaraz.  
 (2) Pixkanaka sartzen joan: eginez ikasten da; gaur hau, hurrena pixkat gehiago... behartuz.  
 (3) Elkarri atentzioa deitu: aizu, erderaz ari zea.  
 (5) Gai batzutan nik igual egiten nion erderaz, baino bere erantzuna beti euskaraz.

<b>Zein izen? (bikote tipo)</b>	Garbi geneukan euskaldun giroa nahi genuela etxean	
<b>GALDERA LABURRAK</b>		
1. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Bai	
2. ((Aldaketaren iraupena?))	Prozesua	
3. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak (7) eta Erdi-goi mailakoak (6)	
4. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Bat euskaldun zaharra eta bestea berria	
5. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai	
6. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez, baina etorkizun hori kontuan izanda	
7. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Euskalduna (Zarautz)	

Zarautz2 (27)	Adina gaur egun: 34 eta 32	Aldaketa hasi orain dela zenbat urte? 1-3 urte
<b>emozioak - zirrarak (sentimenduak, aldarteak...)</b>		
<b>Aipatutako zirrara-sentimendu-aldarteak</b>		<b>Nola azalduak? + oharrak</b>
<p>Testuingurua: lanean ezagutu, hasieran harremana gaztelaniaz; neska Vic-ekoa (katalana) mutila zarautzkoa, bientzat ere gaztelania arrotz; orain urtebete hasi bakoitza besteara ikasten eta euskara beraien artean erabiltzen.</p> <p>1:24 (+ 2:13) (1) bagenekilako, biok gaztelera ez genuena oso ondo egiten (jajaja); baina elkarrekin ulertzeko; (hasieran zuen artean gaztelera hitz egiteko) puuffffffff, kostata, gauzak azaltzeko eta erreztasun handirik ez daukazula, baina hala egin behar zan eta...</p> <p>3:14 (2) guretzat gaztelaniaz egitea ez da naturala ; (neska) 17 urterekin ikasi nuen gaztelaniaz, eta orain normalean ez det hitz egiten. Euskadin hitz egin det, baina katalunian ez; niretzat ez da naturala.</p> <p>5:04 (3) naturaltasuna, ulertuta norberaren izaeraren aldetik; bera (neska) Vic-ekoa da; nik entzun dut gaztelaniaz Bartzelonan, baina Vic-en ezerrez. Nik (mutila) gaztelaniaz ondo ikasi non 18 urterekin, Bilbora joan nintzanean. (6:21) hori jakinda eta bakoitzaren ingurua jakinda, inguru batean edo bestean ibili behar badegu...</p> <p>5:52 (4) [(3) barruan, konkretuki] norberaren izaeraren aldetik, gazteleraz jardutea, pixka bat mmm, eta...</p> <p>8:26 (5) jende ondoan... euskaldunak dira; (mutila) bai, nire ingurunea euskalduna da.</p> <p>8:55 (6) (nola joan zarete aurreraten?) ni gustora; orain ulertzen det asko, eta jendea hasi zait euskaraz egiten, asko gustatzen zait hori.</p> <p>10:03 (7) bizi hemen... ba euskaraz hitz egin behar dut</p> <p>15:13 (8) euskal herriko hizkuntza euskara da; ideologia soziopolitiko ere bai, modu natural batean ulertuta; Kataluniako hizkuntza katalana da.</p> <p>16:00 (9) seme-alabarik izanez gero, euskara eta katalana emango</p> <p>20:32 (10) (beraz bazaudete ya bidea hasita, hortxe, zer sentitzen dosue, posible dela, ez dela?) nik pentsatzen det bai</p> <p>21:02 (11) bikoteetan bat euskalduna eta bestea erdalduna, normalean bukatzen dute gaztelaniaz eta nik, bufff, ez nahi hori. Niretzat gaztelera ez da naturala.</p> <p>21:58 (12) niri asko gustatzen zait hemen bizitzea, eta nik nahi det pertenez [hemengo izan], katalunian bezala</p> <p>22:15 (13) ulertzen det baina ez zait gustatzen, hemen ez bazara jatorrizkoa... beti euskaldunberri! katalunian, katalana ikasten duzunean katalana zara; hemen zailagoa da hemengotzat hartzea... horrek agian eragiten du jendea euskaratik urruntzea [testua moldatua, ideia jasotzeko; azaltzeko zailtasunak]. Hori ikusten dut orokorrean, nik ez dut arazoa, baina orokorrean...</p>		

Ohitura-aldaketa: prozesua eta lorpena			
Erabaki esplizitoak / lorpenak. Non? (min:seg)	Nolakoa (kontatu)?	Beren helburuekiko?	Sentsazioa bat dator?
<p>1:47 (1) orain gure ideia da, egunero-egunero euskaraz... hitz egitea... eta katalanez.</p> <p>2:36 (2) ni (mutila) katalanez ikasten ari naiz, erdi neure kasa.</p> <p>2:45 (3) eta ni (neska) euskera ikasten, baina pixkanaka-pixkanaka... como es? euskaltegian</p> <p>4:10 (4) elkarrekin urtebete generamanean erabaki gendun, pixkanaka ikasten joan behar genuela bata bestearena.</p> <p>4:35 (5) hori litzateke idea: elkarren artean euskaraz edo katalaneaz egitea eta gaztelaniaz ez egitea; baina dena ez da posible orain.</p> <p>11:50 (6) gaur egun, momentuan, nahastuta: euskaraz, katalanez, gaztelaniaz; momentuaren edo gaiaren arabera [gehiena gaztelaniaz].</p> <p>14:00 (7) momentu batetik aurrera, hizkuntza batean ez bazara jartzen, nahiz eta jakin gaizki egiten dezula, ikasteko bide bakarra da (txarto pasatzea)</p> <p>18:00 (8) gaia atera zen, beharragatik...</p>	<p>[(4) urtebete... igual lehenagotik; txekeo azkarra; txekeo jarrera]</p>	<p>Bidean dira; oraingo errealitateak ez die balio, baina dagoeneko emaitza batzuk ikusten dituzte eta pozik daude.</p>	<p>Bai</p>

Zailtasunak	
Zein? ; nola azalduak?	zein baliabide gainditzeko?
<p>1:57 (1) baina batzutan... jarraiaz beti, esfortzuan-esfortzuan-esfortzuan ibiltzea... azkenean...( )</p> <p>6:55 (2) orain batzutan gehio euskaraz hitz egin... [trabatu, ezin euskaraz];</p> <p>7:50 (3) elkarrizketa luzea denean, denboragatik; oraindik ez daukagulako gaitasunik elkarrizketak euskaraz edo katalanez eramateko.</p> <p>10:12 (4) (mutilak) beti zuzentzailearena egin behar izatea, gainean egotea: hau gaizki, hau gaizki...</p> <p>11:50 (5) nekatuta sentituz gero; edo beldurra ematen badizu ez dizula ulertuko, gaztelaniara</p> <p>19:30 (6) guk nahi degu euskaraz eta katalanez egin, baina jendeak (neskari) gaztelaniaz egiten dio</p>	<p>(1) [suposatzen da "batzutan" gaztelaniaz ere egiteaz ari direla]</p> <p>(2) bestela, zerbait esateko, katalanez; berak (mutila) ja dena ulertzen du.</p> <p>(3) luzea denean, oraingoz gaztelaniaz. [*; 13:00] Proba egin izan dute: ordo erdi bat dena euskaraz; ordu erdi dena katalanez: pfff, oso gogorra da!</p>

Gainditu gabekoak?		Kontakizunaren estiloa eta deskribapena (eskala)	Zein izen? (bikote tipo)
Zein dira?	Nola azalduak?		
- Oraindik harremanaren zati handi bat gaztelaniaz da nahiz eta beraiek hala nahi ez.	Ezerosotasuna	Lehenengo pertsonako arrazoiak agertzen dira, ez dira kanpoan jartzen. Galdera batzuetan txekoak ere badaude, baina ez oso nabarmenak (tartean neskaren hizkuntza gaitasunak ere markatzen du estiloa).	Euskaldun eta katalana "natural" bana elkarrekin



GALDERA LABURRAK	
8. Erabat –edo oso nabarmen- aldatu dute erdaratik euskarara?	Ez, aldatze-bidean daude.
9. ((Aldaketaren iraupena?))	Urte bat edo bi hasi zirela euskaraz
10. Ikasketarik bai/ez? Zein mailakoak?	Goi mailakoak biek.
11. Euskaldun zaharrak dira? euskaldun berriak?	Bat euskaldun zaharra, bestea euskara ikasten.
12. Aldatzearen gaia esplizitatu da? Erabakirik egon da?	Bai
13. Seme-alabengan pentsatuz egindako aldaketa?	Ez bereziki (nahiz eta hor egon gaia)
14. Ingurunea? (oso euskalduna / erdi / erdalduna)	Euskalduna (Zarautz)

[Oharrak – interpretazioak]

- Ohitura-aldaketa\_2 eta \_3: ez batek eta ez besteak ez dute izan gaztelaniaz egiteko ohiturarik beren inguru hurbiletan: mutila euskaraz eta neska katalanez. Grabazioan, neskaren euskara-maila oso apala da, ez du elkarriketa arrunta euskaraz egiteko gaitasunik.
- Emozioak\_4: oso aipamen laburra da, baina segurua asko adierazten du [sakontze-lan batean, hor hari bat legoke]. Irudiekin ikustea komeni litzateke, baina “mm” horretan interpreta liteke, hipotesi mailan: “gaztelaniaz jardutea..., zu ez zaren zerbait izatea”, “arrotz sentitzea...” edo antzeko zerbait.
- Emozioak\_10: oraindik euskarazko gaitasun mugatua izan arren, biengan sumatzen da hizkuntza aldatzeko determinazioa, nahi sendo bat sumatzen da.
- Emozioak\_11: eta hori... bufff; gaztelaniaz hitz egitearen posibilitatea oso arrotz egiten zaio neskari; “ez da naturala” horretan sumatzen da egonezin handi bat eragiten diola bere harremana gaztelaniaz egin beharrak, bai momentuan arrotz sentitzen delako (gorago aipatzen du “hizkuntza batean pentsatu eta bestean esate hori...”) eta horren arriskuaren aurrean ezeroso sentitzen da; suspizioak nahiko adierazgarriak dira.
- Ohitura-aldaketa\_6: euskara eta katalana gaztelaniarekin batera erabiltzen dituztela aipatzen da, baina bai neskaren egungo maila ikusita eta aurrerago egiten den aipamenen batean ikusten da (Emozioak\_11) ziurrenik oraindik gehiena gaztelaniaz da, nahiz eta aldaketarako joera nahiko sendoa izan.

## **6 Txostenaren CD osagarria: bertako informazioa**

Txosten honen erabilgarritasuna hobetzeko asmoz, eta bide batez txosten *ekologikoago* bat egiteko, ikerketan erabilitako hainbat material eta bertan sortutako emaitzetako batzuk euskarri digitalean eskaintzen dira soilik, ez paperean.

Aipatu CDan, ondorengo eduki hauek bildu dira:

### **6.1 Txosten honen bertsio digitala**

### **6.2 Ikerketa honen *Proiektuaren Txostena***

Soziolinguistika Klusterraren eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren artean adostua, proiektuaren definizioa jasotzen duena.

### **6.3 Ikerketa honen *Jarraipen-bilera Txostena (2008-09)***

Txosten horretan, besteak beste, ikerketaren LANDA LANEKO fasean –eta aurretik-erabilitako materialak biltzen dira. Besteak beste:

- Bikoteak hautatzeko erabilitako irizpideak eta xehetasun metodologikoak
- Bikoteen elkarrizketetan erabilitako gidoia
- Elkarrizketetan erabilitako oharra (elkarrizketatzaileak kontuan hartzekoak)
- Elkarrizketa egin aurretik bikoteek (telefonoz) betetako galde-sorta itxia
- Bikoteen kontaktaziorako fasearen deskribapena
- Herri bakoitzean bikoteekin kontaktatzeko eman diren urratsak eta informatzaileei buruzko xehetasunak (bai bikoteak *lortu* direnetan, eta bai *lortu* ez direnetan)
- Informatzaileei bidalitako gutun-eredua

### **6.4 Elkarrizketen *Pasarte adierazgarriak* dokumentua**

Txosten honen 5.1 ataletan azaltzen den moduan, bi xehetasun maila ezberdin erabili dira elkarrizketen edukiak tauletan laburtzeko. *Hustuketa xeheak* egin diren kasuetan, tauletan edukiak biltzeaz gain, prozesu hauetan adierazgarriak izan daitezkeen pasarteak hautatu dira eta denboran lokalizatu.

Zazpi elkarrizketen *Pasarte adierazgarriak* eskaintzen dira dokumentu honetan. Ikerketa honetan jasotako testimonioen zabalpenik egin nahi izanez gero oso erabilgarri izan daiteke material hau.

### **6.5 Elkarrizketen grabazioak eta transkribaketak**

Ikerketan eginiko elkarrizketen grabazioak eta hauen transkribaketak ondoren adierazten den moduan jaso dira, baina ez daude eskura CDaren bertsio honetan<sup>29</sup>.

- Grabazioak: grabagailu digital bidez jaso dira (Philips, Digital Voice Tracer 7675). Batez beste grabazio bakoitza 30 minutukoa da<sup>30</sup>.
- Elkarrizketa guztien transkribaketak txosten batean bildu dira, herrika ordenatuta (guztira 266 orrialde). Transkribaketa hauetan koloreka bereizten dira hitz egin duena une bakoitzea *Galdetzailea* den (elkarrizketatzailea), edota bikoteko *gizona* edo *emakumea*.

<sup>29</sup> Material hau Hizkuntza Politikarako Sailordetzan eta Soziolinguistika Klusterrean jaso da.

<sup>30</sup> Grabagailuak .ZVR formatua sortzen du. Formatu horretatik *ZVR Converter* programa erabiliz grabazioak .WMA formatu estandarragora pasa daitezke.

## 7 Bibliografia

- Buruntzaldeko familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko egitasmoa: Koordinazio Batzordea (2007) *Hizkuntza-ohitura aldatu duten bikoteen gaineko ikerketa*. Argitaratu gabeko txostena.
- Damasio, Antonio (2005) *En busca de Spinoza. Neurobiología de la emoción y los sentimientos*. Madrid: Crítica.
- De Bono, Edward (1992) *Yo tengo razón, tu estás equivocado*. Barcelona: Ediciones B.
- De Bono, Edward (1996) *El pensamiento práctico*. Barcelona: Paidós [kendu?].
- Dörnyei, Zoltán. (2008) *Estrategias de motivación en el aula de lenguas*. Barcelona: Editorial UOC.
- Egizabal, Diego (2004) *Kuadrillategi 2001-2003. Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*. Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.
- Egizabal, Diego, Huegun, Axier eta Jauregi, Pello (2004) Kuadrillategi egitasmoa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (103-111)
- Goleman, Daniel (1996) *Inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.
- Jauregi, Pello (1998) *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia*. Doktorego tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Jauregi, Pello (2003) *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II). Hizkuntzazko jokaerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- Ruiz Olabuénaga, José Ignacio (2007) *Metodología de la investigación cualitativa* (4. edizioa). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Soziolinguistika Klusterra (2008) *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketalana*. Ikerketaren proiektu-txostena. Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari aurkeztua.
- Suberbiola, Pablo (2004) Euskararen erabileran nondik eragin?: Zenbait gogoeta. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (53-66).
- Unanue, Aitor (2006) *Administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plana. Lasarte-Oriako Udaleko esperientzia: planteamendu teorikotik aplikazio praktikora*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- Watzlawick, Paul; Weakland, John H. eta Fish, Richard (2007) *Cambio. Formación y solución de los problemas humanos* (12. edizioa). Barcelona: Herder.